

EUSKAL HERRITIK KOLEKTIBOTASUNEAN ERAIKIZ

BIZI ESTILO JASANGARRIETAN OINARRITUTAKO GIZARTE JUSTU ETA
BIDEZKO BATEN ERAIKUNTZARAKO ANALISI ETA ALDARRIKAPENAK



Koordinatzailea:



www.mugarikgabe.org

Realizado por entidades colaboradoras: Bizilur, Ehne Bizkaia, Ekologistak Martxan, Goiener, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Emaús Gizarte Fundazioa, Setem Hego Haizea, Desazkundera (be-reziki Desazkundera Feminismoen taldea), Etxeko Langileen Elkartea (ELE), ESK sindikatua, Za-dorra Fundazioa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak, REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta So-lidarioaren Sarea), Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundera, Saretuz (Red de Consumo Responsable, Consciente y Transformador de Donostia), Zentzuz Kontsumitu (Vitoria-Gasteizko Kontsumo Kontziente eta Arduratsuko sarea), Alianza Política Sector de Mujeres (Guatemala) eta Xochilt Acatl emakume zentroa (Nikaragua) eta Mugarik Gabe.

Babeslea:



Diseinu eta maketazioa: Alejo Moreno Sainz

Azaleko argazkia: Errekaleor Bizirik

Agradecemos a todas las personas y colectivos que han colaborado en el proceso de construcción colectiva de este material.


Mayo de 2016



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4.0)
Lizentzia osoa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

EUSKAL HERRITIK KOLEKTIBOTASUNEAN ERAIKIZ

BIZI ESTILO JASANGARRIETAN OINARRITUTAKO GIZARTE JUSTU ETA
BIDEZKO BATEN ERAIKUNTZARAKO ANALISI ETA ALDARRIKAPENAK



AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| SARRERA | 7 |
| NONDIK GATOZ..... | 9 |
| Kolektiboki bidea egiten hasi gara..... | 10 |
| Non gaude orain..... | 12 |
| SARRERA..... | 15 |
| ETORKIZUNIK GABEKO KAPITALISMOAREN AURREAN | |
| EREDU BERRI BATEN ALDE APUSTU EGIN DEZAGUN..... | 15 |
| Kapitalismoak ez du etorkizunik..... | 15 |
| Jaso eta erreproduzitu dugun eredu sozio-ekonomikoa..... | 16 |
| Eredu honen haustura..... | 18 |
| Beste eredu baten alde apustu egin dezagun..... | 18 |
| | |
| 1. PERTSONEN ZAINKETA, BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN OINARRIETAKO BAT | 21 |
| AZTERKETA ETA PROPOSAMENAK..... | 21 |
| ATARIKOA..... | 23 |
| 1. TESTUINGURU GLOBALA..... | 24 |
| 2. EUROPAKO ETA TOKIKO TESTUINGURUA..... | 26 |
| 2.1. Nondik mantentzen da bizitza?..... | 26 |
| 2.2. Etxeetako zainketa-lana kontraziklikoa da: handitu egiten da krisiarekin..... | 27 |
| 2.3. Nola erabiltzen dute denbora gizonak eta emakumeak?..... | 29 |
| 2.4. Emakumeen parte-hartzea handitu egin da lan-merkatuan, baina, zer lan-mota lortzen dituzte?..... | 31 |
| 2.5. Osasun-bazterketako neurriak: arauketa eta abian jartzea..... | 34 |
| 2.6. Etxeko enplegua..... | 36 |
| 3. GOMENDIOAK ETA ALDARRIKAPENAK..... | 37 |
| 3.1. Erakundeei zuzendutako neurriak eta aldarrikapenak..... | 38 |
| 3.2. Banakako eta taldekako aldatetarako alternatibak..... | 40 |
| BIBLIOGRAFIA..... | 42 |
| WEBGRAFIA..... | 42 |
| | |
| 2. ELIKADURA-BURUJABETZA | 43 |
| 1. Testuingurua, ikuspegi global batetik..... | 45 |
| 2. Euskal Herriko testuingurua..... | 49 |
| 3. Maila politiko-estrategikoko aldarrikapenak..... | 51 |
| 3.1. Lur eta ondasun komunak erabiltzeko aukeraren inguruan..... | 53 |
| 3.2. Elikagaien ekoizpenaren eta eraldaketaren arloan..... | 55 |
| 3.3. Merkaturatzearen eta kontsumo-ereduaren eraldaketaren arloan..... | 55 |
| 3.4. Erosketa publikoaren arloan..... | 56 |
| 4. Banakako eta taldekako alternatibak..... | 57 |
| 4.1. Lur eta ondasun komunak erabiltzeko aukeraren inguruan..... | 57 |
| 4.2. Elikagaien ekoizpenaren eta eraldaketaren arloan..... | 58 |
| 4.3. Merkaturatzearen eta kontsumo-ereduaren eraldaketaren arloan..... | 58 |
| 4.4. Erosketa publikoaren arloan..... | 59 |
| BIBLIOGRAFIA..... | 60 |

| | |
|--|-----------|
| 3. DESAZKUNDE ENERGETIKOA..... | 61 |
| 1. TESTUINGURUA IKUSPUNTU GLOBALETIK..... | 63 |
| 1.1. Zergatik da garrantzitsua eredu energetiko bat izendatzea..... | 63 |
| 1.2. Energia..... | 64 |
| 1.3. Baliabide energetikoak..... | 71 |
| 1.4. Erabilera energetikoak..... | 72 |
| 2. HEGO EUSKAL HERRIKO TESTUINGURUA..... | 74 |
| 2.1. Nondik dator Hego Euskal Herriko energia..... | 74 |
| 2.2. Energia finalaren erabilera EAEn..... | 76 |
| 3. MAILA POLITIKO-ESTRATEGIKOKO ALDARRIKAPEN ETA GOMENDIOAK..... | 77 |
| 3.1. Aldarrikapen urgenceak..... | 78 |
| 3.2. Epe ertain/luzerako aldarrikapenak..... | 78 |
| 4. MAILA INDIVIDUAL/KOLEKTIBOKO ALTERNATIBAK..... | 80 |
| 4.1 Maila indibidualean..... | 80 |
| 4.2. Maila kolektiboan..... | 81 |
| | |
| 4. EKONOMIA BIRKOKATZEKO GAKOAK..... | 85 |
| SARRERA..... | 87 |
| 1. TESTUINGURUA IKUSPEGI GLOBAL BATETIK..... | 87 |
| 2. EUSKAL HERRIKO TESTUINGURUA..... | 91 |
| 3. PROPOSAMENAK..... | 95 |
| 3.1. Maila politiko eta estrategikoko aldarrikapenak..... | 95 |
| a. Ondare komunen zerbitzura kudeaketa instituzional bat garatzea..... | 96 |
| b. Garapen alternatibo baterako ekonomia berri bat sustatzea..... | 98 |
| c. Gure lurraren zaintza sustatzea eta ingurumenaren jasagarritasuna..... | 99 |
| 4. Alternatiba indibidualak eta kolektiboak..... | 100 |
| a. 3B-ak: behertzea, berrerabiltzea eta birziklatzea..... | 100 |
| b. Eraldaketa sozialerako finantza etikoak..... | 100 |
| c. Merkatu soziala: komertzializazio alternatiboa eta kontsumo kritikoa..... | 102 |
| d. Ekonomiaren txanpongabetzea..... | 102 |
| e. Komertzializazio zirkuitu motzak..... | 103 |
| f. Bidezko merkataritza eta elikadura burujabetza..... | 103 |
| g. Burujabetza energetikoa..... | 104 |



0

SARRERA

NONDIK GATUZ

Sistema kapitalista baliabide natural *ugari* eta *merkea* izatearen premisan sustengatzen da, eta hazkunde mugagabea. Hala eta guztiz ere, bistakoa da ezinezkoa dela baliabide natural mugatuaren esplotazioan oinarritzen den eta hazkunde mugagabea jomuga duen eredu bat, hortaz, bestelako antolakuntza eredu sozial, politiko eta ekonomiko batzuetara igaro behar dugu.

“Krisia” ekonomiko eta aldi baterako gisa aurkezten da, temati hitz egiten da “krisi ekonomikoaren amaieraz” bere irtenbideak beste arazo sozial eta ingurumen problemak hobetuko dituela aditzera emanez. Alabaina, krisi ekologiko, sozial, zainketena, eta abarren aurrean aurkitzen gara. Aldaketa klimatikoa, biodibertsitatearen galera, baliabide naturalen agortzea, generoen desberdintasun soziala areagotzea, aberastasun globala esku gutxitan pilatzea, eta paraleloki bazterketa eta pobrezia-aren ugartzea (emakume aurpegiarekin), bizi dugun krisi sistematiko larriaren adiera batzuk dira, eta haien dimentsio batzuetan, batez ere ekologiarik eta baliabideei loturikoetan, eraldaketa urjenteak behar dituztenak. Gizadia gurutze antzeko erabaki baten aurrean dago: edo sistema ekonomikoa eta politikoa aldatzen dugu edo basakeriarantz goaz.

Sistema kapitalista eskura dauden baliabide naturalen menpe dago, ekosistemetan zuzeneko inpaktua duen aldi berean, eta aldaketa klimatikoa ekarri du, eragin ekologiko, ekonomiko eta sozial negatiboa sortuz. Baliabide naturalak amaikorrek dira, horren adibide da petrolioaren hustuketak goia jo izana, garraioa, energia, abeltzaintza, industria, eraikuntza eta abar bezalako gizarte industrialetako sektore klabeek behar-beharrezkoa duten baliabidea, hain zuzen ere. Dimentsio askotako krisi baten aurrean aurkitzen gara, ekonomiari, jendarteari, zainketari eta ingurumenari modu interdependiente eta ekodependiente batean eragiten diona. Horregatik, krisi sistematikoari aurre egin nahi badiogu eta beroni irtenbide iraunkor bat bilatu, elkarren artean lotura duten krisien batuketari aurre egingo dioten soluzioak topatu behar ditugu.

Gizarte jasagarriak, justuak eta bidezkoak eraiki ahal izateko, errotik ezberdina izango den beste eredu baterako trantsizioa egin behar dugu, bizitzaren zainketa eta planetarena erdigunean jarriko dituen. Egun bizi dugun konplexutasunari erantzuteko kolektibo edo mugimendu sozial bakar bat ere ez dagoela ulertzen dugu, edo modu indibidualean aldaketa sozialak ekar litezakeena. Uste dugu sarean, talde lanaren, eta diskurtso, borroka eta mugimenduen artikulazioaren sorkuntzak, ezinbestekoak direla kolektiboki eraldaketa sozialerantz aurrera egiteko.

Horregatik, 2010ean, hainbat kolektibok¹, mugimendu sozialetatik, ONGD, sare edo sindikatuetatik, elkarlanean aritzeari ekin genion, eremu ezberdinetakoak bagara ere, komunean eredu sozial, politiko eta ekonomikoa aldatzeko helburua baitugu.

KOLEKTIBOKI BIDEA EGITEN HASI GARA

Cure sare lana bizitzaren eta planetaren zainketa erdigunean kokatzen duten antolakuntza sozialen eredu berriak eraikitzea proposatzen diguten pentsamendu korrante ezberdinetara hurbildu eta interkonektatuki ezagutzera eman nahian abiatu genuen, **Desazkundera eta Bizitze Onaren paradigmatik bezala adibidez, ikuspegi feminista batetik.**

Sare lan honen emaitza gisa, 2011an *I.Desazkundera eta Bizitze Onaren Topaketak: Alternatibak zirraborratuz* ospatu genuen. Lehen topaketetako antolakuntzatik argi izan genuen feminismoaren aldeko apustua, ereduaren edozein alternatibak sistemaren salaketa izan behar duela abiapuntu ulertuz, ez bakarrik kapitalista, baizik eta baita heteropatriarkala ere; proposamen feministek eredu alternatibo eta eraldatzaile bat eraikitzearen alde apustu egiten dugun mugimendu eta erakunde sozialen agendetako parte izan behar dute. Horregatik hainbat hizlari eta kolektibo feminista gonbidatu genituen, desazkundera bizi duten jendarteetako emakumeen papera zein izan beharko litzatekeenaren eta Desazkunderaren paradigmatari ikuspegi feminista txertatzearen inguruko eztabaidan aktiboki parte hartu zutenak.

Sare laneko lehendabiziko esperientzia honen ondotik, aipatutako pentsamenduen paradigmatara hurbilduta, hasitako lanari jarraikortasuna ematea erabaki genuen bigarren topaketa batzuk antolatuz.

Elkarren arteko antolakuntza prozesuan, dagoeneko martxan dauden **esperientzia eta alternatiba praktikak** erakusteko beharra identifikatu genuen denok batera, bizitza printzipioen erdigunean jartzeko eta antolakuntza kolektiboki egiteko kapitala desplazatzen dutenak. Teoriatik praktikarako jauzia errealitatea dela ikustarazi nahi genuen, eta asko direla existitzen diren alternatibak, herrigunetik, landa eremutik, kolektiboetatik eta norbanakotik praktika berriak sortzeko posibilitateak bezala. Hala, gure egiten genuen “*Pentsatu globalki, ekin lokalki*” lema eza-guna.

Lan honen emaitza izan zen *II.Desazkundera eta Bizitze Ona Topaketa: alternatibak partekatuz* ospatzea 2012an. Oraingoan, sistema kapitalistak gure bizitza, denbora eta ekintzak egokitzea nola behartzen gaituen aztertu ahal izan genuen, kapitalaren beharren arabera, eta prozesuari segida ematea erabaki genuen elkarrizketa lanaren kontzeptuan zentratuz, beronen ikuspegi kapitalista zalantzan jarriz.

Lanaren ikuspegi kapitalista hau gutxitu egiten da merkatutik pasatzen diren ordainduzko jarduera horietan, existitzen den lan bakarra enplegua denaren ideia indartuz. Sistema kapitalistak “Aberastasuna BPG da” esaten digu, merkatutik igarotzea behartzen gaitu eskubide ekonomiko eta sozialak lortu ahal izateko, ingurumen aldetik jasanezinenak diren jarduerak gehiago baloratzen jarraitzen du, eta ez du bakarrik zainketa lanak ikustaraztea ukatzen, baizik eta

¹ Ekologistak Martxan, Desazkundera, Mugarik Gabeko Ekonomilariak, Bizilur, Euskadiko ONGD Koordinakundera, ESK sindikatuak, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, REAS Euskadi eta Mugarik Gabe.

egungo egoera aprobetxatzen du gauzatzen duten pertsonen (nagusiki emakumeak) baldintzak are gehiago estutzeko.

Egoera honen aurrean, bizitzaren jasagarritasunaren alde apustu egingo duten jendarteak eraiki nahi ditugula jakinda, ezinbestekoa zen **lanaren ideia berkontzeptualizatzea**. Horretarako, antolakuntza laboralaren eskema tradizionaletik ateratzen ziren esperientziak ezagutzea garrantzitsua zela pentsatu genuen. Zentzu horretan, desazkunde tesiak sistema kapitalistari alternatiba ugari sortu dizkiote, behar eta problematika ezberdinei erantzuna ematea bilatzen dutenak (zainketa, energia, elikadura, ekonomia, eta abar), pertsonak erdigunean jartzen dituen antolakuntza laborala duten alternatibak. Esperientzia hauek balio politiko altua dute salaketarako elementu gisa eta orokortuak izan behar diren esperientzien laborategi sozial bezala.

Guzti horrekin 2013an *III. Desazkunde eta Bizitze Ona Topaketak: lana zalantzan jartzeko alternatibak* izeneko hirugarren jardunaldiak ospatu genituen, lanaren ideiarekin berkontzeptualizazio ikuspegi honetatik alternatiben eraikuntzarako garrantzitsuak direla ulertzen dugun hainbat gai lantzen dituzten esperientzia zehatz batzuk ezagutu genituelarik, ekonomiaren birkokatzea, eredu produktiboa, autogestioa eta zainketak, besteak beste.

Topaketa hauetan pertsona guztientzako beste eredu sozial, politiko eta ekonomiko batera heltzeko beharrezkoa den trantsizioaren inguruko hausnarketan aurrerapausoak eman ahal izan genituen, horretarako, aurrez aipatutako alternatiba zehatzen garapenarekin, paraleloki, alternatiba politikoak garatu behar dira, eskubideak sortzeko bidetik eta unibertsaltasunetik pertsona guztientzako benetako trantsizio baterako bidean jarriko gaituztenak.

Ildo horretatik, heldu behar diogun eta beharrezkoa den trantsizio ekologikoaren inguruan hitz egiteko orduan, aurkitzen dugun oztopo nagusietako bat enpleguaren mundua da. Nahiz eta gure lurraldea geroz eta kalitate okerragokoa eta urriagoa izan, gaur egun enpleguak oinarritzko beharrak asetzeko goreneko bidea izaten jarraitzen du, baita eskubide sozialak baliatzeak ere. Enplegua eskubide sozialetarako eta nahitaezko beharrak asetzeko sarbidea izatearekin hautsi nahi badugu, alternatiba baliagarri bat mahai gainean jartzeko gai izan behar gara. Alternatiba horrek enplegu eta lanaren arteko zuzentasun faltua haustetik pasa behar du, aurre egin behar diogun borroka kultural bat.

Bidezkoa, jasagarria eta zuzena den eredu sozial batean enpleguak existitzen jarraituko du, baina ezingo da plusbalioen sorkuntzari lotua egon, beharrak asebetetzeari baizik. Pertsona guztientzako zein behar asetu behar ditugun galdetu behar diogu elkarri, zein produkzio eredu berri garbik erantzun diezaiokeen behar horiei eta zein enplegu diren sozialki desiragarriak, zenbat eta nola banatzen den enplegua justizia sozialeko irizpideekin. **Bizitza erdigunean jarriko duen eredu sozial, jasagarri eta bidezko baterako trantsizioa**, sektore handiekin lotuta doa, lehenengo sektorearekin, industria sektorearekin eta zerbitzuekin. Sektore klabeetan enplegu desiragarri berriak sortu beharko dira bizitzaren jasagarritasunerako: zainketak, zerbitzu sozialak, hezkuntza, osasuna, nekazaritza ekologikoa, berriztagarriak, eraginkortasun energetikoa, garraio kolektiboa, birziklapena, eta abar bezala.

2014an *IV. Desazkunde eta Bizitze Ona Topaketa: eredu sozial, bidezko eta jasagarri baterako trantsizio* jardunaldietan, enpleguak eta ekologiak bat egiten dituzten proposamenak mahaigainean jarri nahi izan genituen, sindikalgintza eta ekologia bezalako gaiak landuz, gure inguruan enple-

gu berdearen aukerak, EH-an dagoeneko martxan dauden alternatiba kolektibo zehatzak, produkzio eredu jasangarriak, lan banaketa (ordainduzkoa eta ordaindu gabea), eta abar. Oraingoan eredu jasangarriago, justuago eta zuzenago baterako trantsizio kolektiboan estrategikotzat ditugun lau sektoreen eraldaketan zentratzea erabaki genuen: Eredu Energetikoa, Garraioa, Elikadura Sistema eta Zainketak.

NON GAUDE ORAIN

Hausnarketa prozesuan eta sare lanean jarraitzen dugu, sarea osatzen dugun kolektiboak Euskal Herrian garatzen ari garen lan eremuetan fokua jarriz, eta bestelako eredu posibleetara iristeko gure lana, diskurtsoa eta borroka komunean ipiniz, beharrezkoa den trantsizioan aurrera egiteko.

Helburu gisa jendarte artikulatu bat eraikitze proposamenen garapen eta ikusgarritasunean laguntzea ezarri zen, bere behar eta interesetatik abiatuta eta bizi estilo jasangarrietan oinarritua. Horretarako, kolektiboki *Oinarrizko Dokumentu* bat egiten hastea erabaki zen, maila politiko estrategikoko proposamenak izango zituen bere baitan, alternatiba indibidual eta kolektiboak, batera politikoki eragiteko eta alternatibak praktikan jartzeko erreminta gisa balioko zutenak. Desazkunde eta Bizitze Onaren Topaketetan landutako gaiei jarraiki, sarearen parte diren kolektiboen lan ardatzei erantzunez, *Oinarrizko Dokumentuak* izango zituen ildo estrategikoak aukeratu ziren, lau dira:

- Elikadura burujabetza
- Eredu energetikoa
- Ekonomiaren birkokapena
- Zainketak

Era berean, estrategikotzat jo zen Oinarrizko Dokumentuaren eraikuntza kolektiboan parte hartzea areagotzea aukeratutako ildo tematikoetako kolektibo aliatu eta erreferenteen bidez. Azkenean, 19 erakunde eta sare izan ziren (Euskal Herriko 17 eta Latinoamerikako 2) Oinarrizko Dokumentuaren eraikuntza kolektiboan inplikatu zirenak. **Argitalpen hau da sare lanean egindako prozesu horren emaitza.**

Parte hartu duten kolektiboak Bizilur, EHNE Bizkaia, Ekologistak Martxan, Goiener, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Emaús Fundazio Soziala, Setem Hego Haizea, Desazkundea (bereziki Desazkundea Feminismoak taldea), Etxeko Langileen Elkartea (ATH), ESK Sindikatua, Zadorra Fundazioa, Mugarik Gabeko Ekonomialariak, REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Euskadiko Sarea), Euskadiko ONGD Koordinatzailea, Saretuz (Kontsumo Arduratsu, Kontziente eta Eraldatzailearen Donostiako Sarea), Zentzuz Kontsumitu (Kontsumo Kontziente eta Arduratsuaren Gasteizko Sarea), Emakumeen Sektoreko Aliantza Politikoa (Guatemala), Xochilt Acatl-eko Emakumeen Zetroa (Nikaragua) eta Mugarik Gabe dira.

Metodologiari dagokionez, lehendabiziko fasean aukeratutako gaietan erreferenteak diren erakundeek lan taldeak osatu zituzten 4 ildoak zirriborratzeari ekiteko, bigarren fase batean beste kolektibo batzuek zeharkako ekarpenak egin zizkiotelarik ikuspegi ezberdinetatik (feminista, desazkundearena, ekologista, sindikala, kontsumo eraldatzailea, ekonomia soziala, Bizitze Ona, Hegoaldeko ikuspegia, eta abar). Guzti hori adostutako dokumentu kolektibo bat eraikitze,

maila indibidualean eta kolektiboan proposamenen artikulazioan eta ikusgarritasunean lagundu asmoz. Ildo tematiko bakoitzeko lengoaia ezberdina da, kolektibo ezberdinen eraikuntza islatzen baitu, eta aniztasun hori irudikatu nahi izan dugu.

Espero dugu argitalpen honek **Eragin Politiko Kolektiboaren Agenda** eraikitzen laguntzea maila politiko estrategikoan biltzen dituen puntu askotaren eskaera eta aldarrikapenatarako. Era berean, maila indibidualean zein kolektiboan lau ildo tematikoetarako bildutako **proposamenak eta alternatibak praktikan jartzea** sustatzen laguntzea nahiko genuke.

Eraikuntza prozesu kolektibo honek urte eta erdiko iraupena izan du, fase ezberdinetatik pasa delarik, buruhauste ugari eman dizkigu, baina irakaspen eta momentu on asko ere utzi dizkigu.

Hemendik, parte hartu duen pertsona eta kolektibo bakoitzari argitalpen hau posible egitearren eskerrak eman nahi dizkiogu, espero dugu etorkizunean ere haiekin lanean eta eraikitzen jarraitzea.

Eskerrik asko guztioi!!

Mugarik Gabe



SARRERA²

ETORKIZUNIK GABEKO KAPITALISMOAREN AURREAN EREDU BERRI BATEN ALDE APUSTU EGIN DEZAGUN

Kapitalismoak ez du etorkizunik

XIX. mendeko filosofoei esanarazten zieten antzinako ziurtasunetik oso urrun gaude, historiaren haustura erditzea zela zioten, eta zetorren berria beti halabeharrez antzinakoari “gailentzen” zitzaiola. Horrek esan nahi du, XXI. mende hasiera honetan, inork ezin duela jakin zein izango den hartuko den norabidea. Baina ziur egon gaitezkeen gauza bat gure aurrean konbultsioz betetako garai luze bat zabaltzen ari dela da, gatazkatsua eta astinaldiz betea. Mundu ekologikoago eta eskuzabalago bat lortzeko trantsizio suabe batekin amesten dutenak; neurri fiskal batzuekin, txanponekin eta zergekin bere funtzionamendua arrunta izatea posible dela sinisten dutenak; Keynes berri bat edo Roosevelt berri bat espero dutenak, errealismo faltagatik larriki okertuta daude. Ulertu gabe jarraitzen dute neoliberalismoak gure munduko legea aginpidezteko erabiltzen duen dinamika ankerra, ez dute ulertu nahi, bereziki, botere oligarkiko mundialaren izaera sistematikoa, gobernu finantzarioak egina; muzin egiten diote, ondorioz, neoliberalismoaren marko instituzionalak klase politikoari, jarrerei eta subjektibitateei ezartzen dizkien murrizketa gaindiezinak onartzeari, berauen gatibu izaten jarraitzen duten bitartean, bederen.

Alabaina, aurkitzen garen kale kantoia irtenbide gabekoa dela nabaria da. Nola ez ohartu egun apelatzen diren “erreformek” ez dutela zerikusirik atzoko gatazkek aldarrikatzen zuten “aurrerapenen” kausarekin? Nola ez ulertu “erreforma” kontzeptuak justizia sozialerako aurrerapau-soaren guztiz kontrakoa izaten bukatu duela? Hortik dator batzuetan kapitalismoak definitiboki irabazi gaituenaren sentsazioaren inbasioa, sistema politikoen erdigunean ezarri denarena, eta, herrietako bizimoduetan oso sakonki sustraituta “jendearen bihotza eta arima” aldatzea lortu duenarena, Margaret Thacherren desioak irauliz, neoliberalismoarengandik espero behar zena hori zela esaten zuenean.

Neoliberalismoa berariazko politikak praktikan jartzearen bitartez ezarri da bakarrik, pixkanaka marko instituzional bat eraiki dutelarik, zeinaren barruan gizakien eta herrien artean gupida

² Sarrera honen sorkuntzarako Yayo Herreroren “Vivir y trabajar en un mundo justo y sostenible” izenburudun kapitulu labur-tu dugu, “LA ECOLOGÍA DEL TRABAJO” liburu kolektiboan txertatua. Bizitza eusten duen lana. Gainera, Bormazo Editorialarekin Christian Laval eta Pierre Dardotek argitaratutako “COMUN” laneko paragrafo batzuetan inspiratu gara. XXI. mendeko iraultza-ren inguruko entsegu. Gedisa Editoriala.

gabeko borrokak bidea zabalik duen. Marko global honen zorroztasun irmoa da, aldi berean makro eta mikroekonomikoa, materiala eta ideala, politikoa eta soziala, kapitalismoaren hasieratik inoiz ez bezala akaso, jada inor atera ezin den sistemaren amesgaizto ikuspegia elikatzen duena.

Neoliberalismoarekin apurtzeak, ondorioz, existitzen den marko instituzionala deseraikitzea exijitzen du, beste baten truke aldatzeko. Benetako momentuan ordezkatu egiten dena deseraikitzen da soilik ongi. Orduan, iraultza egitea bezalako hitzak berreskuratzeari beldurra kendu beharko zaio, neoliberalismoak bere erara egiten jakin duen bezala. Bizitzek bizitzea merezi dutenaren exijentzia gizarteetako erdiguneetan azaleratzean datza. Mugimendu alternatiboek, erresistentzia esperientziek, matxinada demokratikoek, urteak daramatzate eredu alternatiboak abiatzeko pausoak ematen.

Jaso eta erreproduzitu dugun eredu sozio-ekonomikoa

Egun krisian dagoen eredu eta berriro zutik jartzen saiatzen ari dena gizakiaren bizitza eusten duten materialen oinarriei kontra eginez garatu da. Oinarri patriarkal, antropozentriko eta kapitalisten gainean eraikiz, gure gizarteetako egungo arkitekturak arriskuan jartzen du giza bizitza ahalbidetzen duen oreka ekologikoa (eta beste espezie batzuen), gizadi bezala eusten gaituen elkarren menpeko harremanak zailtzen ditu, eta benetako hondoratze antropologiko bat probokatzearekin mehatxatzen du.

Espezie bizidun garen heinean, bizirik egoteko beharrezkoa duguna naturatik hartzen dugu. Erradikalki ekodependienteak garen izakiak gara, eta ekonomia naturatik aldentzea ameskeria da. Ekonomia eta jendarte multzoa berrantolatzeak naturak nola funtzionatzen duen aintzat hartzea eskatzen du, zeintzuk diren bere dinamikak eta zeintzuk diren gaintitu ezin diren mugak, edo beste era batera esanda, gaintitu behar ezin zirenak. Hori egin ezik, krisi ekonomikoen irtenbide faltsuen akatsean erori gaitzke, ikuspuntu fisiko batetik bideragarriak ez direnak, eta, are gehiago, egoera larritu dezaketanak.

Ekodependienteak izateaz gain, gizaki bakoitzak beste gizaki batzuekiko dependentzia sakona du. Bigarren menpekotasun hau izaki immanenteak eta mugatuak garelako gertatzen da, gorputz zaugarrietan haragituta bizi garelako. Bizitza osoan zehar, baina batez ere bizitzako hainbat zikloetan (lehenengo haurtzaroan, zahartzaroan, gaixotasun momentuetan edo bizitza osoan zehar ezintasunen bat edo gaixotasun larriak dituzten pertsonen kasuan) pertsonok ezin genuke biziraun beste batzuek gure gorputzaren zainketari denbora eta energia eskainiko ez baliete.

Jendarte patriarkatuetan, nagusiki gorputz ahulen arreta lanaz eta zaintzaz okupatu diren horiek emakumeak izan dira, ez berez horretarako hobeto sortuak izan direlako, baizik eta lanen bereizketa sexualak rol hori ezarri izan dietelako. Eta zeregin hau etxeetako espazio pribatuetan eta ikusezinetan egiten dute, instituzio familiarraren logikak gidatuta. Ikusgarria den ekonomia-aren espazioan eguneroko erreprodukzio sozialerako beharrezkoak diren orduak ezkutatu eta gutxietsi egiten dira.

Produkzio hegemonikoaren nozioaren gainean, garrantzia kultural eta ekologiko izugarriko bira eman da. Gaur kapitala hazkunde ekonomikoaren motore dela defendatzen da, eta produkziozko beste bi faktore ordezkak ditzakeela aldarrikatu: lurra eta lana. Ondasun edo prozesu

baten balorea dirutan neurtzeko aginte-makilera mugatzen denena, merkatuan balorea sortzen duen dimentsio bakarria bere prezioa da.

Agortzeari eta naturaren birsorkuntza gaitasuna kaltetzeari entzun gor egitearen ondorioz, etxean eskulana “fabrikatu eta birsortzeko” lana ezkutatuz (produkzio kapitalistan berezko materia bat) ekonomia konbentzionalaren dogma ukiezin bat eraikitzea iritsi gara: edozein hazkunde ekonomiko defendatzen duena, jarduera eusten duen naturaz aparte, positiboa da berekiko, gizarte-ongizatea bermatzeko era bakarria izatera iritsiz.

Industriaren jaiotzarekin eta baserritarren desjabetze prozesuarekin langileria sortu zen, produktiorako bitartekorik gabeko pertsonen masa handi bat, bizirauteko produkzio medio horien jabeen haien lanerako indarra saltzera bere burua behartuta ikusi zutenak. Lana soldata baten truke merkatu esferan egiten zen zerbait izatera igaro zen, eta etxeko produkzio gunean egiten ziren funtzio guzti horiek, erreprodukzioa eta giza gorputzen zainketa bermatzen zutenak, izendatu gabek izatera pasa ziren, nahiz eta, normala den bezala, ezinbestekoak izaten jarraitu nola biziraupenerako hala “merkantzia berri” hori fabrikatzeko, esku lana zena.

Gizakien lana enplegura murriztu zen, eta gizakiaren potentzia gisa lanerako gaitasunera, pisua enplegura mugituz, aberastasunaren sortzailea lan egiten zuen pertsona ez zen eremura, enplegatzen zuena baizik.

Ekonomia berriak lana eta lurra merkantzetan eraldatu zuen, saltzeko ekoiztuak izango balira bezala tratatzeari ekinez. Baina ez lurra ez lana ez dira merkantziak, zeren, edo ez dira ekoiztuak izan (lurraren kasuan gertatzen den bezala) edo ez dira saltzeko sortuak izan (lanaren kasuan bezala).

Pertzepzio ekonomiko-sozial honek ez du soilik lortu balioaren esanahi soziala aldatzea preziora murriztuz eta birsortzeko produkzio organiko ziklikoaren dimentsioa ahaztuz; baizik eta merkatuaren eskubide sozialak lortzearen ideia kolektiboa urritu du gizartearen parte gisa. Hau da, ordainduko lan munduan parte hartzea eskubide sozial eta ekonomikoak eskuratzea baimentzen zuen ibiltzeko bidea izatera igaro zen. Pentsio bat kobratzeko aukera, bizitzeko bitartekoak ez daudenean babes publikoa, edo zerbitzu publikoetarako sarbidea ekonomiako merkatu esferan parte hartuz lortzen da, hots, ordainduko lana egiten.

Berrantolaketa sozialaren modu maltzur honek ordainduko lanik ez duten pertsona guzti horiek baztertzen ditu, bigarren plano batera zokoratuz eskubide sozial berdinak ez eskaintzearen. Pertsona hauetako gehienak ordainduko lanetan parte hartzen ez duten emakumeak dira, baina haien etxeetan lan egin dutenak, eta haien kasa herritarren eskubideak eta eskubide ekonomikoak ez dituztenak. Enplegua eskuratu duten gizarteak antolatzekeko paper determinatzaile honekin amaitzea, paradigma sozial gisa existentziaren eskubidea dagokion tokian jartzen denean soilik izango da posible, eta berau baldintzarik gabe eta beharrezko hornidura ekonomikoarekin bermatzen denean.

Imajinario sozialetan autonomia eta independentzia soldatapeko lan munduan aktiboki parte hartzearen bidez lortzen denaren ideia instalatzen da. Ekodependentzia eta elkarren arteko mendekotasunaren ikusezintasunak eredu ekonomiko patriarkal eta kapitalista honen bideragarritasun ezaren kontzientzia hartzea eragozten du, naturaren esplotaziorik barik eta emakumeen etxeetako lanik gabe bizirautea ezinezkoa izango lukeen eredu.

Eredu honen haustura

Produkzio-erreprodukzio dikotomia faltsuarekin haustean eta natura metabolismo ekonomikoaren barruan txertatzean, produkzio harremanak nabarmen anplifikatzen dira. Klaseen borroka definitzen duen kapitalaren eta soldatapeko lanaren tentsio klasikoa, kapitalaren eta lan guztien arteko kontraesanera hedatzen da. Prekarietatea, langabezia, pobrezia energetikoa, zabor-janariaren kontsumoa, kutsaduraren ondorioz sortutako gaixotasuna, gorputz propioarekiko askatasun falta edo indarkeria patriarkalak klaseen esperientziaren parte dira, eta produkzio, banaketa eta kontsumo eredu batetik eratorriak dira, pertsonen eta ekosistemen kontura hazi egiten dena.

Klase kontzientzia hau da subjektu sozial ugari elkarrizketan jarri dituen, produkzio eredu kapitalistari ikuspegi kritiko bat txertatzea lortu dutelarik, mugatua den planeta batean produkzio kapitalistaren hazkunde definitu gabearen bideragarritasun eza jakinaren gainean jarriz. Produkzio eredu honek kapitala eta bizitza oposizio esentzial batean aurrez aurre jartzen ditu.

Beste eredu baten alde apustu egin dezagun

Mugimendu handiak lortzeak subjektu sozial zabal eta anitz baten identitatea artikulatzea eskatzen du, jada ez dena, bakarrik, langile klase klasikoa. Erresistentziarako artikulazio soziala eta alternatiben sorkuntzak konplexutasunen itsaso horretan nabigatzea errekeritzen du, antolakuntza modu ezberdinekin ekonomiaren eta produkzio harremanen ikuspegi askoz sinplifikatua bat suposatuz.

Bizitzeko beste eredu batzuk eraikitzeko, bizitza duin baterako beharrak aseta izango dituguna, ondasunak eta zainketa lanak banatuz, zein baliabide dauden eskas kontziente izanez, eta berauen erabilera arduratsu bat eginez. Bizitza erdigunean jarriko duen eredu batera igarotzeko, ondorengo zutabeak hartu behar ditugu kontuan:

1. Zutabe hauetako lehenak ekonomiaren material esferaren desazkunde saihestezinarekin du zerikusia. Ez da konpartitu daitekeen edo ezin den printzipio bat; zehatzago esanda, kontra egitea zentzugabea eta arriskutsua den datu bat da. Planetako muga fisikoak horretara behartzen gaituzte.
2. Bigarrenak, elkarren arteko menpekotasunarekin zerikusia du. Elkarren arteko menpekotasuna onartzeak, gizadiaren existentziarako baldintza, gizarte ez patriarkaletan jendaratea ongizateaz eta erreprodukzio sozialaz arduratzea suposatzen du bere osotasunean.
3. Hirugarren nodo bat aberastasunaren banaketa da. Baliabide mugatundun planeta bat badugu, eta gainera partzialki degradatuak badaude eta urrituz badoaz, justiziarako aukera bakarra aberastasunaren banaketa da. Pobreziaren kontra borrokatzea aberastasuna metatzearen aurka borrokatzea da.
4. Laugarren elementua kezka gehiago sortzen duena da, eta urjentziarekin zerikusia duena. Egungo krisiaren dimentsioetako batzuk, bereziki ekologiarekin eta baliabideekin lotuta daudenak, berehalako interbentzioa eta transformazioa behar dute.

Logika honen baitako ekonomiaren birmoldaketak oinarrizko galderari erantzuna ematea suposatuko du: Zeintzuk dira pertsona guztiak asetu behar dituzten beharrak? Zeintzuk dira behar

rrezko produkzioak behar hauek asetu ahal izateko? Zeintzuk dira sozialki beharrezkoak diren lanak produkzio horiek eskuratzeko?

Derrigorrezkoa da imajinarioetan sormen ariketa bat egitea beste edozein momentu historikorekin konparaketarik egin gabe. Halabeharrezkoa da jendartearen erdigunean beste helburu batzuk berrasmatu eta kokatzea, onuren banaketa eta kontsumoa ordezkatzeko dutenak, eta ez du ematen botere politiko hegemonikoak egingo duenik.

Ildo honetan, hausnarketa prozesu kolektibo bat bultzatu dugu, argitalpen hau horren fruitu da, estrategikotzat jo ditugun 4 ardatzetan oinarritu gara: Eredu Energetikoa, Elikadura Burujabetza, Ekonomiaren Birkokapena eta Zainketak (Bizitzaren Jasangarritasun ikuspegitik). Espero dugu gure gogoeta eta proposamenek bestelako ereduak eraikitzen jarraitzeko balio izatea.



1

PERTSONEN ZAINKETA, BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN OINARRIETAKO BAT

AZTERKETA ETA PROPOSAMENAK³

³ Ardatz hau Feminismos Desazkundeak landua izan da, ESK Sindikatuaren eta Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen parte hartzearekin.

ATARIKOA

Bizitzaren jasangarritasuna honela definitzen dugu: bizitza bizigarri unibertsalizagarriak posible egiten dituzten jarduera eta prozesu guztiak, oraingo zein etorkizuneko ekosistemekiko orekan (izaki bizidunak eta ingurumena). Ikuspegi horrekin, sistema –planeta bere beharriaz– osorik ikus dezakegu, azpisistema sozial eta ekonomikoa, besteak beste, barne hartzen dituen sistema, hain zuzen. Bizitzaren jasangarritasunari buruzko ideia hori gizartearen, oro har, arduratzat jotzen dugu, eta bizitza sistema ekonomiko eta sozialaren erdigunean jartzeko borrokaekin loturik dago, erdigune horretatik kapitala metatzeko prozesuak urrunarazita. Bi prozesuen artean logika bateraezin bat dago: Amaia Pérez Orozcok dioenez, “edo kapitala edo bizitza”.

Bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegia holistikoa da, eta nagusiki arreta jarriko dugun ardatz honen edukia gainditzen du; hain zuzen ere, ardatz hori bizitza mantentzeko oinarrietako bat da, hots, pertsonen zainketa. Gai horri, bai zainketak hartzen dituen pertsonaren ikuspuntutik, bai zainketak ematen dituenaren ikuspuntutik helduko diogu; izan ere, funtsezkoa deritzogu, batetik, gizarteak bere kide guztien zainketa-beharrizanak bete ditzan bermatzeari, zainketa horren ardura halabeharrez familia-nukleoaren gain utzi gabe, eta, bestetik, hori justiziaz egiteari, generoaren, klasearen, Iparralde-Hegoalde harremanen, eta etniaren aldetik⁴. Gure aburuz, era kolektiboan antolatu behar dugu, koarduran oinarrituz eta tartean diren alde guztiei ahalik eta baldintzarik onenak bermatuz, eta, horretarako, lana berregituratu egin behar da, lan ordainduan ematen den denbora nabarmen murriztuta; horrela, pertsonak –praktikan, emakumeek batik bat– ez dute aukeratu beharko enpleguaren eta zainketaren artean. Horrez gain, beharrezkoa da politika publikoek bizitzaren zainketa beren jardunaren erdigunean jar dezaten, eta enpresak ere bultza ditzaten arlo horretan duten ardura hartzera⁵.

Egungo egoeran, zainketa asko era merkantilizatuan ematen dira merkatu kapitalistan, esplotazioa eta/ edo irabazi-asmoa tartean dituen prozesu batean; egoera horren aurrean, guk zainketak kapital-metaketan laguntzen duten prozesuetatik ateratzea aldeztu dugu. Gainera, zainketa-lan profesionalizatuak baldintza duinetan egin behar dira, eta nekez lor daiteke hori estaldura unibertsala bermatzen ez duen merkatu kapitalista batean. Gure apustua da zainke-

4 Etnia zein arraza terminoak problematizaturik daude gure ustez. Pertsonak azalaren koloreagatik ez baztertzeko beharraz ari gara.

5 Adibidez, kontratazio publikoan edo diru-laguntzetan baldintzak ezarriz.

tak merkatu sozialeko⁶ zerbitzu publiko unibertsal batzuen bidez kudeatzea, bai eta gizartearen autokudeaketa ekitatiboaren bidez, eta hori erakundeek egin behar dute posible.

Agiri honetan, gure asmoa da ikustaraztea zein tokitatik eta zer pertsonak mantentzen duten bizitza, botere publikoek eta sistema kapitalistak nola jokutzen duten, ea haien jokabideek bizitza mantentzearen pribatizazioa⁷ eta feminizazioa areagotzen dituzten eta jartzen diren baliabideak aski eta unibertsalak diren zehazte aldera.

1. TESTUINGURU GLOBALA

Hegoaldetik egindako begirada batek lagun dezake batetik enplegua (ofizialki aberastasuntzat kontabilizatzen diren eta eskubideak sortzen dituzten jarduerak) eta bestetik lana (bizitza mantentzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak) bereizten dituen marra lausotzen. Egurra edo ura biltzeko, baratzea lantzeko edo etxe-abereak hazteko lanak eta kideko beste batzuk bizirauteko oinarria dira Hegoaldeko herrialde asko eta askotan. Halako lanak, pertsonen zainketa eta etxeko gainerako lanak bezala, emakumeek egin ohi dituzte; izan ere, bizitza mantentzea emakumeen bizkar botatzen da, gizarte mailan nahiz familia mailan. Gure ustea izan litekeenaren aurka, soldatako lana gutxiengoa da Hegoaldeko herrialde gehienetan, eta gutxitzen ari da; ordaindu gabeko lanaren guztizko bolumena, bestalde, maila globalean eta lan egindako orduetan neurtuta, lan ordainduarena baino handiagoa da⁸. Kontuan hartuz ordaindu gabeko jarduerak, funtsean, autokontsumorako ekoizpena eta etxeko eta zainketako lana direla, lehen argazki honek bide ematen digu ikusteko **bizitza neurri handiagoan merkatutik kanpo mantentzen dela**, merkatuaren barruan baino.

Nahiz eta estatistika tradizionalak ordaindu gabeko lana kontabilizatzen ez duten, egin diren ikerlanen arabera, esan daiteke, jarduera merkantilizatuak eta ez-merkantilizatuak batuz gero, emakumeek guztira egiten duten lan-bolumena gizonen batez bestekoa gainditzen duela⁹, landa-eremuetan bereziki; eta horrek eragina du eskolatzeko eta aisialdirako aukera gutxiago izan dezaten. Laburbilduz, **familiatan egiten den ordaindu gabeko lanak, gizonetikiko desparekotasunez gehienbat emakumeek egiten duten lan horrek**, politika publikoen edozein programak baino neurri handiagoan **laguntzen dute ongizatea sortzen**, bai eta kohesio soziala atxikitzen ere¹⁰. Hala ere, ekarpen garrantzitsu hori ozta-ozta aintzat hartzen da emakumeak –gainerako gizarte-egiturak aldatu gabe– lan-merkatuan txertatzeko asmoa duten programetan.

Bestalde, kohesio sozial horri larriki erasan dio Iparraldeko herrialdeetako *zainketen krisia* deritzonak; izan ere, krisi hori migrazio-mugimendu masiboak sortzen ari da Hegoaldeko emakumeen artean, bai Iparralderantz, bai Hegoaldeko beste leku batzuetarantz. Mugimendu horiek

6 Curre ikuspegitik, merkatu soziala hau da: ekonomia sozial eta solidarioko ekimenak, irabazi-asmorik gabekoak, gizarte- eta ingurumen-justiziako irizpideak dituztenak.

7 Pribatizazioa aipatzean, publikoa/pribatua dikotomiaz ari gara, teoria feministak kontzeptualizatzen duen eran.

8 Nazio Batuen arabera, 1991tik 2009ra bitartean, munduko biztanleria enplegatua % 62,2tik % 60,4ra jaitsi zen. 2009. urtean, emakumeen % 48k baino ez zuen enplegu bat munduan. Durán Heras, María Ángeles (2012).

9 Institute of Political Studies of Paris (UNDP, 2005) delakoak eginiko txosten baten arabera (Garapenerako Nazio Batuen Programak sustatua). Hemen aipatua: Durán Heras, María Ángeles (2012).

10 Fiiapp (2010). Iniciativas para la cohesión social en América Latina. Madrid: Fundación Internacional y para Iberoamérica de Políticas Públicas.

badute lotura, era berean, jatorriko herrialdeetako *berrekoizpen sozialaren krisia* delakoarekin; hain zuzen, krisi horren funtsa hau da: “biztanleria-sektore handiak sistematikoki baztertzea beren berrekoizpen-beharrizanak –biologikoak zein sozialak– betetzeko ezinbestekoak diren baliabideak erabiltzeko aukeratik”¹¹. Horrek desparekotasun handiak dakartza, pertsonen berrekoizpen sozialerako gizarte-babeseke mekanismoak erabiltzeko garaian.

Prozesu horiek bizitza mantentzearen aurkako zuzeneko erasoak dira, *zainketa-kate globalak* deritzenen jatorriko lekuetan. Nahiz eta azken hamarkadetan ekoizpenaren deslokalizazioaz asko hitz egin den (fenomeno horrek, hain zuzen, berebiziko esplotazio-baldintzak sortu ditu Hegoalde globaleko herrialde askotako langileen artean), askoz gutxiago hartu da kontuan, feministak ez diren esparruetan, Iparraldeko zainketen krisiari petatxua jarri nahian ere mundializazioa jotzen ari dela. Hor, *alderantzizko deslokalizazio* moduko bat gertatu da, zainketa-lanaren deslokalizazioa ezinezkoa denez, Hegoalde globaleko herrialdeetako emakumeak berak ari baitira aldatzen munduko beste toki batzuetara. Nabarmendu behar da emakume horiek lan-mota horietara bultzatuta gertatzen direla, haien nahiak eta prestakuntza gorabehera.

Zainketa-kate globalen fenomenoan, periferiako herrialdeetako emakumeak era masiboan hasten dira soldatiko zainketa-lanetan, eta, horrenbestez, beren familiak utzi behar izaten dituzte atzean enpleguaren truke; aldi berean, beste emakume batzuek migrazio-proiektuak eramaten dituzte aurrera, Hegoalde globaleko herrialdeen barruan, nor arduratu gabe geratu diren zainketak beren kontu hartzeko¹², haiek, halaber, emakume-sareez baliatzen direlarik beren familiez arduratzeko (Pérez Orozco, Amaia; 2007). Nahiz eta mugimendu sozial askok –haien artean, desazkunde-mugimendua nabarmenduta– **ekonomia berriz tokiko egiteko beharra** asko azpimarratu duten, Hegoaldean lan-esplotazioa desagerraraztearren eta krisi sistemikoko irtenbide bat aurkitzearren, ez da enfasi berarekin azpimarratu **etxeko eta zainketako lana berriz tokiko egiteko beharra**. Proposamen horrek esan nahi du, labur-zurrean, gizarte bakoitzak bizitza mantentzeko antolatuta behar duela, bizitza erdigunean jarrita, sistemaren berregituratze orokor baten barruan. Eta dena delako gizarteak hori –berriz diogu– justiziaz egin behar du, generoaren, klasearen, jatorriaren, etniaren, adinaren zein Iparralde-Hegoalde harremanen aldetik, esplotazio oro ezabaturik. Horrez ez du esan nahi, inola ere, mugak itxi behar direnik; aitzitik, pertsonen joan-etorri askearen alde gaude erabat (eta ez salgaien eta kapitalarenaren alde). Esan nahi duena da, Amaia Pérez Orozcok grafikoki dioenez, zeinek bere kaka garbi dezala.

Esan dezakegu, beraz, Iparralde globaleko zainketen krisiak Hegoaldeari eragin diola eta, ondorioz, egoera dramatikoak sortu dituela migratzen ez duten eta besteen zainketen mende dauden pertsona askorentzat, horretarako zerbitzu publikorik ez dagoelako; arazo larri hori, gainera, finantza-krisiak larriagotu zuen. Horrez gain, migrazio-prozesu horiek berebiziko baldintza gogor eta bidegabeetan gertatzen dira, atzerritarrei buruzko legeak direla-medio, lege horiek eskulan merkea eta eskubiderik gabekoa sor dadin sustatzen baitute.

Bestalde finantza-krisia aitzakiatzat erabili izan da zerbitzu publikoak drastikoki murrizteko, halako zerbitzuak zeudenean; hori, egiazki, Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Nagusiaren ondorioa da. Akordio hori 1995ean sartu zen indarrean, eta munduko biztanleen % 97ri eragiten die. Merkatuek bizitzaren jasangarritasunari eginiko aurrez aurreko erasoak da akordioa,

11 Quiroga, Natalia (2009), 77–89.

12 Aurrerago ikusiko dugunez, EAEko zainketa-enpleguen % 34 emakume migratzaileek betetzen dituzte; horren arabera, beraz, gainerako % 66ak bertako pertsonen eginen dituzte, haien artean gehienak emakumeak direla.

pertsonen bizitzaren sektore guztiak –hala nola ura, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza edo osasuna– mundu-merkataritzaren barruan sar daitezzen ezartzen duelako. Mundu guztia badago prozesu horren barruan murgildurik dagoeneko, eta, noski, ordaindu gabeko lanaren bolumena izugarri handitzea eragiten ari da –etxeetan nagusiki egiten den lan bat, hain zuzen–, munduko biztanle gehienek ezin baitituzte zerbitzu horiek ordaindu. Gainera, gero eta handiagoa da hori sakontzeko arriskua, ALCA, TISA edo TTIP akordioen bidez, besteak beste. Azken hitzarmen horren harira, negoziazio ilunetan dabilta AEB eta EB gaur egun, lan- eta gizarte-eskubideak, ingurumen-arauak eta zerbitzu publikoak kenduko dituen esparru berri bat lortzeko helburuz.

Laburbilduz, azterketa honen bidez ikus dezakegu nola kudeatzen duen kapitalismo heteropatriarkalak esplotazio *generizatu* gisa pertsonen interdependentziaren errealitate saihetsezina, eta horrek ezinezko bihurtzen du bizitzea merezi duten bizitzak unibertsalizatzea sistemaren barruan; ikus dezakegu, halaber, nola uzten duten gero eta gehiago bertan behera estatuek, kapitalaren interesekin aliaturik, bizitza mantentzeko duten ardura; eta azkenik, azterketak agerian uzten du pertsonen –gehienetan, emakumeen– lanaren esparru eskergak ikusezin bihurtzeko eta haietaz jabetzeko prozesuak, bizitza mantentzeko ez ezik, ekoizpen kapitalistarako ere ezinbestekoak diren esparru batzuk. Horregatik guztiagatik, proposamen politiko feministek TTIP hitzarmenari ezetza ematea planteatzen dute, bizitza erdigunean, hura zaintzeko, ez jar-tzeagatik.

2. EUROPAKO ETA TOKIKO TESTUINGURUA

Berdintasunaren irudipenak liluratutako gizarte batean bizi gara, non emakumeen eta gizonen artean (teorian) dagoen berdintasun juridikoa berdintasun errealarekin nahasten den. Horregatik, beharrezkoa da ikusgai bihurtzea batzuek eta besteek hartzen dituzten rola, parekotasunik gabekoak eta hierarkian ezarritakoak diren genero-mandatu batzuen ondoriozkoak; hain zuzen ere, emakumeen identitatea *besterezentzat izate* gisa eraikitzen dute, eta gizonena, aldiz, merkatuaren bidezko buruaskitasunaren helburu kapitalista faltsuan oinarritzen da. Hurrengo orrialdeetan, emakumeek eta gizonek bizitza mantentzeko azken batean zer ekarpen egiten duten aztertuko dugu, zer rol jokatzen duten zerbitzu publikoek eta merkatuek, eta nola eragiten duten jokabide horiek pertsonen bizitza oso-beteak, autonomoak eta indarkeriarik gabekoak eraikitzeko dauzkaten aukeretan. Gainera, ikusaraziko dugu nola nahi duen gure gizarteak ustel gainean itxi zainketen krisia, *deslokalizazio* moduko batez baliatuz.

2.1. Nondik mantentzen da bizitza?

Kapitalismoa etengabe hazkundera sortzean datza, eta hura herrialdeen Barne Produktu Gordinaren bidez (BPG) neurtzen da; indize horrek, hain zuzen, merkatuaren barruan ekoizten dena baino ez du aberastasuntzat kontabilizatzen. Hala, bada, egungo sistema sozioekonomikoak merkantilizaturik ez dagoen oro gutxietsi eta ikusezin bihurtzen du, jardun hori guztia ezinbestekoa bada ere sistemak funtzionatzen jarrai dezan. María Ángeles Durán ekonomialariak 2009an kalkulatu zuen, Iparraldeko herrialdeetako finantza-krisia lehertu eta gutxira, lanaldi osoko zenbat enplegu sortu beharko lirartekeen, estatu mailan, etxeetan egiten den etxeko eta zainketako lan guztia merkantilizatuko balitz, eta kalkulu horrek erakusten du **beharrizan gehienak merkatutik kanpo betetzen direla**. Egin zuen zenbatespenaren arabera, ekonomia ofizialean 18 milioi eta erdi enplegu zeuden une hartan, etxeko lanak 26 milioi eragingo lituz-

ke; horrek agerian uzten du, beraz, jarduera horiek bizitzarako zer-nolako garrantzia duten eta BPGaren barruan zer-nolako pisua izango lituzketen, kontuan hartuz gero¹³.

Gaur egungo pentsio-sistemarekin, biztanleriaren zahartzea arazo gisa agertzen da, kotizazioetatik datozen sarreraren eta gastuen arteko desoreka gorantz doa-eta. Egiatzko arazoa da, ordea, nagusitutako ikuskera zitala onartzea, sistemarentzat lan-merkatuan txertaturiko pertsonak bakarrik baliodunak diren ideia, alegia. Ikuspegi horrek ez du aintzat hartzen adineko pertsonen bizitza mantentzeko egiten duten ekarpen handia, ez eta gizakien artean nahiz adin batetik bestera dagoen dibertsitate funtzionala ere. Guk uste dugu, batetik, Estatuak pentsioak ordaintzeko baliabideak sor ditzakeela zuzeneko zergen bidez, ondarearen zein kapitalaren errenten gaineko presio fiskala handituz, eta zerga-ihesaren zein zerga-saihestearen aurka irmo borrokatuz. Horrekin batera, gure aburuz, ardua hori ez da erakundeen esku bakar-bakarrik utzi behar; aitzitik, gizarte gisa, antolatzeke beste eredu batzuk bilatu behar ditugu, pertsonen beharriak haien bizi-ziklo osoan zehar betetzeko modukoak.

2.2. Etxeetako zainketa-lana kontraziklikoa da: handitu egiten da krisiarekin

Aurreko krisietan gertatu den bezala, etxeen barruan egiten den lana da (gehienbat emakumeek egina) zerbitzu publikoak deuseztatzearen ondorio suntsigarriak edo familia askoren dirubaliabideen murrizketa gogorra minimizatzen ari dena. Hain zuzen ere, lan ez-merkantilizatuak kontraziklikoak dira, hots, **hezkuntzan, osasunetan, gizarte-zerbitzuetan edo kideko sektoreetan murrizketak egiten direnean, zerbitzuen kalitatea eskasteaz gain, lanordu-kopuru handia eramaten da etxeetara emakumeentzat**. Gainera, langabezia gehitzearekin, etxeko eta zainketako lana areagotu egiten da, norbaitek hartu behar baitu bere gain halabeharrez¹⁴, merkatuan bete ezin daitezkeen beharriak merkatutik kanpo betetzen direlako. Hau da, lan ordainduak galtzen diren neurrian, ordaindu gabeko lanorduak gehitu egiten dira. Horrenbestez, etxeak dira sistemari eusten dion doikuntza-aldagaia, eta, ondorioz, egungo krisi sistemikoak eragina izan du lehendik bazegoen zainketen krisia larriagotzen eta kronifikatzen.

Gure gizartean, etxeetako zainketaren alternatiba bakarra, funtsean, zerbitzu publikoak dira, gero eta pribatizatuagoak eta murriztuagoak, edo zerbitzu pribatuak; aitzitik, alternatiba kolektibo eta solidarioen falta nabarmena dago (laguntza-sareak kasu). Hortaz, gaur egun **bizitzaren jasangarritasuna etxeetatik kanpo unibertsaltasunez kudeatzeko dagoen bide bakarra zerbitzu publikoak** direnez, aztertuko dugu zerbitzu horiek zer ekarpen egiten duten eta haien jokatibideak nola eragiten duen emakumeen eta gizonen bizitzetan.

Lehenik eta behin, **zerbitzu publikoek 3 urtetik beherako zainketan betetzen duten rola** aztertuko dugu, etengabeko arreta behar duen populazioa izaki. Batez beste, Europar Batasunean, 10 haurtxotik hiru baino ez dira zaintzen zainketa-zerbitzu profesionalizatuetan (A grafikoa, eranskinean); alabaina, zerbitzu horietako asko ez dira publikoak, eta are gutxiago doakoak. Arlo horretan berebiziko aldeak daude Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen artean, zeinetan zerbitzu-urritasunari garestitasuna gehitzen zaion. Hain zuzen ere, baliteke eskaintzaren urritasun hori (arloan publikoaren aldetik, bereziki) eta haurtzaindegi-zerbitzuen prezio handiak arra-


13 Adierazle hori gizartearen ongizatearen neurritzat erabiltzeari uztea aldeztu dugu.

14 Briaies, Álvaro (2013).

zoiak izatea 2010. urtean, INEren arabera¹⁵, esaterako, milioi erdi pertsonak, haietatik gehienak emakumeak zirela, soldatako lanari uzteko edo beren lanaldia laburtzeko, ondorengoak zaintzeko asmoz¹⁶ (ikus aurrerago, lanaldi-laburtzei eta lan-utzialdiei buruzko datuak).

Egoera horrek zuzeneko eragina du haurrak zaintzeko zama beren gain hartzen dutenen lan-aukeretan, eta zama hori emakumeei egozten jarraitzen da; hain zuzen, haiexek jotzen dute gehienetan **bateragarritasun-neurrietara**: INEren arabera (2010)¹⁷, estatu mailan, zortzi urtetik beherako ume bat gutxienez zuten pertsonen artean, % 13k laburtu zuten lanaldia eta, haietatik, % 85,1 emakumeak ziren. Gainera, enplegua zati batean edo erabat uzterakoan, gehien-gehienetan emakumeak dira oraindik erabaki hori hartzen dutenak. Hala, lanaldi osoko lan-utzialdia hartu zutenen % 92,8 emakumeak izan ziren, eta, orobat, lan-utzialdi luzeagoak eskatu zituzten. Eta enplegua uztea erabaki zutenen artean, 10etik 9 emakumeak izan ziren.

1. grafikoa: EAEko biztanleria landuna, bateragarritasun-neurrien arabera (%)



Iturria: Emakunde. 2011ko zifrak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren datuetan oinarriturik.

1. grafikoa azaltzen denez, baita EAEn ere larriagotzen dira genero-arrakala horiek, non gizonak lan-utzialdi bat hartzen dutenen % 5 baino ez diren eta ozta-ozta lanaldi-laburtzeen % 7 eskatzen duten. Politika publikoak ez dira laguntzen ari gizonak koardura har dezaten bizitzaren zainketan; aitzitik, familia, lana, bizitza pertsonala eta soziala bateragarri egiteko ardura emakumeek izan dezaten finkatzen dute¹⁸. Hala, aitatasun-baimena besterenezina lau asteraino luzatzea, 2009rako aurreikusita, ordutik atzeratzen dabilta, urtez urte, kostuaren aitzakiarekin. Koardurarako pauso handia eragingo lukeen neurri horren kostua, alabaina, 200 milioi euro inguru litzateke. Gogoan izan dezagun, esaterako, Bankiaren erreskatea bakarrik Estatuaren diru-kutxei 23.000 milioi baino gehiago kostatu zitzaizela; horrek argi uzten du, utzi ere, non dauden gure sistemaren lehentasunak.

Bestalde, badira genero-arrakala handiak **mendetasuna duten pertsonen zainketan** ere, gehienbat emakumeek beren gain hartzen duten lan bat, lan-merkatuarekin duten harremana gorabehera (B grafikoa, eranskinean). Horrez gain, Mendetasun Legearen –hau da, Mendeta-

¹⁵ http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t22/e308/meto_05/modulo/2010/&file=pcaxis

¹⁶ Umeak zaintzeko, lanaldi partzialan lan egitea edo lan egiteari uztea erabaki zuten 10 pertsonatik seik zainketa-zerbitzuak "oso garestiak" zirelako hartu zuten erabaki hori. Mendekotasuna zuten pertsonak zaintzeari zegokionez, % 43,7k oso handiak iritzi zieten zerbitzu horien prezioei. <http://www.ine.es/prensa/np663.pdf>

¹⁷ <http://www.ine.es/prensa/np663.pdf>

¹⁸ Gure ikuspegitik, hertsiki ezinezkoa da merkatu-esparrua eta bizitzaren gainerako esparruak bateragarri egitea, logika bate-raezinak dituztelako: kapital-metaketa bizitzaren jasagarritasunarekin gaizki uztartzen den helburu bat da.

sun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legearen— ondoriozko prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua jaitsi egin da 2014. urteaz geroztik, eta murrizketa hori gehitzen zaio familiako zaintzaileek (haietatik % 92 emakumeak dira) jasotzen dituzten prestazioei jada eginkoari; azken horiei, gainera, Gizarte Segurantzarako kotizazioa kendu zieten 2012an, Mendetasun Legea geldiarazi eta murriztu ondoren.

Finantza-krisa aitzakiatzat erabili da, orobat, **bitzta mantentzeko ardua soziala beste arlo batzuetan murrizteko**. Esaterako, eskola-jantokien prezioa nabarmen igotzen ari da edo, beste alde batetik, gaixoentzako zerbitzu publikoetan ere murrizketak egiten ari dira, egunean 20 ordutik gorako zainketak behar dituzten pertsonen % 55 inguruk zainketa horiek etxean jasotzeraino, beste herrialde batzuetan, hala nola Danimarkan edo Suitzan, ehuneko hori % 15 inguru denean.

Laburbilduz, aurreko datuek eta azterketak agerian uzten dute **gure gizartean bitzta mantentzea arlo pribatuan dagoela, hau da, familien esku**. Puntu honetan, nabarmendu behar dugu familietan hierarkia- eta botere-harreman asko daudela, eta hori guztiak emakumeek eginko zainketa-lanaren esplotazioan hartzen duela oinarri, aztertu dugunez¹⁹. Gai horretan sakontzen jarraituko dugu, gure gizarteetan egiten den denbora-erabilera aztertuz.

2.3. Nola erabiltzen dute denbora gizonak eta emakumeak?


Ordaindu gabeko lanaren parekotasunik gabeko banaketa ikusgai bihurtzerakoan, denboraren erabilerari buruzko inkestak dira tresna argigarrienetakoak, agerian uzten baitute zer jarduera behar diren bitzta mantentzeko, eta jarduerok zeinek egiten dituzten. Iparraldeko herrialdeetan halako tresnak orokortu izana borroka feminista luze baten emaitza da. Hain zuzen, borroka horren une gorenetakoa bat izan zen Nazio Batuen Emakumei buruzko I. Konferentzia 1975ean (Mexiko Hiria), konferentzia horretan, Estatu-talde handi batek, Vatikanoa buru, aurrez aurre egin baitzion kontra tresna horri.

Denbora-erabilerari buruzko inkestek agerian uzten dute emakumeek zailtasun handiagoak izaten dituztela lan ordainduan, ordaindu gabeko lanaren pisu nagusia hartzen dutelako beren gain familiaren testuinguruan, hau da, haurrak edo helduak zaintzea eta etxeko lanak egitea. Europar Batasunak 2013. urtean, 2010eko datuekin, argitaratutako txosten baten arabera (C grafikoa, eranskinean), emakumeek astean 26 ordu ematen dituzte ordaindu gabeko lanean, gizonen artean horretan erabiltzen dituzten 9 orduen aldean. Emakumeen eta gizonen arteko arrakala txikitu dela atzeman da 2005etik 2010era bitartean, emakumeek horretan emandako orduak gutxitzearen ondorioz batik bat; izan ere, gizonak ordaindu gabeko lanetan emandako denbora astean ordu erdi gehiago baino ez zen gehitu. Gainera, emakumeek eta gizonak etxeko eta zainketako lanean erabiltzen dituzten lanen arteko aldeak badu eragina diru-baliabideak sortzeko garaian. Soldatan oinarrituz egituraturiko gizarte batzuetan, baliabiderik ez edukitzeak bitzta autonomoak eta indarkeriarik gabekoak izatea galarazten die emakume askori²⁰.

19 Desazkundea kolektiboko feminismoen taldea (2013).

20 Hegoalde globaleko herrialdeetako jatorriko kulturetan soldata hain erroturik ez badago ere eta pertsonak beharizanak merkatutik kanpo betetzeko trebetasun handiagoak badauzkate ere, soldataren mendekotasuna gorantz doa, Iparraldeko globalekoak bezain gizarte kontsumistak eraikitzen ari diren neurrian.

2. grafikoa: Etxeko lanetan erabilitako denbora, lan-merkatuarekiko harremanaren arabera, 2013




Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta, 2013.

2. grafikoa datu deigarriak ematen dizkigu, hala nola lan merkatuan dauden emakumeek gizon langabe edo erretirodunek baino lan handiagoa egiten dutela etxeetan. Hala, **emakumeek, lan-merkatuarekin duten harremana edozein izanik ere, beti ematen dute denbora gehiago etxeko lanetan, gizonek baino**. Datuok argi erakusten dute zer pisu duten oraindik genero-rolak emakumeen eta gizonen jardueretan. Europa mailan ere, emakumeek denbora gehiago erabiltzen dute lanean, gizonek baino, biztanleria oro har zein landunak kontuan hartuta, eta horrek ezin hobeki ikustarazten du emakumeek lanaldi bikoitza izaten dutela eta **emakumeak lan-merkatuan sartzeak ez duela funtsezko eran eragiten gizonek ordaindu gabeko lanean koardura har dezaten**.

Gure errealitate hurbilenean ere, EAEn egin zen denbora-aurrekontuaren azken inkestak (3. grafikoa) agerian uzten du emakumeek, asteen, gizonek baino ia 14 ordu gehiagoz lan egiten dutela; desberdintasun horren azalpena izan daiteke gaur egun batzuek eta besteek lan-merkatuan ematen dituzten denboren arteko aldea oso txikia izatea –egunean 4 minutu eskas–, baina, hala ere, emakumeek gizonek halako bi denbora erabiltzea ia etxeko eta pertsonen zainketako lanetan (D grafikoa, eranskinean).

3. grafikoa: EAEko biztanleriaren eguneroko denbora-erabilera (2013)



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta, 2013.

2.4. Emakumeen parte-hartzea handitu egin da lan-merkatuan, baina, zer lan-mota lortzen dituzte?

Azken hamarkadetan—eta sexuaren araberako lan-banaketa ezartzeko gizonetzkoen klasearteko ituna alde bakarrez haustearen ondorioz—, emakumeak pixkanaka sartu dira lan-merkatuan, ikusi dugunez, eta, aldi berean, gizonen jarduera-tasa apur bat jaitsi da; hala, genero-arrakala erdia baino gehiago txikitu da azken 25 urtean. Azken hamarkadan, generoen arteko aldea 8 puntu laburtu da EAEn, eta gaur egun 11 puntu pasatxokoa da (E grafikoa, eranskinean).

Bereziki interesgarria da ikustea, emakumeek etxeetan egiten duten lana gorantz badoa ere, parte-hartzea 6 ehuneko-puntu baino gehiago handitu dutela lan-merkatuan, finantza-krisia lehertu zenez geroztik. Paradoxa horrek erakusten du gizarte-mandatuz emakumei *dagokiela* etxeko ongizatearen azken ardura: beste diru-baliabiderik ezean, emakumeak *moldatzen* dira eguneroko beharrezko erantzuteko. Egungo egoera “txatal-ekonomia” deritzona sortzen ari da: etxeetako kideek eskuragarri dituzten baliabide guztiak jartzen dituzte ororekin banatzeko (denbora, lehen erosten ziren gauza batzuk doan eginez; dirua, finantza-fluxu alternatiboak eta informalak sortuz; espazioa, etxea partekatuz; informazioa; etab.), emantzipatutako gazteak (eta ez hain gazteak) familia tradizionalera itzulita, edo familia zabala sendotuta. Txatal-ekonomia hori oso adierazgarria da; hain zuzen ere, errealitate ekonomikoa interdependentziako errealitate bat da. Kontua da interdependentzia horretaz arduratzen den sarea oraindik ere familia-eredu tradizionalei loturik dagoela²¹ eta halako eruedetan emakumeek egiten dituztela zainketako lan gehienak.

Hala ere, emakumezko biztanleria aktiboaren gehikuntza hori toki askotan gertatu da haien langabezia-tasa handitzearen trukean, batez ere Hegoaldeko Europako herrialdeetan. Hala, estatuan mailan, milioi erdi emakume txertatu dira lan-merkatuan 2008tik, baina % 10 inguruk baino ez dute enplegua lortu.

EAEn langabezia tasak azken urteetan izandako bilakaera aztertzen badugu (F grafikoa, eranskinean), azken hamarkadan murriztu egin dira emakumeen langabezia gizonena halako bi zela hainbat urtetan zehar adierazten zuten eskandaluzko genero-arrakalak²², eta, areago, gizonen langabezia handiagoa ere izan da 2009. urteaz geroztik, finantza-krisia lehertu zenetik, hain zuzen, gehienbat eraikuntzaren sektorean enplegua era masiboan suntsitu zelako, hura oso sektore maskulinizatua izaki. Egoera hori guztiz berria suertatzen da, eta maskulinitate-krisi bat eragiten ari da, gizon askok hornitzaile nagusiaren rola galtzeari lotutakoa. Fenomeno hori maila globalean hedatzen da; hala, Ameriketako Estatu Batuetan, umeak dauzkaten etxeei dagokienez, 10etik 4tan dira emakumeak hornitzaile nagusiak, 1960an % 11 baino ez zirelarik²³.


Hala eta guztiz ere, batzuek eta besteek egiten dituzten lanen ezaugarriak aztertu behar dira, halaberrez. Hain zuzen, 4. grafikoa ikusten dugunez, gehienbat gizonak dituzte 40 ordutik gorako enpleguak. Hori horrela da **emakumeak izaten direlako lana eta familia bateratzea hautatzen dutenak**, generoaren parekotasunik gabeko eraikuntza soziala dela-medio; izan ere, eraikuntza horrek haien familiak zaintzeko funtsezko mandatura txertatzen du emakumeengan.

21 Pérez Orozco, Amaia (2012)

22 1980ko eta 1990eko hamarkaden zati handi batean, gizonen langabezia tasa % 10 eta % 15 artean zegoen; eta emakumeena, aldiz, % 35era ere iritsi zen.

23 <http://latino.foxnews.com/latino/espanol/2013/05/29/mujeres-son-principales-proveedoras-en-4-de-cada-10-hogares-de-eeuu/>

4. grafikoa: EAEko landunen tasa, sexuaren arabera (%) 2010



Iturria: Emakunde. 2011ko zifrak, Eustaten datuetan oinarriturik.

Enplegu-egonkortasunari dagokionez, berriz ere gizonak izaten dituzte gehienbat kontratu mugagabeak. Emakumeen enpleguaren aldibaterakotasun handiagoaz gain, ezkutuko ekonomian, kontraturik gabeko lanak egiten dituztenen artean, % 90 dira emakumeak. Horrek zuzeneko lotura du etxeko enpleguan dagoen esplotazio- eta kolokatasun-maila handiarekin. Kontuan hartzen badugu, gaur egun, eskubide sozialak kotizazioei zuzenean loturik daudela, berriz ere dira emakumeak gure gizarteetan enpleguak duen zentralitatearen ondorio okerrenak nozitzen dituztenak; izan ere, egoera horretan, etorkizunean prestazioen eta erretiroaren aldetik izango dituzten eskubideak murrizten zaizkie, bai eta, ondorioz, beren bizitzak mantentzeko aukerak ere.

Aztertzeko interesgarria den beste alderdi bat da umeak izateko erabakiak lan-merkatuan sartzeko aukeretan duen eragina. Argigarria da, oso, Europar Batasunean ugaltzeko adinean diren emakumeen eta gizonen artean, enplegu-tasaren genero-arrakala oso txikia izatea umerik ez duten bitartean, eta arrakala hori halako sei bihurtzea ama edo aita izatea erabakitzen dutenean, une horretan emakumeen jarduna nabarmen murrizten delako lan-merkatuan—edo merkatutik ateratzen direlako, edo bazterkeria jasaten dutelako lanpostua lortzeko garaian—, gizonenak, aldiz, gora egiten duen bitartean (5. grafikoa). Argazki horretan agerian geratzen da gure gizarteetan zenbateraino jarraitzen duen indarrean gizona, ogi-irabazle/emakumea, etxekoandre sexuaren araberako lan-banaketaren eredia, berdintasunaren irudipen hedatuaren ikuspegitik ia gaindituztat ematen bazen ere. Egia esatera, paradigma lerratu egin da —eta gero eta neurri handiagoan— gizon hornitzailea, batetik, eta emakume zaintzailea eta, lanaldi partzialean, hornitzailea, bestetik, dauzkan familia-eskema baterantz²⁴.


Ildo horretan, nabarmendu behar da bizkor ari dela **gora egiten lanaldi partzialeko enplegua duten emakumeen ehuneko** eta ia hiru emakumetik bat dagoela egoera horretan EAEn; gizonen artean, aldiz, % 5 baino ez. Emakundek emaniko datuen arabera²⁵, EAEn eta 2012an, lanaldi partzialeko kontratua zuten pertsonen % 82 emakumeak ziren, eta haietatik % 92k nahiago zuten lanaldi osoan lan egin, baina ezin zuten, horrelako lanik aurkitzen ez zutelako. Beharrezkoa

²⁴ Pazos Morán, María (2013).

²⁵ EAEko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako VI. Plana, Emakunde, 2014ko maiatza, 88. or.

da datu horiek goiburu sinplisten azpian ez ezkutatzea (esaterako: “oparaldietan, emakume askok familiako konpromisoez arduratzea aukeratzen dute, lanekoak baztertuta”²⁶); izan ere, halakoek pentsarazi nahi digute emakumeek lana etxetik kanpo bilatzen dutela behar ekonomikoek hartara bultzatzen dituztenean bakarrik. Gure apustu feminista eta desazkunderaletik, gure iritzia da 21 orduen txostena –enplegua lanerako adinean dauden pertsona guztien artean ekitatiboki banatzearen aldekoa– birplanteatzeak aukera sortzen duela enpleguak lanaldi partzialaren eta osoaren arteko bereizketaren arabera ikusteari uzteko, eta enplegu horiek bizitzeko *bizipoza* merezi duten bizitzak mantentzeko baliagarriak izan daitezzen.

5. grafikoa: Emakumeen eta gizonen enplegu-tasa EB27n, 15-49 urte bitarte, seme-alabekin eta gabe, 2010



Iturria: Eurostat. Biztanleria aktiboaren inkesta. Urteko batez bestekoa.

Ordainsarien alderdia ere bada emakumeek lan-merkatuan jasaten duten bereizkeriaren beste erakusgarri bat. Gaur egun, kalkulatzeko denez, **gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldea** EAEn 7.000 euro baino gehiagokoa da urtean, batez beste, eta arrakala hori are larriagoa da ordainsari eskasak dituzten sektoreetan, halakoetan, gizon batek jasotzen dituen 100 euroko, emakume batek 65 jasotzen baititu. Laburbilduz, emakume landunen % 81ek urtean 24.000 euro baino gutxiago jasotzen dituzte, eta gizonen artean, aldiz, proportzio hori % 57koa da.²⁷ Soldata-desparekotasunak are larriagoak dira migratuen kasuan²⁸, diru-baliabideak eskuratzeko aukerak jatorri geografikoarekin zuzeneko lotura duelarik. Hala, jatorria Latinoamerikan duen emakume baten urteko batez besteko diru-sarrerak (12.334 €) Espainiako herritartasuna duen gizon baten sarreraren erdia baino gutxiago dira²⁹ (25.671 €). Hain zuzen ere, azterketa interseksionala egin behar da³⁰ bazterketek, oro har, izaten duten eragin biderkatzailea ikusgai bihurtzeko, ez baitira bakarka agertzen, ez eta banaka funtzionatzen ere. Esaterako, Bilboko Udalak egin zuen azterlan batean, atzeman zen dibertsitate funtzionala zuten emakumeen langabezia-tasa hiru aldiz handiagoa zela emakumeen tasa orokorra baino, eta desgaitasuna zuten gizonena halako lau zela,

26 <http://www.elcorreo.com/bizkaia/economia/trabajo/201406/08/mujeres-acaparan-empleo-creado-20140605175226.html>

27 Emakunde, 2012.

28 Migratu terminoa erabiltzen dugu, migratzailea erabili ordez, Munduko Emakumeak-Babeleko gure kideen proposamenak aintzat harturik. Haiek diotenez, migratzeko erabakiak ez dira aukera libreak; aitzitik, globalizazio neoliberalak kanporatu egin ditu beren herrialdeetatik.

29 Emakunde, 2012, 40. or. 2009ko datuetan oinarriturik.

30 Platero, Raquel (Lucas) 2012.

bai eta gizonen tasa baino hamar aldiz handiagoa ere. Puntu honetan, horren inguruan egon ohi den datu-urritasuna erakundeen sentiberatasun- eta borondate-faltaren adierazle asaldagarria da, kolektibo horiek aurre egin behar dioten egoera ezagutzeko garaian.

Bestalde, emakume asko lan-merkatutik aldizka, lanaldi partzialean, ezkutuko ekonomian edo lansari-kategoria apaletan igarotzeak badu zuzeneko isla bai langabezia-prestazioetan, bai erretiro-pentsioetan. Hala, Bilbo udalerrian, 65 urte baino gehiago dituen emakume batek 746,12 euro jasotzen ditu, batez beste, gizon batek jasotzen dituen 1402,02 euroen ia erdia³¹.

Lansari-bereizketaz gain, *kristalezko sabaia* delakoa ere hor dago, emakumeek ardura-postuak iristea galarazten, sektore publikoan zein pribatuan, eta fenomeno hori areagotzen ari da, krisia dela-medio. Hala, 2008an, emakumeak zuzendaritza-postuen % 20tan zeuden, baina azken urteetan ehuneko hori erdira jaitsi da estatu mailan³².

Ondorio gisa, nabarmendu behar da, emakumeek bizitza duina eta autonomia izateko dituzten aukeretan, eragin handia duela gizarteak baliorik ez emateak emakumeek egin ohi dituzten eta oraindik haiek gehienbat egiten dituzten lanei, bai eta beste lan batzuk eskuratzeko aukera ez emateak ere. Bizitza mantentzeko ardura, beraz, pribatizaturik—etxeen kontu—, feminizaturik, eta gero eta merkantilizatuago dago.

2.5. Osasun-bazterketako neurriak: arauketa eta abian jartzea

Estatuan, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua onartu izanak koxka bat estuago jarri du hainbat kolektibok beren bizitza mantentzeko borrokan aurre egin beharreko egoera, lehendik ere egoera zaila izanda. Legezko tresna horrekin, osasun-arretaren unibertsaltasuna ezabatu da, zerbitzu publikoen ahultasunaren adibide argi batean; izan ere, zerbitzuok kenduz joaten dira—lehen eskubideak zeuden tokian— irabaziak ateratzeko aukerak ikusten dituzten interesen mesedetan.

Nahiz eta Konstituzioak eta Osasunari buruzko Lege Orokorrak osasunerako eskubidea estatuan bizitzearekin lotzen duten, 16/2012 Errege Dekretuarekin, kotizazio soziala izango da aurrerantzean zerbitzu hori ematea bermatuko duena³³. Margarita Lemak aditzera ematen duenez (2013): “hemendik aurrera osasunerako eskubidearen titulartasunak unibertsala izateari utzi dio, eta asegurdun-izaeraren mende egotera igaro da; hartara, aurrerantzean baldintza jakin batzuk bete beharko dira, lan-merkatuan parte hartzeari lotutakoak”. Gure bizitzak mantentzeko eskubidearen unibertsaltasuna erdigunetik urruntzen da, eta haren tokian kotizatzen duen lana, enplegua, betiereko merkatua jartzen da.

Neurri horrekin, bizileku-baimenik eta, ondorioz, lan-kontratu formal bat lortzeko aukerarik ez duten migratuak zuzenean osasun-sistema publikotik baztertuta geratzen dira, ezin baitute osasun-txartelirik eduki³⁴. Dena dela, egoera erregularrean dauden hainbat pertsona ere bazter-

31 Bilboko adineko emakumeen egoerari buruzko diagnostikoa. Bilboko Udala, 2012.

32 <http://www.rtve.es/noticias/20130306/crisis-fulmina-mitad-mujeres-directivas-espana/613643.shtml>

33 Yo Sí Sanidad Universal plataforma, 2012.

34 Egoera irregularrean dauden migratuei aplikatzen zaien hiru salbuespen bakarrak dira larrialdiena, haurdunena eta adin-

tzen dira: bai migratuak (26 urte baino gehiago izanez gero, inoiz kotizatu ez badute, eta paperak dekretuaren onarpen-dataren ondoren lortzen badituzte), bai estatukoak (26 urte baino gehiago dutela, kotizatu ez badute, frogatu egin behar dute urtean ehun mila euro baino gutxiagoko sarrerak dituztela), murrizketaren helburua, praktikan, atzerritarrak kanporatzea bada ere. Egun batetik bestera, lehen mailako arretako profesional batengana ezin jo zezaketen pertsonen kopurua 870.000 baino gehiago zen³⁵, Osasun Ministerioaren datuen arabera. Nahiz eta kolektiboen arabera banakaturiko datuak eman ez diren, antolakunde sozialek, hala nola Red Acoge deritzonak, jakintzat ematen dute kendu diren osasun-txartela gehienak pertsona migratuen txartelak izan direla³⁶.

EA Eren kasuan, EA]ren gobernuak 2013an heldu zenetik, egitez aplikatu zaie osasun-bazterketa bizileku-baimenik gabeko atzerritarrei, errolatuta urtebete baino gutxiago daramatenean. Gizarte-, familia- edo lan-errotzea egiaztaturik ere, ez da bermatzen lehen mailako arretan urtebete baino gutxiago egon direnentzat. Bizilekua urtebetetik gora finkatuta daukaten migratuen kasuan, baliabide urriak edukitzea edo gizarte-laguntzaren bat jasotzea ere frogatu behar dute, bai eta, beste bide batetik, beste osasun-laguntzarik ez izatea ere. Egoera horrek, estatuko sistemaren aldean, babes-eremu handiagoa ematen du, baina ez ditu ezkututzen osasun-bazterketako mekanismoak eta osasun unibertsalaren kontzeptuaren haustura. Bestalde, Nafarroan –gobernuan UPN zela– errolatuta egun bat eramatearekin osasun-txartela eskatzeko aukera ematen zuen lege bat onartu zen³⁷.

Amnistia Internazionala, Munduko Medikak, Red Acoge, eta SEMFYC (Familia eta Komunitate Medikuntzako Espainiako Elkarte) antolakundeek batera osatu zuten txosten baten arabera (2012), egoera irregularrean dauden emakume migratuek osasun-laguntza ez izateak haien osasunaren gaineko ondorioak ekarriko ditu, bereziki sexu- eta ugalketa-osasunean³⁸, “gaixotasun ginekologikoen detekzio goiztiarrerako proba diagnostikoak eta *screening*-a ez egitetik hasita, haurdunaldia borondatez eteteko kasuetan estaldura sanitariorik ez izateraino”. Bestalde, lehen mailako arretako zentroak funtsezko nodotzat jotzen dira indarkeria-egoera jasaten duten emakumeak goiz detektatzeko eta identifikatzeko. Agiririk gabeko emakume migratuei osasun-txartela ukatzean, osasun-zentroek halako emakumeak identifikatzeko, haiei aholku emateko nahiz lagun egiteko aukera galtzen da, genero-indarkeria jasaten dutenean. Lehen mailako arretako zentroak badira pertsonen trafikoaren kasuei antzemateko puntuak ere. Egungo legedian, suspertzeko eta gogoeta egiteko aldiak dauden emakumeentzat mugatzen da osasun-laguntza³⁹, eta oso gutxitan gertatzen da trafikagai hartutako emakumei kategoria hori onartzea.

Bazterketa-kasuak ez ezik, legean jasotako egoeretan emakumei arreta ez ematea ere salatu dute hainbat gizarte eragilek. Margarita Lemak (2013) aipatu duenez, Munduko Medikak elkar-

gabeena. Hala ere, badira zenbait ahots, salbuespen horiek betetzen ari direnik zalantzan jartzen dutenak: http://www.eldiario.es/desalambre/exclusion-sanitaria-personas-probar-Gobierno_o_297470798.html

35 http://www.eldiario.es/desalambre/inmigracion/personas-excluidas-sistema-sanitario-publico_o_178832467.html

36 <http://yoelijoserhumano.org/un-reforma-sanitaria-inhumana/ines-diez-se-esta-denegando-el-acceso-a-la-sanidad-a-personas-que-si-tienen-papeles/>

37 http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/07/27/paisvasco/1374944586_475850.html

38 Esamoldea erabili arren, sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna halabeharrez elkarrekin lotzearen aurka gaude; izan ere, eslogan feminista ezagun batek dioenez, “sexualitatea ez da amatasuna”.

39 Agintariak pertsona bat trafikoaren biktimatzat aitortzen badute, suspertzeko eta gogoeta egiteko aldi bat ematen zaio, epe jakin batean zigor-prozedura eteten da, eta herrialdean geratzen uzten zaio, bai eta haren seme-alabei ere, halakoak dituenean.

teak kasu ugarien berri izan du, non haurdun atzerritarrei osasun-txartela eskatu zaien arreta jaso ahal izateko, legez hori beharrezkoa ez bada ere; horrek atzerapenak eragin ditu jaio aurreko azterketa medikoak egiteko epeetan.

2.6. Etxeko enplegua

Adingabe eta adinekoen arduratzeko zerbitzu erabilgarriak ez egotea, bizikideen artean etxeko lana ez banatzea, enpleguen eta zerbitzuen ordutegiak zainketa aintzat hartu gabe antolatzea, etxebizitzaren, hirigintzaren... alorreko politikek pertsonen ahultasun-egoerari ez ikusi egitea egoera jasanezinen sorburu dira, eta halakoek dituzten konponbide guztiak emakumeen esplotazioan oinarritzen dira. Etxeko langileek emakume horietakoak dira. Azken urteetako biztanleria aktiboaren inkestan (BAI), etxeko enpleguan diharduten emakume landunen ehunekoa % 8 ingurukoa da beti. Eusko Jaurlaritzaren 2011ko etxeko enpleguari buruzko inkestan, zenbatesten zuten sektorean 89.423 pertsona zeudela (sexuaren arabera banakatu gabe, baina emakumeak % 90 baino gehiago izaten dira), eta haietatik % 34 atzerritarrak zirela. Atzerriko barne-langileen % 23k ez zuten paperik.

Etxeko enpleguari ez zaizkio aitortzen garatzen dituen jakintzak. Etxeko langileek langintza askoren berezko lanak egiten dituzte, batere aitormen profesionalik gabe. “Etxeko langilea” izendapenak, bestelako lanbide-sailkapenik gabe, bazter uzten du etxeko lan batzuek eta besteek eskatzen duten trebakuntza, edo haurren eta adinekoen zainketa. Sektorearen arauketak ez ditu errespetatzen soldatiko gainerako enpleguaren estandarrik: asteko lanaldia 60 ordukoa izan daiteke; kontratuaren betebeharren artean gaua etxean eman beharra sartzeak ez dakar inongo ordainik berekin; soldatiko gehiegikeriazko % 30eko deskontua egin daiteke, mantenuagatik; gainerako sektoretan baino kalte-ordain txikiago batekin kalera daitezke langileak... Gainera, lan-arloko arauak bete daitezkeen zaintzeko ardura duten erakundeek ez dute etxeko enplegua kontrolatzen, egoitzaren bortxaezintasunaren aitzakiarekin.

Etxeko langileentzako enpleguaren bilaketa agentzia pribatuen esku dago, eta haiek are kolokatasun handiagoa eragiten dute sektorean, zainketa-zerbitzuetan dagoen hutsunea eta –sektorean eraginkortasunezko bitartekari-lanik egiten ez duten– enplegu-zerbitzu publikoen utziera negozio bihurtuta. Agentziek legean ezarritako azpiko lanaldi eta soldatiko jasotzen dituzten enplegu-eskaintzak kudeatzen dituzte, eta, sarritan, hileroko zenbatekoak kobratzen dizkiete enplegu-emaleei, azken horiek ordaintzeko prest baitaude, zerbitzuaren jarraitutasuna ziurtatze aldera.

Bizi-kalitatearen irizpideak, zerbitzuetarako gastu soziala, enpleguaren nahiz bizi garen espazioen antolaketa, eta abar birpentsatzea ez da hain premiazkoa herritarren zati handi batek etxeko zerbitzu pribatua eskura daukanean, haren kostu apala dela-eta. Barne-langileen zainketa-lanaren zati handi bat ezkutuko ekonomian dago, eta emakume migratuek egiten dute, Atzerritarrei buruzko Legeak eskatzen duen bidesariaren pagatzaile: barne-langile hiru urtez, 900 euro inguruko soldatiko edo, batzuetan, gutxiagokoak jasotzen, batez beste 14 ordu dituen lanaldi baten ordainetan, etxebizitzatik irteteko eskubiderik gabe, lan-kontuengatik ez bada, eta astean egun eta erdira ere iristen ez den atsedendia dutela. Hiru urte horiek beterik, erregulartzeko prozedurak enplegu-emalearen laguntza eskatzen du; azken horrek, batzuetan, bere parte bat betetzeari uko egin, eta langilea kalera botatzen du, edo legez kanpoko baldintzak onartzera behartzen du, kontratua eta Gizarte Segurantzako alta formalizatzearen truke.

Eskubide eskaseko egungo egoera ez du ez kasualitateak ez sektorea ahaztu izanak eragin; aitzitik, kostuen eta irabazien kalkulua izan da. Etxeko enplegua infrabaloestea nahitakoa da. Mendetasun Legeak jasotako etxeko laguntzako zerbitzuan, orduaren prezioa lau edo bost aldiz handiagoa bada etxeko langile baten orduarena baino, azken langile horren bereizketa-egoerari eustea ezinbestekoa da kontuak ongi ateratzeko. Noiz edo noiz etxeko langileen egoera benetan iraultzeko, langile horiek zainketa-lanerako konponbidea izateari utzi behar diote.

2.7. Zerga-sistemak neutroak dira?

Lan honen luze-zabalak gai honetan sakontzeko bide ematen ez digun arren, ezin dugu ahaztu zerga- eta prestazio-sistemek sustagarria ken dezaketela berariaz zerga-arloan, bigarren mailako langileak –gehienbat, emakumeak– beren egoeran harrapaturik utzita horrela. Baterako aitortpeneko zerga-sistemek sustagarria kentzeko joera handiagoa izaten dute, sarrera nagusiari gehitzen zaion edozein beste diru-sarrera zerga-tasa handiago batekin zergapetu ohi delako. 1980. urtearen hasieran, EBk baterako aitortpenaren aurkako jarrera hartu zuen, eta Europar Batasuneko estatu gehienetan banakako zergapetzea sartzen lagundu zuen horrek. Hala ere, baterako aitortpena zenbait estatutan atxiki dute, besteak beste, Estatu Espainolean. Azken horretako PFEZan, hain zuzen, zerga-aringarri handiagoa ematen da sarrerarik gabeko ezkontideagatik, ardurapeko ume batengatik baino, kontuan hartu gabe umea zaindu egin behar dela eta, beraz, gastuak dakartzala, eta heldu batek, aldiz, zaintzen eta etxeko beste lan batzuk egiten jardun dezakeela, familiari gastuak kenduta horrela (María Pazos, 2013). Zalantzarik gabe, ikuskera horren oinarrian badago, egon ere, lan-merkatutik kanpo dagoen oro biztanleria ez-aktibotzat jotzen duen begirada androzentriko bera⁴⁰. Hortaz, ikusarazi behar da baterako aitortpena, alargun-pentsioak, amatasun- eta aitatasun-baimenen arteko desparekotasuna, eta bateragarritasun-politikak deitutakoetatik asko sexuaren araberako lan-banaketari eusteko sustagarri ekonomikoak direla.

3. GOMENDIOAK ETA ALDARRIKAPENAK

Erasotzen digun krisi multidimentsionala ikusita, agerikoa da “merkatu-ekonomia” delakoaren gaitasunik eza pertsonen beharrian globalak betetzeko, planetaren mugen barruan⁴¹, biziaren jasangarritasunak eta kapital-metaketak tentsio konponezinak sortzen dituztelako, bata edo bestea hautatzera behartzen gaituztenak. Ezinbestekoa da aztertzea nola elkarrekin lotu justizia soziala (oinarrizko beharrianak era unibertsalean betetzea), ingurumen-justizia (beharrian horiek naturak markaturiko ondasunekin eta denborekin betetzea), genero-/”arraza” edo etnia-justizia (beharrian horiek betetzeak mendekotasuneko, esplotazioko eta/edo zapalkuntzako harremanik ez ezartzea) eta aldi berean ahalik eta askatasunik handiena gorde (beharrian-betegarriak eta lanak aukeratzerakoan). Laburbilduz, argitu behar da zer egitura-mota izan daitezkeen baliozkoak bai baliabide mugatuak esleitzerakoan, bai galdera hauei erantzuterakoan: zer beharrian bete? norentzat bete? eta nola bete?⁴², “bizitzeko *bizipoza* merezi duten bizitzak” bizitzeko xedez.⁴³

40 “Etxekoandreak lanean egun guztia, eta gero emakume ez-aktiboak omen dira”, dio eslogan feminista ezagun batek.

41 Desazkundera kolektiboko feminismoen taldea (2013).

42 Logika produktibista ez erortzearen, “ekoitzi” ordeztzea eta haren tokian “(beharrianak) bete” erabiltzea azpimarratzen dugu.

43 Jatorrizko esaldia, “bizitzea merezi duten bizitzak” aldatu dugu, mezu baikorrago bat nabarmentzeko.

Desazkundeak zalantzan jartzen du gure bizitzetan enpleguak eta kontsumoak zentralitatea izatea, eta gogoeta egin du ekoizpenaren, enpleguaren eta kontsumoaren artean dagoen dinamika zirkularraren inguruan, gure denbora gehiena ardatz horren inguruan egituratzen baita. Azterketa hori abiapuntutzat harturik, desazkundeak denbora soziala autokontsumorako eta kolektiboarentzako lanaren inguruan egitura dadila proposatzen du, pertsonen arteko zein naturarekiko harremani lehentasuna emanik. Hala, bada, bizitzaren jasangarritasunak eskatzen du gizarteak, oro har, har dezala zainketa-beharrizanen nahiz zainketa-lanen ardura. Azken batean, xedea da lehentasunak aldatzea, ikuspegi eta praktika antiheteropatriarkal eta antikapitalista batean oinarrituz.

Gure ikuspegitik, sistema kapitalistaren barruan ezinezkoa da bizitza bizigarri unibertsalizagarriak sortzea, planetaren mugak errespetatzen dituztenak (hurrengo belaunaldiak aintzat hartuz eta gizakiak ez diren beste izaki batzuk ere errespetatuz).

3.1. Erakundeei zuzendutako neurriak eta aldarrikapenak

Egiturazkoak

- Enpleguan erabiltzen den denbora nabarmen murriztea sustatuko da, eta lan monetizatuak lanerako adinean dauden guztien artean banatzea⁴⁴.
- Lana esanahi-berritzea ahalbidetu eta/edo bultzatuko da, soldatako lana adierazteaz gain, bizitzaren jasangarritasunerako ordaindu gabeko lanek duten garrantzia ikusgai bihurtuz.
- Ahalbidetu eta/edo bultzatuko da izaki ekodependente eta inderdependente gisa dugun izaera ikusgai bihurtzea⁴⁵.
- Espazio publikoak jarriko dira eskuragarri, era kolektibo, demokratiko eta komunitarioan autokudeatu ahal izateko bizitza mantentzeko beharriak, hala nola pertsonen zainketa, jantoki komunitarioak, hiri-baratzeak, arropa-garbitegiak, gauzen trukea⁴⁶ nahiz ezagutzen trukea, aisiarako nahiz belaunaldiarteko topaketarako lekuak, eta abar.
- Espazioak jarriko dira eskuragarri, etxebizitza komunitarioko proiektuak (*cohousing*) garatu ahal izateko, edozein adinetako pertsonentzat. Erakundeek hasiko beharko lukete zahar-egoitza tradizionalak erabiltzaileak autonomia eta autokudeaketa handiagoz hornitzeko beste eredu batzuetara bideratzen, adineko pertsonen beren nahiak aintzat harturik⁴⁷.
- Era sistematikoan (zeharkakoa) hartuko dira aintzat zerbitzu publikoetan –hala nola hezkuntzan, osasunean edo gizarte-zerbitzuetan– orientazio sexual eta afektiboaren dibertsitatea, genero-dibertsitatea, dibertsitate funtzionala, kultura- eta hizkuntza-dibertsitateak, bai eta bizitza bizigarriak eraikitzeke ezinbestez errespetua behar duten beste dibertsitate batzuk ere.

44 Txostena: EcoPolítica. NEF. 21 horas. Una semana laboral más corta para prosperar en el siglo XXI. Icaria (2012). Baldin baten badira 2011ko lanordu guztiak eta lanerako adinean dauden pertsona guztien artean banatzen badira (landunak nahiz lan-gabeak kontuan hartuta), Euskadin 21 ordu/aste aterako lirakeke. Denok planetaren mugen barruan bizitzeko moduan lan egin nahi badugu, lanaldia murriztea eta lana banatzea –nola lan ordaindua, hala zainketa-lana– da lehen alternatiba. Nahiz eta horrek ez dakarren, halaber, kapitalismoa deseraikitzea, nahiago dugu pentsatu iraultza handia eragingo liokeela haren zimenduei eta iruditeriari. Eta horrek ere ez du berez ekarriko, era berean, etxeko eta zainketako lana genero-justiziarekin –eta beste justizia batzuekin– bat etorri banatzea.

45 Decrecimiento en un minuto bideoa eta Desazkundera kolektiboko feminismoen taldea (2013).

46 Esaterako, Debalde-ren esperientzia: Bilboko espazio autokudeatu bat izan zen, 2011tik 2013ra bitartean, bestela botako ziren gauzakiak lortu ahal izateko, gauzakiok bigarren bizitza bat izateko eta dirurik gabe eskuratu ahal izateko.

47 Bilboko adineko emakumeen egoerari buruzko diagnostikoa. Bilboko Udala, 2012.

- Elkarrekikotasuna⁴⁸, trukea⁴⁹ eta kideko praktikak ahalbidetu eta/edo bultzatuko dira

Pertsonen zainketa

- Zainketa-sistema erabiltzeko aukera bultzatuko da erakunde publikoek bermatu beharreko eskubide unibertsal gisa (sektoreak profesionalizatuz, laguntzak emanaz, eta beharrezko neurri guztiak hartuz). Haurrak zaintzeko eta adineko pertsonen arreta eta laguntza emateko egitura publikoak sortzea eta hobetzea bultzatuko da, egitura horien bidez bizitza autonomoak, parte-hartzean oinarrituak eta indarkeriarik gabekoak sustatuz⁵⁰.
- Mendetasun-egoeran daudenei laguntzeko zerbitzu publikoak erabiltzeko eskubidea unibertsal bihurtuko da pertsona guztientzat, autonomia funtzionala eman diezaieten; horretarako, laguntzak handituko dira eta enplegu gehiago sortuko dira, Mendetasun Legeko 18. artikulua kentzeko xedez, hau da, familia-arloan zainketa emategatiko prestazioa jasotzen duen artikulua.
- Lehenetsua emango zaio zerbitzu publikoetan inbertitzeari, ondorengoengatik prestazio ekonomikoak eman beharrean.
- Bizitza duina izateko besteko sarrera-maila ziurtatzen duten pentsio batzuk ezarriko dira pertsona guztientzat, banakako eskubide gisa, egoera zibila edozein izanik ere.
- Zainketaren oinarriko dimentsioetan⁵¹ irabazi-asmorik gabeko erakundeek bakarrik jardun ahal izatea sustatuko da.
- Osasun-zerbitzu publikoa, unibertsala eta doakoa bermatuko da.

Hezkuntza

- Hezkuntza publikoa, unibertsala eta doakoa bermatuko da, ordutegi zabalekin, zero urtetik aurrera.
- Ahalbidetu eta bultzatuko da eskola-curriculumean bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegia zeharkakotasunez integratzea: zein diren bizitzaren oinarriko beharrizanak, zer lanek betetzen dituzten halako beharrizanak, eta lanok nola egin behar diren.
- Kontsumoa murrizteko eta kontsumo-era berriak hartzeko hezkuntza ahalbidetu eta/edo bultzatuko da.

Lan-arloa

- Amatasun-baimenak eta aitatasun-baimenak parekatuko dira, besterenezinak izango dira, eta % 100 ordainduko dira.
- Lantokietan ordutegi malguak eta bigunak⁵² egotea bultzatuko da, langilearen aukeran.
- Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko, emakumeen eta gizonen arteko ar-

48 Trukea une jakin bateko bi pertsonen arteko hartu-eman bat dela ulertuta, eta elkarrekikotasuna, aldiz, kontzeptu zabalagoa dela, tartean pertsona askoren harreman interdirekzionalak dauzkana.

49 Praktika horiek, dohaintza edo emaitzarekin batera, izan dira beharrizanak betetzeko praktika nagusiak kapitalismo aurreko gizarte gehienetan, eta badute oraindik garrantzi handia Hegoalde globaleko herrialdeetan. Nabarmendu behar da denbora-emaiza—ematen den denbora— badela gure gizartean etengabe funtzionatzen duen logika bat, etxeko eta zainketako lanaren esparruan, baina ez genero-justiziaz, Matxalen Legarretak doktore-tesian agerian utzi duenez: El tiempo donado en el ámbito doméstico-familiar. <https://addi.ehu.es/bitstream/10810/11353/1/TesisMATXALEN%20LEGARRETA%20IZA.pdf>

50 Egitura horiek egitura komunitario autokudeatuekin batera egon beharko dute, azken horiek unibertsalizatzea zailagoa delako, egungo sistema dela-eta.

51 Enplegu-agentziak adibide argia dira. Bai eta, hezkuntzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta kideko arloetan, bizitzarako oinarriko jardueretan lan egiten duen irabazi-asmoko edozein ekimen ere. Esparru horretan, zerbitzu publikoen alternatiba bat lirateke ekonomia sozial eta solidarioaren balioak betetzen dituzten ekimenak.

52 Ordutegi malguetan, aukera ematen da lanera denbora-tarte jakin batean sartzeko, edo irteteko; ordutegi bigunetan, denbora-tarteetan alde egiteko aukera dago, eta denbora hori eguneko edo asteko lanaldian zehar berreskura daiteke gero.

dura-banaketan oinarrituriko politikak sustatuko dira.

- Lanaldi partzialean lan egindakoen kotizazioak kontuan hartzeko era aldatuko da, lanaldi murriztua dutenek zigor bikoitza ez jasateko prestazioen kalkuluan.
- Enpresek emakumeak lanaldi partzialean kontratatzekeo pizgarriak kenduko dira, koardurarentz aurrera egiteko xedez.
- Etxeko langileen eskubideak Langileen Estatutuarekin parekatuko dira.
- Bete egingo dira haurdunaldiaren, erditzearen nahiz berrekoizpen-lanari lotutako beste edozein egoeraren inguruko gorabeherarengatik emakumeak bereizkeriaz tratatu dituzten enpresei jarritako zigorrak.
- Berdintasun-planak betetzen ez dituzten enpresak administrazioarekin kontratatzekeo edo inongo diru-laguntzarik jasotzeko debekuarekin zigortuko dira.
- Zabaldu egingo da soldata-arrakala sortzen duten lansari-bereizkerien kontrol eta jarraipena, eta legean xedaturiko zigor ekonomikoak betetzen direla ere kontrolatuko da.⁵³
- Gizarteko soldata-arrakala txikitzekeo neurriak aplikatuko dira, 1-3ko mailara iristeraino.
- Legeak xedaturiko zigorrak aplikatuko zaizkie desgaitasuna duten pertsonak enplegatzekeo erreserba-kuota betetzen ez duten enpresei (“desgaitasuna” da legeak erabiltzen duen terminoa). Legez, lantaldean 50 pertsona baino gehiago dauzkaten enpresa guztiek lanpostuen % 2 desgaitasuna (*sic*) duten pertsonentzat gorde behar dituzte. Legezkeo enplegu-erreserbaren barruan, lanpostuen % 50 dibertsitate funtzionala duten emakumeentzat gordetzeko eskatzen dugu⁵⁴.

3.2. Banakako eta taldekako aldaketarako alternatibak

Egoera hau aldatzeko, beharrezkoa da gizarteak aldaketan parte eta ardura hartzea. Horretarako, atal hau banatu dugu gizarteari, oro har, egiten zaizkion eskaeretan, batetik, eta erreferentziatzat eta mobilizazioari jarraitzekeo abiapuntutzat balio dezaketen alternatibetan, bestetik.

Gizarteak, oro har, zainketa-lanen ardura hartzekeo neurriak

- Bizitzaren jasangarritasunerako beharrezkoak diren lan guztiak ekitatiboki banatuko dira.
- Lan egingo da gizonek, berdintasunez, zainketa-lanetan dagozkien ardura beren gain har dezaten⁵⁵.
- Bermatuko da etxeko eta zainketako lanaren antolaketa soziala herrialde txirotuetako—hau da Hegoalde globaleko— pertsonen esplotazioan oinarriturik ez egotea.

Martxan dauden esperientziak

Zorionez, ez gara hutsetik abiatzen, eta esperientzia asko daude erreferentziatzat balio diezaguketenak gizarteak, oro har, zainketa-beharrizanen nahiz zainketa-lanen ardura har dezan lortzeko. Nahiz eta esperientzia perfektu eta osoak ez diren, kontzeptuen, praktiken eta balioen aldetik egiten dituzten ekarpenak aurrerapena dira, eta lanean jarraitzekeo har daitezkeen norabideak iradokitzen dituzte. Esperientzia horietara hurbilduz, gure aldarrikapen-zerrenda luza dezakegu.

53 Frantzia, zigor larriak ezartzen saiatzen ari dira alor orretan: <http://agencias.abc.es/agencias/noticia.asp?noticia=1369334>

54 “Dibertsitate funtzionala” terminoa erabiltzea aldeztzen dugu, Bizitza Independentearen Foroan sorturiko terminoa, “desgaitasuna” erabili beharrean.

55 Aldarrikapen honen inguruan, zainketa-zorren kontzeptua gogorarazi behar da, hots, patriarkatuak mundu guztiko emakumeekin hartutako zorra, emakume horiek egiten duten lanagatik. Kontzeptuaren helburua da ikusgai bihurtzea zainketa-lanaren parekotasunik gabeko banaketa eta hori zein jasanezin eta bidegabea den emakumeentzat (Herrero, Yayo; 2012, “Propuestas ecofeministas para un sistema cargado de deudas”).

Zaintzeko eta hazteko amen eta aiten sarea

- Ziurtatuko da alternatiba honek zainketa eta haziera parteka daitezela ahalbidetzea.
- Bereziki zainduko da eta ardura jarriko da parte-hartzea genero-berdintasunaren arabera gauzatzeko.
- Egungo familia konbentzionalaren ikuskera zabaltzen duten zainketako eta hazierako egiturak sustatuko dira.

Fureai Kippu, belaunaldiarteko zainketa-sistema japoniarra (Hayashi, Mayumi; 2012)⁵⁶

- Bermatuko da belaunaldi bateko eta besteko pertsonen arteko harremanek elkarren ezagutza eta errespetua susta dezaten.
- Lehenetsuna emango zaio banaketa ekitatiboari, eta generoaren arabera esleituriko rola inposatzearen aurka borrokatuko da.
- Familia-nukleo tradizionalatik eta zahar-egoitzetatik kanpoko zainketa-sareak indartuko dira.⁵⁷

Cohousing-a eta egoitzak

- Bultzatuko diren bizikidetzaren ereduak, familia-konzeptu estandarra hautsiz, bide eman behar da pertsonen autonomia handiagoa izateko eta beren bizitzaren gainean erabaki ahal izateko.
- Egungo egoitzetatik *cohousing*-proiektuetarako trantsizioa egiten lagunduko da, proiektu horietan bizikidetzarako espazio komunak sortzeko eta beharrezko kolektiboki betetzea-ri lehenetsuna emanda. Adibide hurbilena Frantziako *Babayagas*⁵⁸ da, askotariko ibilbideak izandako emakumeak elkarrekin egunero bizi diren etxe bat.
- Ikusgai bihurtuko dira oinarritzko zainketa-beharrezkoak, eta sustatuko da proiektu horiek koordinatzen dituzten erakunde edo kolektiboak irabazi-asmorik gabekoak izan daitezela.

Trukeko edo *debaldeko* espazioak

- Dirurik erabili gabeko esperientziak sortzen lagunduko da, etengabeko borroka eraginda eredu neoliberalaren aurka.
- Gauzakien balio-bizitzari eta zorientasunari oinarriari buruzko gogoeta sustatuko da.

Hezkuntza alternatiboko esperientzia publikoak

- Bultzatuko da ingurune sozialak inplikazio handiagoa izan dezan, bizitzaren jasangarritasunaren arduraren.
- Bermatuko da kostua eragozpena izan ez dadin, halako esperientzietan parte hartu ahal izateko⁵⁹.

⁵⁶ Bonu-sistema baten bidez, beste batzuk zaintzen dituzten pertsonen zainketak metatzen dituzte, behar dituztenean berek hartzeko.

⁵⁷ Hayashi, Mayumi (2012). "Japan's Fureai Kippu time-banking in elderly care: origins, development, challenges and impact". *International Journal of Community Currency Research*, (16) Section A 30-X. King's College London.

⁵⁸ <http://www.lamaisondesbabayagas.fr/>

⁵⁹ Arlo publikoan kontzeptu horretara hurbiltzen diren bi adibide hauek izan litezke: 1. Donostiako Amara Berri eskola publikoa (<http://amaraberri.org/ab/index>): eskolako metodologia elkarlaneko hezkuntzan oinarritzen da, berdinen arteko laguntza sustaturik. 2. Leganeseko Trabenco HLHI (<http://www.trabenco.com/>): Hezkuntza eraldatzaile eta alternatibo baten aldeko sarea- rean parte hartzen du.

BIBLIOGRAFIA


- BRIALES, ÁLVARO (2013). *Paro, crisis de los cuidados y relaciones de género: conflictos y ambivalencias*. Madrid: Universidad Complutense.
- CARRASCO, CRISTINA, BORDERÍAS, CRISTINA Y TORNOS, TERESA (eds) (2011). *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Madrid: Los libros de la catarata.
- CARRIÓN, LORENAY PÉREZ ALBA, ELA (2014). *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica*. Reas Euskadi.
- DURÁN HERAS, MARÍA ÁNGELES (2012). El trabajo no remunerado en la economía global. Bilbao: Fundación BBVA.
- EMAKUNDE (2012). *Informe Brecha Salarial: causas e indicadores*.
- GABRIELA ARANGO, LUZ GAVIRIA (2009). *Intersecciones de Clase Genero y Raza en El Trabajo de Cuidado*. Bogotá: Universidad Nacional de Columbia.
- LEMA, MARGARITA (2014). *La reforma sanitaria en España: Especial referencia a la población inmigrante en situación administrativa irregular*. Eunomía. Revista en Cultural de la Legalidad, nº 5, septiembre 2013 – febrero 2014, pp. 95-115.
- PAZOS MORÁN, MARÍA (2013). *Desiguales por ley. Las políticas públicas contra la igualdad de género*. Madrid: Los libros de la catarata.
- PÉREZ OROZCO, AMAIA (2007). *Cadenas globales de cuidado*. El Instituto Internacional de Investigaciones y Capacitación de las Naciones Unidas para la Promoción de la Mujer (UN-INSTRAW). Serie Género, Migración y Desarrollo. Documento de trabajo 2.
- PÉREZ OROZCO, AMAIA (2012) *De vidas visibles y producción imposible*.
- PÉREZ OROZCO, AMAIA (2014). *Subversión feminista de la economía*. Madrid: Traficantes de sueños.
- PLATERO, RAQUEL (LUCAS) (ed.) (2012). *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Barcelona: Ediciones Bellaterra.
- QUIROGA, NATALIA (2009). Economía feminista, social y solidaria. Respuestas heterodoxas a la crisis de reproducción en América Latina, 33.
- FIDALGO, MARI, ALONSO MERINO, ALICIA, ZAFRA LIZCANO, ROSA (2014), *Renta básica de las iguales y feminismos: de la centralidad del empleo a la centralidad de la vida*, Málaga, Baladre

WEBGRAFIA

- ATH-ELE, Asociación de Trabajadoras de Hogar de Bizkaia – Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartea: Estadísticas 2014. Febrero 2015. <https://drive.google.com/file/d/oB9jmBjnkcuwU1N1NfcXQ1RWhCVDQ/view?pli=1>
- EKOLOGISTAK MARTXAN, Desazkundera, Paz con Dignidad, Bizilur, Coordinadora de ONGD de Euskadi, ESK, Ingenierías sin Fronteras País Vasco, REAS Euskadi y Mugarik Gabe: *Animación Decrecimiento en 1 minuto*, 2013. https://www.youtube.com/watch?v=Ypgrq_4Aj84
- GRUPO DE FEMINISMOS DE DESAZKUNDEA: *Decrecimiento feminista: reconceptualizar, reestructurar y relocalizar bajo postulados feministas*. Ponencia presentada en el IV Congreso Economía feminista. Carmona, 2013.
- <http://riemann.upo.es/personal-wp/congreso-economia-feminista/files/2013/10/Grupo-Feminismos-Desazkundera.pdf>
- Baladre: Renta Básica de las Iguales <http://rentabasicadelasiguales.coordinacionbaladre.org/>

2

ELIKADURA-BURUJABETZA⁶⁰



1. TESTUINGURUA, IKUSPEGI GLOBAL BATETIK

“Bizitza (berriz ere) sistemaren erdigunean jartzea” goiburuak hamaika alternatiba eta proposamen sortu ditu, askotariko mugimendu sozialek, antolakundeek eta bestelako kolektibo batzuek eginak. Gehienek lagundu zuten, batetik, joera patriarkal nabarmeneko sistema kapitalista neoliberalaren logikak eta dinamikak nahiz abian jarritako garapen-ereduak zalantzan jartzen eta argitara ateratzen, eta, bestetik, gure historiari bizitzan eta zainketetan oinarrituz jarraitzeko eraiki behar dugun sistema-ereduaren gakoek zein izan beharko luketen zirriborratzen eta taxutzen.

Nekazaritzako elikagaien sistemak mundu-mailan daukan eraketa sistema kapitalistaren nazioartekotzeak eragindako inpaktuaren isla izan daiteke. Eredu agroindustrialaren sare bat da, hainbat arlo barne hartzen dituena, hala nola industria, finantzak, politika, zuzenbidea, komunikazioa, hezkuntza, kultura, eta abar. Matrize konplexu bat da, bere berrekoizpena eta hegemonia bermatzen dituena eta, aldi berean, bera ulertzea eta gainditzea zailago bihurtzen duena. Mundua “elikatzeko” eredu bideragarri bakartzat nagusitu nahi du maila globalean, bere ondorio ezin txarragoak ezkutatzuz –hala nola biodibertsitate-galera, naturako ondasun komunen kutsatze, pribatizazio eta harrapaketa, giza osasunaren gaineko inpaktua, nekazari eta herrien ezagutzaren eta kultura-aniztasunaren galera, egunero elikatzeko erabat transnazionalen mende egotea, eta abar– eta bestelako nekazaritza-eredu oro posible eta bideragarri ez izateko baldintza objektibo eta subjektiboak ezarriz. Hartara, nekazaritzaren munduaren mugak gainditzen dituen nekazaritza-eredu bat dugu aurrean, herritarren bizitzaren hainbat dimentsiori eragiten dion, herriek beren lurraldeen gainean duten burujabetza ezabatzen duen eta, gainera, planetan biziaren ugalketa arriskuan jartzen duen eredu bat.

Hainbat hamarkadatan, nekazari-mugimendua –nagusiki– proposamen bat eraikitzen saiatu da, teoriarik zein praktikan, aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoa eragiteko, herrien elikadura-burujabetza oinarri eta helburu hartuta. Elikadura-burujabetza eraikuntza politikoa, internazionalista, soziala, popularra, zientifikoa, eta abar da. Eskubide bat da, eta borrokatzeko estrategietako bat, landa-eremuan kapitalismoak aurrera egitearen aurka nahiz kapitalismoaren beraren agerpen diren askotariko zapalkuntza-eren aurka.

Paradigma berri baten eraikuntza kolektibo eta progresibo horretan, emakume nekazarien mugimenduak eginiko ekarpen-lanak zenbait argipen eta ekarpen mahaigaineratu ditu, errea-

litate hori genero-ikuspegitik interpretatzeko funtsezkoak. Pamela Carok⁶¹ dioenez, zaindu eta egiaztatu behar dugu elikadura-burujabetzaren proposamena benetan emantzipatzailea izan dadin emakumeentzat. Landa-eremuko eta nekazaritzako testuinguruak genero-berdintasunik ezeko eta patriarkatuaren nagusitasun handiko testuingurutzat identifikatu dira. Horregatik, begirada zorroztera bultzatzen gaitu, halako espazioetan boterea eta erabakiak hartzeko prozesua nola dauden banaturik ikusteko, eta ekoizpenaren eta berrekoizpenaren alorren artean dauden dikotomia eta desparekotasunak hausteko.

Paradigma honen proposamen emantzipatzailea ulertzeko, lehenik eta behin, nekazaritzako elikagaien sistemak egun dauzkan egitura, eragileak eta dinamika erakutsi behar ditugu, bai eta sistema hori gidatzen duten logikak ere.

Agronegozioaren eredua, batetik, eta elikadura-burujabetzaren eredu agroekologikoa, bestetik, aurrez aurre jartzean, agerian geratzen da munduko elikadura eta gosea sistemak sortutako arazo politiko bat direla. Hain zuzen ere, beharrezkoa eta ezinbestekoa izanik eta eskubide unibertsaltzat eta babestu beharreko ondasun komuntzat ulerturik, elikadura borroka-eremu bihurtu da. Nekazaritza sektore estrategikoa da edozein herrialderentzat, elikagaien ekoizpenaren eta hornikuntzaren sorburua izateaz gain, garrantzizko rola daukalako lurraldearen, biodibertsitatearen nahiz ingurumenaren kudeaketan, bai eta lurraldeari loturiko identitate- eta kultura-gaietan ere.

Bestalde, nekazaritza-politikek nekazaritzako elikagaietarako sustatzen duten eredua oinarritzen da espekulazioan, produktibismoan, lan-esplotazioan, ondasun komunaren pribatizazioan, interes pribatuan eta, azken batean, korporazio handien negozioan.

Negozio kapitalista neoliberalaren ideologian oinarri hartuta taxutzen dira politika horiek guztiak, eta haiexen mende egoten da elikadura maila globalean: elikagaiak nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza intentsibo, produktibista eta industrialetan ekoizteko eta eraldatzeko ereduak; petrolioaren mendeko elikagai-ekoizpena; protagonistatzat azalera handiko saltokiak eta enpresa handiak dauzkan merkaturatze-mota; desparekotasunak sakonago egiten dituzten legeak, lan-banaketa desberdina eginez gizonen eta emakumeen artean eta Iparraldearen eta Hegoaldearen artean; elikagai-sektorearentzat funtsezkoak diren ondasun publikoak pribatizatzen dituzten politikak (ura, lurra, haziak, ezagutza), finantza-kapitala ekoiztera bideratuta, ez elikagaiak ekoiztera.

Azkenik, erakundeetatik, mundu-mailan nekazari-bizitzaren ereduari sustagarria eta ospea kendu dizkion ideologia, kultura eta hezkuntzako aparatu guztia dago, elikadura-mendekotasun espekulatiboaren beste eredu hori haren ordeztatzeko: eredu globalizatu egin da.

Elikadura-mendekotasuneko eta elikadura-segurtasunik ezeko egoera larriagotu egin da, munduko egituran eta dinamikan estatus gairik botere-instantziak eratu ahala, Estatuak bere politikak korporazio multinazionalen eta finantza-erakundeen “ongizatera” birbideratzen dituen bitartean, eta ez nekazariarentzat eta kontsumitzaileentzat onura ekartzera. Demokratikoki hautatu ez diren boteregune horiek –haien artean, Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA), Munduko Bankua (MB) eta Nazioarteko Diru Funtza (NDF) nabarmentzen direla– bultzatzen dituzten politika eta legeak pertsonen egiazko interes eta beharrezanetatik gero eta

61 *El libro abierto de la Vía Campesina: Celebrando 20 años de luchas y esperanza.* (2013) Vía Campesina.

urrunago egoten dira, baina, era berean, planetak dituen beharrezanetatik eta behar dituen zainketatik gero eta urrunago ere. Erakunde horiek presioa egin dute herrialde guztiek, pixkanaka, beren herritarren elikadura-beharrezanak asetzera ziurtatzen zuten politika publikoak desegin ditzaten. Hamarkadetan zehar, Egiturazko Doikuntzarako Planek nekazaritza-politika nazionalak esportaziora berrorientatzera behartu eta behartzen dituzte, eta monolaborantza, langileen esplotazioa, nekazaritzarako gastu publikoaren murrizketa eta merkataritza libreko tratatuen inposaketan aurrean amore-ematea sustatzen dituzte. Horra hor, aurrerabidearen, garapenaren eta merkatuaren izenean, boteregune horiek inposatu dituzten errezeta klasikoetako batzuk. Argi dago, gainera, herrialde bateko araudi higieniko-sanitarioak aldatzen direnean, beti sustatzen dela industria-interesak edo bioteknologiaren interesak heda daitezen, era jasanezinean ekoiztiko elikagaiak sartzeko (behi-azienda hormonatu eta medikalizatuaren haragia edo GEO⁶² ikaragarriak, esaterako), naturaren, animalien eta pertsonen eskubideak horretarako traba izan gabe.

Egoera horrek ondorio larriak sortzen ditu nekazariarentzat planeta guztian, landa-eremuko biztanleen, oro har, eta milioika nekazariren bizi- eta lan-baldintzak pobretuta, baita nekazarien eta ustiategi txiki eta ertainen nekazaritza desagerrarazita ere. FAO⁶³ erakundeak berak aditzera eman zuenez, 2009an bazeuden 1.000 milioi pertsona gose eta malnutrizioko egoeran, eta 2015erako aurreikuspenak guztiz lazarriak ziren, elikagaien eta erregaien prezioen espekulaziozko igoerengatik. Landa-eremuko populazioek—Hegoaldeko herrialdeetan, batik bat—bizi eta bizi izan dituzte zuzenean ondorioak, elikagaien gainezkoizpena (neurri handi batean, badaezpada kalitatea duten elikagaiak) nabarmentzen den gure historiako une batean, hain zuzen; alabaina, halako elikagaien helmuga Iparraldeko herrialdeetako biztanleen sukaldeetaraino bidaiatzea da. Kontsumitzen dituen elikagaien % 5 baino ez du ekoizten “Iparralde Global” horrek.

XX. mendean, ongizatearen gizartearen goraldian, hiriak aurrerabidearen paradigmen guztiak bilakatu ziren; hala, baliabideak zein zerbitzuak zentralizatu zituzten, eta neurritik kanpo hazten hasi ziren. Hazkunde horren ezaugarria izan da landa-eremuko biztanleen zati handi bat hura utzi izana, landa-inguruneak eskainitakoez bestelako lan-aukera eta/edo bizimodu batzuen bila. Nekazari-exodo hori erabakigarria izan da agronegozioak protagonismoa bereganatzeko, gure elikaduraren ustezko bermatzaile gisa. Aldi berean, exodo horrek ekarri du erakundeek landa-eremuan zerbitzuak eta baliabideak murriztu eta minimiza zituzten, eta munduko alde batzuk guneetatik urrun eta loturarik gabe utzi dira.

Koiuntura horretan, elikadura-eredu nagusi eta globalizatuak desberdin eragiten die gizon eta emakumei, instantzia guztietan ezarritako genero-sistema eta nekazaritza-politiken diseinuaren joera patriarkala direla-medio. Urretabizkaia eta de Gonzalo egileek diotenez, baita jarrera kritikoenetatik ere, politika publikoek sustaturiko ekoizpen-ereduan eragiteko eta hura aldatzeko zuzenbide-esparruak berrikusten direnean, hori genero-ikuspegia gehitu gabe egiten da. Horren ondorioa da emakumeek nekazaritzari dagozkion politiketatik baztertuta jarrai dezaten eta, are okerrago, politika horiek eraldatu nahi dituzten aldarrikapenetatik ere baztertuta gera daitezen askotan (2012: 12). Jakina, zuzenbidearen eta legegintzaren aparatua ez da bitarteko bakarria emakumeek sektore honetan egiten dituzten ekarpenak nahiz daukaten ezagutza

62 Genetikoki eraldatutako organismoen siglak.

63 FAO (2009) “El número de víctimas del hambre es mayor que nunca”, hemen: http://www.fao.org/fileadmin/user_upload/newsroom/docs/Press%20release%20june-es.pdf

ikusezin bihurtzeko; izan ere, badira hainbat sinesmen eta praktika, haiek nekazaritza-munduan zein elikagai-eraldaketaren munduan egindako lanaren balioa gutxietsi dutenak.

Joera eta ibilbide berberen bidetik joan da, Europako nekazaritzaren egoera. Nekazaritza Politika Erkideak (NPE) goian aipaturiko gidalerro neoliberaleri jarraitu die, eta Europako nekazaritza-sektorean ekoizpen-eredu agroindustrialia ezarri du. Hala, bada, lur-pilatzea, biodibertsitate-galera, sektorearen zahartzea –belaunaldi-ordezkatzerik gabe– eta emakumeek lurren titulartasuna eskuratzeko eta lan-eskubideak erabiltzeko izaniko zailtasunak izan dira Europako nekazaritza-egoera horren irudia osatu duten ezaugarri nagusiak, eta egoera horrexek, hain zuzen, eragin du landa-eremuak utzi izana eta hirietara migratu izana. Europako Nekazarien Koordinakundeak (CPE) aditzera eman du minutuero nekazaritza-ustiategi bat desagertzen dela European.

Egoera zailagatik ere, ezin ukatuzkoa eta goretsi beharrekoa da nekazariak erresistentziarako eta borrokarako duten ahalmena; izan ere, munduko biztanleen % 60 nekazari edo baserritarrak dira oraindik ere (lur-lantzaileak, arrantzaleak, artzainak...), eta haietatik % 70 emakumeak dira, hain zuzen ere. Tokiko nekazarien nekazaritza xeheak munduan kontsumitzen diren elikagaien % 70 ekoizten jarraitzen du; hau da, emakume nekazari xeheek planeta elikatzen jarraitzen dute.

Nekazarien jakintzaren bidez, lurrarekin harreman bat eraikitzen da, haren mugen errespetuan oinarritzen dena eta haren biodibertsitatearen orekan laguntzen duena, eta irakasten digu ondasun komunak unibertsalak direla, ezin direla pribatizatu, eta “balioa” eta “prezioa” ez direla gauza bera. Nekazarien jakintza gai izan da atzemateko eta aditzera emateko elikadura-sistemak ez dituela behar legeen eta politiken aldaketak bakarrik, baizik eta ezinbestekoa dela, horrez gain, errotiko aldaketa bat gertatzea printzipioetan eta balioetan, bizitza erdigunean jartzeak kapitalismoaren eta patriarkatuaren oinarriak “errotik” zalantzan jartzen dituela agerian utzita. Bizitza erdigunean jartze horretan –bizitza zentzu zabalean ulerturik, pertsonena ez ezik, planetako gainerako izaki bizidunena ere bai– ari da elikadura-burujabetza topatzen, hain zuzen, beste paradigma alternatibo batzuk, hala nola ekofeminismoa, ekologia politikoa, desazkundera edo ongi bizitzea, besteak beste. Horrela, elikadura-burujabetzaren paradigma munduan milioika pertsona eta kolektibo antolatzen eta elkarrizketan jartzen ari diren proposamenetako bat izan da.

Elikadura-burujabetza nekazariak sistema kapitalista neoliberalari emandako erantzun bat da, 1996an sortu zena, La Vía Campesinaren barruan. Ordutik igaro diren ia 20 urte hauetan, mirestekoa izan da proposamenaren garapena, munduko jende askoren beharrian eta interesekin ongi etorri delako, eta ez bakarrik nekazarien artean; izan ere, gizarte-mugimendu, GKE, unibertsitate eta erakunde publiko ugari bere egin du. Elikadura-burujabetzak eztabaida asko piztu ditu hura garatzeko behar diren prozesu guztien inguruan, eta, nahiz eta eztabaida ez itxita, ez bukatuta, ez dagoen, proposamena autonomiaren, jasangarritasunaren, ekitatearen, birbanaketaren eta justiziaren printzipioetan oinarritzen da. Printzipio horiek berekin dakarte jarduteko modua kolektiboa eta parte-hartzezkoa izatea; bestela, proposamenak baztertzailea eta ez-holistikoa izateko arriskua du.

Etxaldek bere dokumentuetan dioenez:

“ Elikadura-burujabetzak munduko nekazari bakoitza onartzen eta errespetatzen du, eta herritarren aurrean zentraltasuna eskaintzen dio. Elikadura berriro tokiko eginez, nekazariak beren lanaren zentzua berreskuratzen dute, eta gizarte-legiti-

mitatea lortzen dute. (...) Nekazaritza jasangarriaren balio nagusia autonomia da: erabakitzeo autonomia, nekazariak ez daitezen agroindustriaren esklabo izan: autonomia tekniko eta ekonomikoa; nekazariak ekoizteko sistemarik eraginkorrenak aukeratzeko, haien lana behar bezala ordaindua izan dadin.

2. EUSKAL HERRIKO TESTUINGURUA

Maila globalean nekazaritzako elikagaien sistemak izandako eraketari buruz deskribatu dugun egoera guztiak Euskal Herrian ere lur hartu du ezinbestez, eta, beraz, sistema horrek eraginiko ondorioetako asko hemen ere zertu eta bizi izan dira, genero-berdintasunik ezari lotutakoak barne.

Jakina, Euskal Herriko nekazari-mugimenduaren zati handi batek emandako erantzunak ere sendoak izan dira, eta funtsezko eragile bihurtu da eredu nagusia iraultzeko behar diren eredu agroekologikoari eta elikadura-burujaitezari buruzko eztabaidetan. Hala, ulertu da elikadura-burujaitezaren lana nahiz haren eraikuntza prozesu eta sare gisa pentsatu behar direla, nazioarteko beste nekazari-mugimendu batzuekin batera antolatuz, erantzun globalak sortze aldera, baina tokiko erantzun propioak eta gure lurralde eta identitateetara egokituak ere bai.

1970eko hamarkadan, industrializazioaren eta iraultza berdearen prozesuek euskal nekazaritza-kultura desagertzea lasterragotu zuten, eta nekazaritza-sektorearen desegituraketa sakona eragin zuten, joera horrek gaur egun ere jarraitzen duelarik. Estatu Espainola 1986. urtean Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) sartu zenean, Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) hartu zen, mendi-nekazaritzako eskualdeen kaltetan, eta Euskal Herriko nekazaritza-lurren zati handi bat eskualde horien barruan dago, hain zuzen. Esan dezakegu, lurzuaren erabileraren aldetik lehia handiegia daukan lurralde txikiegia izatearen zama historikoa honako hauen bidez areagotu zela: MMA, MB eta NDFren eta EBren politikak Estatu Espainolean indarrean sartzean, eta lurraren gaineko espekulazioa gehitzean eta lurra nekazaritzakoak ez ziren helburuetarako erabiltzean. Azpiegitura handiak, AHT kasu, edo haustura hidraulikoko tekniken bidez gas ez-konbentzionala erazteko (fracking) lurra metatzea mehatxu handiak dira orain arte iraun duten familia-ustiapen txikiak eta, areago, tamaina handiagoko ustiapenak gorde eta existitzeko.

Horrela, eredu desarrollista Euskal Herriko egitura eta erakundeetan barneratuz joan da, eta, horrenbestez, gaur egun aurrez aurre daukagun ereduaren araberrako legedi oso bat egituratuz joan dira erakundeok. Baserriko eredu edo bizimodu tradizionala, berezkoa Euskal Herriko isurialde atlantikoko landa-eremuetan, autonomian eta buruaskitasunean oinarrituriko eredu gisa definitu izan da, bai eta, jakina, gaur egungoak baino errespetu eta jasangarritasun handiagoko elikagaiak ekoizten duen eredu gisa ere. Iragana idealizatu nahi izan gabe, eta nekazaritza-munduan hainbat desparekotasun txertaturik egon direla eta errepikatu direla —emakume eta gazteekin, esaterako— alde aurretik argituta, hemen nabarmentzen dugu gaur egun agronegozioaren ereduari aurre egiteko behar ditugun funtsezko zenbait osagai biltzen zituela baserritarren ereduak.

Tokiko oinarriko ekonomia tradizionalak pixkanaka desagertu dira gure ingurunetik, bai eta, haiekin batera, gure herriaren berezko kultura-balio eta gizarte-sare asko ere. Euskal Herriko landa-munduaren desagertze horren zati batek badu zerikusia industrializazioarekin; azken horrek, hain zuzen, baserriko edo landa-ingurunekeo bizimodua etorkizun nahigarria ez izatea

eragin zuelako. Hala, landa-munduaren eta hiri-munduaren arteko banantzeak lurrari eta elikagaiak era jasangarrian ekoitzi eta eraldatzeari loturiko ezagutzaren nahiz balio ugariaren galera ekarri du berekin. Landatik hirirako exodo-prozesu horretaz geroztik, nekazaritza-ustiategien kopurua nabarmen gutxitu da. Geratu ziren ustiategiak, testuinguru berrira egokitzearen eta irautearren, Europako Nekazaritza Politikak ezarritako biderei lotu zitzaizkion.

Hala, gaingiroki azalduta, sektore zahartua aurkitzen dugu, belaunaldi-ordezkatzerik gabekoa, eta neurri handi batean zorpetutakoa, gehiago ekoitzi nahian. Tokiko merkatua, barnekoa eta zuzenekoa, galtzea izan da nekazaritzako elikagaien sektorean nagusitu diren ezaugarrietako beste bat, ekoizpena esportaziora bideraturik baitzegoen. Esportaziorako orientazioak eragin handia izan du ekoizpenaren jardunbideetan: ustiategi intentsiboak eta dibertsifikazio gutxi-koak; erositako haziak erabiltzea (tokiko barietate asko galdua ondorioz); elikagaien prezio oso txikiak; kanpoko sargaiekiko mendekotasun handia (ekoizpen-kostuen igoera); eta energia-konsumo zein CO₂-ekoizpen biderkatuak, bai eta hondakinen kudeaketa eskasa ere. Nahiz eta egia den, lurraldearen arabera, munduko beste toki batzuetan baino askotarikoagoak diren nekazaritza-ekoizpenak ikus daitezkeela, ez gara libratzen nekazaritza-politiken izaera neoliberaletik.

Euskal nekazari-munduaren “desegituraketa” horren eragiletzat identifikatu diren politiken artean, beste bat izan da landa-munduaren barruan turismoa sustatzeko joera, Euskal Herriko paisaiei buruz bertso folklorikoa eta aldaketarik gabekoa eskainirik.

Horrekin batera, eta emakumeak nekazaritzako jardueretan bete-betean engaiatuak egon diren arren, joera izan da haiek lurretik eta elikagai-ekoizpenetik urruntzen dituzten lanak sortzea landa-munduaren barruan.

Gehitu behar da, landa-eremuko lanaren kolokatasunaren ezaugarriak osatzeko, Euskal Herriko ekoizleek ahultasun-egoeran izan direla elikakatearen barruan, negoziatzeko ahalmen txikiarekin eta bitartekariak irabazi-marjina handienen “harrapakari” gisa. Horren guztiaren isla da elikagai-ekoizpena gero eta nekazari gutxiagoren artean kontzentratzea –nekazari horiek, era berean, banaketa-enpresa handien interes komertzialen mendekotasun handiago dutela– eta nekazaritza-ustiategi ugari desagertu izana, horrek dakarren galerarekin, ezagutzen, tokiko espezieen, eta nekazaritzako enpleguaren aldetik, tokiko ekonomiak desegituratzeaz gain: tokiko azokak, elikagaien eraldaketaren inguruko ekonomia, eta abar.

Gonzalo eta Urretabizkaia⁶⁴ egileek, NPEko laguntzak eskuratzeko lerroak aztertuta eta elkarriketetan oinarrituta, azaltzen dutenez, Euskal Herriko emakume nekazarietzat ez da egon berdintasunezko harremanik, ez eta genero-ekitatearen alorrean haiek sustatzeko neurri politikorik ere. Hala, bada, ikusten dugu, nekazaritzako errentak apalak izanik, emakumeenak, gainera, senarren errenten mende zeudela, legeen aldetik zein praktikaren aldetik. Laguntzak jasotzeko baldintza ustiategiaren titulartasuna edukitzea izan da, eta azken hori, gehien-gehienetan, gizonetzkoen esku zegoen. Oro har, eta egile horiek aditzera ematen dutenez, emakumeek beti tamaina txiki eta ertaineko ustiategietako lana eta kudeaketa eraman dute aurrera, eta ustiategi intentsiboagoak (lur-azalera edo abelburu-kopuruz), aldiz, gehienbat gizonek gobernatzen zituzten. Urte gutxi direla onartu zen azkenik Kongresuan, aho batez, Nekazaritza Ustiategien Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea, estatuan nekazari-antolakundee-tan engaiatutako eta militante ibilitako emakume askoren aldarrikapen historikoei erantzunez.

64 Las mujeres baserritarras: análisis y perspectivas de futuro desde La soberanía alimentaria. (2012) Baserripress S.L.

Bizitza, ekonomia, politika eta gizartea antolatzeko era bakarra dagoen ideiarene aurrez aurre, euskal nekazari-mugimenduaren zati batek, sindikatueta antolaturik (kasurako, EHNE-Bizkaia Hegoaldean eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) Ipar Euskal Herrian), eta elikadura-burujabetzak erakusten dute badirela alternatibak.

Proposamena prozesu gisa ulertu behar den uste osoarekin, urteak eman izan dira elkarrizketa ezartzen nekazaritzako elikagaietarako ereduak aldatzearekin konprometituago dagoen nekazaritza-sektoreko zati horren eta gizarte zibileko beste antolakunde batzuen nahiz, oro har, euskal herritarren artean; aldi berean, nazioarteko beste mugimendu batzuekin batera antolatzeari ekin zaio. Ipar Euskal Herrian jarraitu zaion ildo estrategikoetako bat izan da nekazaritza jasangarria sustatzeko jarduerak bultzatzea, ustiatzietako ingurumenari eta energiari buruzko diagnostikoetan laguntza ematea, eta baserriarrei administrazio-gestioetan eta prestakuntzan laguntzea, nekazaritza-politika publikoen jarraipena egiteaz gain. Hori egiteko, saiatu dira lurraldearen ikuspegi orokor batetik jardutea, lurra bitarteko bat edo espekulatzeko lurzorua bakarrik balitz bezala ulertu gabe, baizik eta arlo sozioekonomikoari, ingurumenari, identitateari eta ekoizpen-eskubideen bidezko banaketari lotutako alderdiak aintzat hartuz.

Elikadura-burujabetzaren paradigmak gazte asko erakarri ditu, eta gazteok, ondorioz, bide berrietatik jo dute beren bizitza-ibilbidean, nekazari-oinarri berria sorturik horrela. Lehen sektorean kokatzen diren profil berri horien ezaugarriak profil tradizionalen bestelakoak dira. Nekazaritzara itzultzeko prozesu berri honen profilak gehienbat hiri-ingurunean du jatorria, nekazaritza-arloarekin zerikusirik ez duen prestakuntza unibertsitario edo teknikitik dator, baina bere bizitza-ibilbidean –eta beste gizarte-mugimendu batzuetan parte-hartzearen ondorioz, sarritan– elikagai-ekoizpenaren munduan sartzeko pausoa eman du. Orain kontua da gazte horiek ere, gizon eta emakume horiek, garrantzizko rola har dezaten sareen eraketan, politika publikoetan eragina izan dezaten, eta, norberaren ustiatzietan martxan jartzeaz gain, Euskal Herrian urte batzuk badirela elikagai-burujabetzaren alde bultzatzen ari diren antolakunde eta prozesu kolektiboetan engeia daitezten eta haiekin bat egin dezaten.

Azkenaldi honetan, eragile berri bat sortu da: Etxalde.

“ Subjektu berri honen *“xedeak da honako hauek biltzea: baserriarrak (erdigune gisa); ekoizpenarekin zuzeneko loturarik ez duten arren, elikadura-burujabetzarantz aldatzeko prozesu baten alde egiten duten beste pertsona batzuk; eta prozesu horren aldeko apustua egiten duten kolektiboak (gizarte-mugimenduak, sindikatuak, kooperatibak)”*.⁶⁵ Goraka ari den subjektu honek Euskal Herrian elikadura-burujabetza ezartzea dauka bere agenda politikoan, eta bokazio kolektiboa du, proposamenak eta eztabaidak bideratzekoa, nazioarteko erreferentzia bihurtuta horrela. Eta horren frogak da Euskal Herria hautatu izana La Vía Campesinaren Nazioarteko VII. Biltzarra egiteko 2017an, eta EHNE Bizkaia, biltzarreko anfitrioiatza. Biltzar hori munduko mugimendu sozial handienaren organo gorena da, erabakiak hartzeko eta agenda komuna osatzeko.

3. MAILA POLITIKO-ESTRATEGIKOKO ALDARRIKAPENAK

Hasieran esan dugunez, nekazaritzako elikagaien sektorea borroka-eremu bihurturik daukagu, eta horrek zuzeneko ondorioak izan ditu gutariko bakoitzarengan: aspalditik burujabeak

65 Baserri Bizia, 54. zk., 2014: 7. orrialdea.

izateari utzi diogu zentzu askotan, elikaduran ere bai. Gizarte-mugimenduetan argi dugu tokiko erakunde publikoak funtsezkoak direla prozesu horretan; izan ere, eragin handia izan dezakete lehen sektorean inpaktu handia duten politika publikoetan, hala nola birkalifikatzeetan, udal-lurzoruaren erabileran, desjabetzeetan, azpiegituretan, zerbitzuetan, azoketan... besteak beste.

Aldezten dugun proposamena da erakundeak landa-ingurune bizia eta duina sustatu eta bultzatzeko bermatzaileak izan daitezen, ez bakarrik lehen sektorea edo nekazaritza-sektorea bultzatzeko politika batzuekin, baizik eta politikaren arloko neurri-multzo bat eratuz, oinarrizko baliabide eta zerbitzuak bermatzeko moduan, ingurune horretan bizi diren herritarren aisialdia barne. Neurri horiek gazte-jendea geratzea ziurtatu behar dute, eta biztanle berriak landa-eremuetan kokatu nahi izatea, gizartea modu horretan dinamizatze aldera. Helburua da landa-eremuko bizitza duintzea eta balioz hornitzea, era kolektiboan pentsatzea zein espaziotatik (hezkuntza, osasuna, aisialdia eta astialdia, etab.) eta zein modutan berreskura eta berreraiki dezakegun irudi berri bat landa-eremuetan bizitzearen esperientzien inguruan, administrazio eta/edo erakundeek, ikuspuntu zabal eta integral batetik, abiarazi nahi dituzten proiektu eta prozesuei sendotasuna emateko.

Bide hori egiteko, oinarri batzuk ezarri behar dira eta gure bide-orria zein den zehaztu, politika publikoei dagokienez. Horregatik, alternatiba horien eraikuntza kolektiboa proposatzen dugu, erakunde publikoen eta nekazari-mugimenduaren artean, baina gai hauetan funtsezkoak diren gizarteko beste eragile batzuk ere barne hartuta. Premisetako bat da Ekonomia Sozial eta Solidarioa bultzatzen duen logika batetik abiatzea. Logika horrek parte-hartzean eta prozesuen gardentasunean oinarriturik egon behar du, ardura berezia jarriz bai emakumeen parte-hartzean, bai ahultasun-egoeran dauden populazio-sektoreen parte-hartzean bultzatzeko. Parte-hartze erreala hori ziurtatzearen, eta benetako berdintasuneko testuinguruak sortzeko helburuz, lan-ardatz guztiek eta instantzia publikoetatik datozen neurri guztiek genero-ikuspuntutik garatu behar dira, eta, beraz, premiazkoa da berriazko aurrekontuak esleitzea neurri horiek gauzatzeko.

Horretarako, interesgarria litzateke alde aurreko azterketa egitea nekazaritzaren eta landa-eremuen inguruko legeei buruz nahiz udal-mailan dagozkien aurrekontuei buruz, neurri horiek gizonen artean eta emakumeen artean modu berezian izaniko inpaktua zehazten saiatuz. Emandako argudioen ildotik, diagnostiko horietan parte-hartzea zenbat eta handiagoa izan, hainbat harreman-oinarri handiagoa eraikitzen da inguru bakoitzean eta eskualde bakoitzean lan egiteko, elikadura-burujabetza ezartzeko prozesua behetik eraikitze aukerarekin. Azken urteetan, esperientzia asko ikusi ditugu, non udalerrri ugari eraldaketa-prozesu horrekin bat egin duen. Gure aburuz, badira ardatz batzuk, ezinbestekoak direnak gure lurraldeetan elikadura-burujabetza ezar dadin bultzatzeko.

Ardatz hauek proposatzen ditugu lantzeko:

- Lur eta ondasun komunak.
- Ekoizpenaren eta eraldaketaren sektorea; sustapena, gazteak sektorean kokatzea, arau higieniko-sanitarioak.
- Merkaturatzea.
- Kudeaketa publikoa: erosketa publikoa, jantokiak, elikagai-banku publikoa eta udal-zerbitzuak.

3.1. Lur eta ondasun komunak erabiltzeko aukeraren inguruan

Lurra ezinbestekoa da elikadura-burujabetzarako

- a. Lurralde-antolamenduko planen barruan⁶⁶, lurra ezinbesteko ondasun komuna den ideia nagusia sustatzea, bai eta kalitateko elikagaiak sortzen dituen eta transgenikorik ez daukan nekazaritza baten aldeko apustua ere.
- b. Lurzoruaren erabilerak nekazaritza-erabilera ez hipotekatzeko moduan planifikatu eta arautzea, erabilera hori errealia izan zein potentziala izan. Gaur egun, nekazaritza-sektoreak kudeatzen duen azalera 220.523 ha da, eta azken hamarkadan murrizketa kezka-garria ikusi da; hiri, industria eta azpiegiturei lotutako erabilerek haranaren beheko aldeak zein nekazaritzan jarduteko lur egokienak okupatu dituzte pixkanaka, eta nekazaritza mendira bultzatu dute.
- c. Parte-hartzezko mekanismoak sartzea eta erabiltzea, bizitzeko behar dugun lurraldea pentsatzeko: zer lurzoru-erabilera behar duten herritarrek, gorde behar ditugun ondare naturalen eta herritarrentzako erabilera sozialen arteko oreka bilaturik.
- d. Lurra erabiltzeko aukera sustatzea nekazaritza-lurren bankuaren bidez⁶⁷, lurraldean oinarritutako nekazaritza-jarduera profesionala aurrera eramateko lurzoru behar duten pertsonen lurzoru horren eskuragarritasuna bermatzeko; horrela, nekazaritzarako edo abeltzaintzarako egokia den lurra galtzea edo bertan behera geratzea saihesten da.
- e. Emakumeek lur-funts eta -bankuak erabiltzeko aukera izan dezaten sustatzea, eta, gainera, ekimen horiei aholkularitza-neurriekin laguntzea, hainbat arlotan: titulartasun-legeak, prestakuntza hartzea, familia eta lana bateratzeko neurriak, eta laguntzak eskuratzeko, besteak beste.
- f. Frackingari lotutako prospekzio eta azpiegituren aurkako jarrera agertzeko adierazpenak egitea eta logika berari atxikitako beste udalerriekin aliantzak ezartzea; izan ere, landa-eremuko ekonomiak arriskuan ezarri ez ezik, landa-eremuko biztanleen bizitzari ere erasaten diote oro har.

Ondasun komunak

Hemen, elikagaiak ekoizteko jarduerekin zuzeneko harremana duten ondasun komun batzuk nabarmentzen ditugu: ura, biodibertsitatea, ezagutza eta zainketak.

Ondasun komunak babesteko politikei dagokienez, ezarri beharreko oinarria da kudeaketa hori kolektiboa eta parte-hartezkoa izateko beharra. Eztabaida zabalagoa ezarri beharko litza-teke ondasun komunaren kudeaketa-erari eta gobernantzari buruz, herri eta lurralde burujabeagoak lortzera bideraturik, zentzu integralean, ez bakarrik elikagai-gaietan.

66 Lurralde-antolamendua funtzio publiko bat da, funtsezko helburutzat eskualdeen garapen sozioekonomikoa eta oreketa, bizi-kalitatearen hobekuntza, baliabide naturalen kudeaketa arduratsua, ingurumenaren babesa, eta lurraldearen erabilera arrazionala dauzkana. Egungo antolamendu-politikekin, EAEK urtero 700 futbol-zelairen pareko azalera bat galtzen du nekazaritza-lurzorutik, besteak beste, lurzoruarekin egiten den espekulaziozko merkatuagatik.

67 Diputazio batzuek, Bizkaikoak kasu, lur-banku horiek abian jarri dituzte. Udaletan, Zeberion lur-funts baten esperientzia egin da, gazteei lurrok erabiltzeko aukera errazago jartzeko. Udal horrek lur publikorik ez daukan arren, bitartekari-lana egin du lurzoru pribatuaren eta pertsonen artean, tokiko ekonomia nahiz lehen sektorearen garapena sustatze aldera. Interes handiko beste esperientzia bat Zeraingoa izan da; hain zuzen, lurren erosketak publikoak egin da, elikagaien ekoizpen jasangarriaren zerbitzura jartzeko.

Ura

Uraren kultura berriaren⁶⁸ proposamenen harira, ildo estrategiko behinenak hauek dira:

- a. Ura ondasun komun gisa defendatzeko ideia sartzea.
- b. Ur-eskaintzan baino, eskarian presio handiagoa egiten duten ordenantzak taxutzea.
- c. Programak garatzea elikagaiak ekoizten dituzten instalazio guztiei uraren kultura berriaren inguruan laguntza eta aholkularitza emateko, uraren erabilera konprometituagoak eta jasangarriagoak sustatze aldera.
- d. Ondasun hau zaintzearekin bat datozen nekazaritzako eta abeltzaintzako proiektu agroekologikoei laguntza eta finantzaketa ematea, beren teknikak eta sistemak egokitzeko beharra dutenean.

Biodibertsitatea

- a. Tokiko biodibertsitate-ondarea babesteko udal-politikak sustatzea (haziak, fruta-arbolak, bertako arrazak, etab.).
- b. Tokiko edo bertako barietateak berreskuratzeko politika publikoak sustatzea.
- c. Sentsibilizazio-kanpainak prestatu eta bultzatzea, lurralde jakin bateko biodibertsitateari berriz balioa emateko.
- d. Tokiko barietateak berreskuratzeko helburua toki-garapenerako estrategietan sartzea.
- e. Erakunde espezializatuekin lan egitea eta/edo haiek kontratatzea, aholkularitza eman eta dinamizatzeko, bertako arraza eta tokiko barietateen zainketa eta ezagutzari buruzko ikerlan eta azterketetan.
- f. Biodibertsitatea den ondare publikoa berez aberastasun bat dela aitortzea eta defendatzea.

Zainketak eta ezagutza

Arlo publikoko eta tokiko erakundeek eginkizun hauei ekin behar diete:

- a. Tokiko nekazari-jakintza biodibertsitatearen eta jasangarritasunaren bermatzailatzat eta eraldatze-subjektutzat berriz kokatzen laguntzea.
- b. Sistema kapitalistaren joera izan da ezagutza pribatizatzea eta gure gizarteetako herri-jakintza nahiz zainketa-sistema ikusezin bihurtaraztea. Bi alderdiok ondasun komunaren artean jartzen ditugu, ezinbestekotzat jotzen ditugulako bizitzaren mantentzean eta jasangarritasunean.
Espazioak eta prozesuak sortzea nekazari-jakintzak beste jakintza batzuekin berdintasun-baldintzetan eta horizontaltasunez elkarriketan jardun dezan, irakaskuntza-maila guztietan prestakuntza eta hezkuntzarako espazioak bereganatzeko lehiatzea ahalbidetzeko moduan.
- c. Espazio horretan emakumeek parte har dezaten sustatzea, haiek bildu dituzten –eta, eskuarki, belaunaldiz belaunaldi transmititu dituzten– ekarpenak eta ezagutzak aitortuta.
- d. Prestakuntza-metodologia horizontalak erabil daitezten bultzatzea. Adibidez, Urduñako Belarraren Taldearen esperientziak, abeltzaintzaren sektorean, gogoeta oso bat sortu dute –“baserriarretik baserriararrera” deritzon metodologiaren bidez– beren ustiategiaren intentsibotasuna gutxitzeko beharraz, kanpoko sargaiak eta abelburuak gutxituz; horrela, hain zuzen, abeltzainon autonomia eta ongi bizitzea sendotu dira.
- e. Zainketetan koardura sustatzeko politikak, zainketak pertsona bakoitzak zaindua izateko duen eskubide indibidual eta besterenezintzat ulerturik, emakumeek zaindu nahi duten ala ez –eta nola– erabakitzeko duten eskubidea defendatuz, eta eskubide hori bermatuta

68 Informazio gehiago: <http://www.fnca.eu/guia-nueva-cultura-del-agua/> (2016ko otsaila)

egotea sustatuz, gizonek halaberrez ardurak bere gain hartuta, sare eta alternatiba kolektiboak eraikita, eta kalitateko zerbitzu publiko batzuk ezarrita.

- f. Espazioak eta baliabideak ezartzea eta eztabaidak sortzea, haietan zainketa horiek tokiko ekonomian duten garrantzia ikusgai bihurtzeko, bai eta formula alternatibo, kolektibo eta demokratikoak sortzeko ere, zainketaren antolaketa soziala toki-mailatik gauzatzeko.

3.2. Elikagaien ekoizpenaren eta eraldaketaren arloan

EHNE-Bizkaiaren 2014ko azken biltzarrean⁶⁹, datozen urteetarako ezarri diren lan-ildoek garrantzi berezia ematen diote *“ekoizpen-eredu autonomoago baterantz aurrera egiteari, barne-kontsumora zuzenduta, eta gure eraldatze- eta merkaturatze-egiturak norabide horretan joateko egokitzeari”*. Horretarako, ekoizpen-eredu horrek behar dituen elementuak, politika publikoek sustatu eta sendotu beharrekoak, honako hauek dira:

- a. Tokiko ekoizpen autonomoak sustatzea. Toki-mailatik aurrera eramandako ekimen txikiak bultzatzea nekazaritza-instalazioek iraun dezaten, kanpoko sargaiak murrizten lagunduz⁷⁰.
- b. Ekoizpenaren sektoreak zein eraldaketaren sektoreak eredu ekologikoetarako trantsizioa pixkanaka egin dezaten sustatzea, batez ere euskal herritarren artean gero eta interes eta eskari handiagoa dagoela hautematen den testuinguru batean. Horri dagokionez, nekazaritzaz ez ezik, gainerako sektoreez ere ari gara: abeltzaintzaz eta arrantzaz.
- c. Dibertsifikazioa bultzatzen duten ereduak sustatzea, espezializazioaren mitoa hautsiz, landa-garapenerako eredu gisa.
- d. Gaiak eta beharrianak aztertzea, lehen sektoreak eta eraldaketaren sektoreak energia berriztagarriak ezarri eta erabiltzeko eta, horrela, autonomia-maila handiagoa lortzeko behar duenaren inguruan.
- e. Elikakatearen kate-maila guztiak, azken kate-maila barne, elkarrekin lotzearen aldeko laguntza ematea funtsezko elementua da, izan ere, elikadura-burujaitez hurbiltzeko, zalantzarik gabe. Elkar lotutako lan horrek katearen mailek negoziatzeko ahalmen eta estatua handiagoak izatea eragingo du, oso agerikoa baita, elikakatearen barruan, sektore batzuk oso ahultasun-egoera handian daudela (lehen sektorea, batik bat, eta are gehiago protagonistak emakumeak direnean)⁷¹.
- f. Eskala txikiko eta artisau-erako ekoizpenekin bateragarriak diren arau higieniko-sanitarioak sustatzea.
- g. Azpiegituretan inbertsioak egiteko aurrekontu publikoak ezartzea, espazioak birgaitu edo sortzeko, haietan elikagai-ekoizpena erreala eta eraginkorra izateko helburuarekin: hiltzeak, haragia zatikatzeko gelak, poteratzeko instalazioak, eta abar, udal-mailan eta kolektiboki kudeaturik betiere.

3.3. Merkaturatzearen eta kontsumo-ereduaren eraldaketaren arloan

- a. Udalek hurbileko zirkuituak susta ditzakete merkaturatze-ereduetan. Elikadura-burujaitez aurrera egiteko, hemen ekoizten duguna hemen merkatura eta kontsumi dadin

69 Baserri Bizia, 54. zk., 2014: 7. orrialdea.

70 Larrabetzuko udalak konpostaje-proiektuarekin emandako laguntza ildo horretako adibide bat izan daiteke.

71 Zeberioiko kasua nabarmentzen dugu: 11 bazkidek kontserba-fabrika bat ireki zuten, eta udalaren laguntza izan zuten.

behar dugu. Zuzeneko salmenta hori mota askotakoa izan daiteke, feriak, azokak, kontsumo-taldeak sortzea (sortzea edo egonkorrago egitea), ekonomatuak, eta barnerako salmenta hori sustatzen duten beste eredu batzuk.

Laguntza eta bultzada ematea elikagaiak ekoizteko eta/edo eraldatzeko erari buruzko ziurtagiriak parte-hartzearen bidez emateko prozesuei, herriko edo eskualdeko ekoizleek nahiz produktu eta elikagai horiek kontsumitzen dituen tokiko herritarrek parte harturik.

- b. Elikagai transgenikoak sartzearen aurkako jarrera politikoa agertzea.
- c. Elikaduraren inguruko propaganda eta publizitate engainagarriaren aparatuari aurre egitea, mitoak gezurtatzeko eta irudi faltsuak desegiteko, pertsonen osasunerako ona eta osasungarria denari buruz. Toki-mailatik, hauek lortzeko lan egin beharko litzateke:
 1. Industriaren publizitate engainagarria baztertzea.
 2. Pertsonen tresnak eduki ditzaten ahalbidetzea, inposaturiko elikadura-eredu horiei aurre egiteko.
 3. Horrelako gaietan eragin berezia duten eragileak atzematea eta irizpide berriak ezartzeko neurriak aztertzea. Ildo horretan, esaterako, osasun-erakundeak funtsezko figurak izan daitezke. Lehen mailako arretaren eta osasun-hezkuntzaren arloan, berebiziko aukera dago herritarrekin, oro har, lan egiteko, osasun-arloko ordezkariak (medikuntza, erizaintza, nutrizioa) eta nekazari-mugimendua elkarrekin antolatuta: gomendaturiko dietak diseinatzea; eskoletako, udal-egoitzetako menuak taxutzea; birpentsatzea, osasunari begira osasungarriak bai, baina ingurumenaren aldetik halakoak ez diren inguruan (adibidez, milaka kilometro egiten dituzten fruta tropikalak).
- d. Informazioa eta ezagutza herritarrengana, oro har, hurbiltzea, kontsumoa botere-tresna gisa eta gizartea eraldatzeko tresna gisa ezarrita, eta herritarrek tokiko kontsumoa egitearen garrantzia agerian jarrita, eta EHNE-Bizkaiak 2014ko biltzarrean aditzera ematen zenez, nabarmendu behar da “kontsumoari eduki eraldatzailea emateko, pedagogia handia behar da, trantsizio hori ahalbidetzeko tresna eta egiturez gain”.

Ildo horretako neurri politikoek hauek bultzatuko lituzkete, oro har:

- Nekazariak ahalduntzea. Nekazaritzako enpleguak, gizonentzat zein emakumeentzat, errenta hobekia edukiko lituzke, kanpoko merkatuan gertatzen diren gorabeheren mende egon gabe. Gainera, nekazariok toki eta estatus berri batean kokatzen ditu elikakatearen barruan, negoziatzeko ahalmen handiagoa dutelako eta bitartekariak urruntzen dituelako. Aliantzek (herritarrekin, oro har, tokiko erakundeekin, eta nazioarteko nekazari-mugimendurekin) nekazarien gaineko ikuspegi berria sortzen dute, eta iraganean egotzitako irudia hobetzen zein nekazaritza duintzen laguntzen dute.
- Kontsumitzaileak ahalduntzea. Informazioa eta ezagutza esku artean erabiltzea ezinbestekoa da ahalduntze-prozesuetan, eta kontsumoa botere- eta eraldaketa-tresna indartsua da. Burujabeago bihurtzeko gaitasuna, elikadurari dagokionez, hurbileko zirkuituek harreman zuzena ezartzen dute, industriak sortzen duena baino, azken horretaz, gehienetan, ez baitakigu ezer. Gainera, merkaturatzea hurbiltzeko prozesu horiek parte-hartze eta berdintasun handiagokoak dira, eta kontsumoari lotutako karga politikoa berrartzea ahalbidetzen dute.

3.4. Erosketa publikoaren arloan

Familiaren eta etxearen barruko kontsumoa eta erosketa eraldaketa-elementutzat nabarmendu dugun bezala, uste dugu ezinbestekoa dela, politika publikoen bidez, honako hauek lantzea:

- a. Elikagai-erosketa publikoa elikadura-burujaletzaren irizpideak aintzat hartuz egitera behartzen edo bultzatzen duten mekanismoak sortzea.
- b. Eskoletako jantokietarako, jantoki sozialetarako nahiz udal-egoitzetarako, lizitazio- eta kontratazio-eredu publikoak garatzea, agroekologikoak eta jasangarriak diren eta kalitateko elikagaiak sortzen dituzten ekoizpenak sustatzeko moduan, hurbileko zirkuituen bidez.
- c. Laguntza ematea emakumeen parte-hartzea sustatu, eta berdintasunezko eta herritarrak ahalduentzako testuinguruak sortzeko helburua duten ekoizpen-esperientziei (ideia honen argigarritzat eman ditzakegun adibideak dira elikagaien ekoizpenean eta/edo eraldaketan diharduten emakumeen kooperatibak, titulartasun partekatua dutela frogatzen duten ustiategiak, edo titulartzat emakumeak berak dituzten ustiategiak).

4. BANAKAKO ETA TALDEKAKO ALTERNATIBAK

4.1. Lur eta ondasun komunak erabiltzeko aukeraren inguruan

1. Lur-banku eta/edo lur-funts hauetan, beharrezko mekanismoak erabiliz, sustatu behar diren **proiektuak agroekologiarako orientazio argikoak izango dira, jasangarriak eta txertatzen diren ingurunearekiko errespetutsuak, enplegu duina sortuko dute, eta komunitatea sortzearen logikarekin bat egingo dute**, eta ez enplegua eta landa-langileak sortzearen logikarekin. Ez digu balio edozein ekoizpen-ereduk; jadanik aztertu ditugu eredu industrial eta intentsiboaren ondorioak, eta ikusi egin dugu zer mendekotasun sortzen dituen eta zer suntsiketa dakarren. Elikadura-burujaletzaren arabera garatzen den edozein politikak, beraz, apustu egin behar du nekazarien nekazaritza jasangarriaren ereduaren alde.
2. Daitekeena da lurra erabiltzeko beste formula batzuek lotura zuzenik ez izatea nekazaritza jardueira profesionalekin, baina bai **ondasunen kudeaketa kolektibo eta komunalarekin** eta herritarrak ahalduentzako prozesuekin. Ildo horretan, hiri-baratzeak edo aisialdi-baratzeak sortzea elikagaiak salgaitzat jotzen dituzten logiketarik emantzipatzeko prozesuak pizten dituzte, elikagaiok balio berritatzat pentsatzeko.
3. Lurraren eta lurraldearen defentsarako eta antzeko gaietarako, antolatu behar dugu, prestakuntza geureganatu, aliantzak ezarri eragindako beste udalerrri batzuekin, eta udalek eta toki-erakundeek bultzaturiko ekintza eta aurkako agerpenekin koordinatu.
4. Ondasun komunaren kudeaketa eta defentsari dagokienez, garrantzitsua da erakundeek zein herritarrek koardura har dezaten beren gain. Horrenbestez, tokiko haziak erabiltzea, bertako arrazak, ingurunearentzako jasangarritasuna, eta uraren erabilera egokia, besteak beste, aldeztu dituzten eredu agroekologikoak izan beharko dituzte ispilutzat halakoetan kokatzeko proiektu edo prozesuek. Kontsumitzaile garen aldetik (gogoan izanik hau elementu eraldatzailea dela), gure kontsumoa horrelako ekoizpen-ereduak babestera bideratu behar dugu, aliantza gisa, eredu konbentzionaletik eredu agroekologikora trantsizioa egiten ari direnak barne hartuta.

Ondasun horiek mantentzea, sozializatzea eta erabiltzeko aukera eskaintzeko moduan egoitea, neurri berean, ahalbidetzeko jarduera zehatzak eraman behar dira aurrera. Hala, truke-erako espazioak sortu behar dira, hala nola azokak, bankuen kudeaketa edo truke-jardunaldiak (une jakinetakoak nahiz iraunkorrak), halakoak beharrezko espazio estrategikoak suertatzen direlako. Espazio horietan, besteak beste, alderdi hauek kontuan hartu behar dira: parte-hartze handiko espazioak (haien kudeaketa eta antolaketa ere parte-hartzean eta koarduran oinarritu beharko lirarteke); emakumeek zaintzaile historiko gisa dituzten rola eta ezagutzak ikusgai bihurtzea (hazien zaintzaile gisa, batik bat); ondasun horiek erabiltzeko aukera merkatuak ezarritakoak bestelako logika batekin ematea (logika sozialago, kooperatiboago eta solidarioago).

Gure kolektiboan ikaskuntza-metodologia horizontalak sartzea, Urduñako Belarraren Taldearen kasuan bezala.

4.2. Elikagaien ekoizpenaren eta eraldaketaren arloan

Elikadura-burujabetzak, erreala izateko, **ekoizpen-jardueretan eredu agroekologikoen arabera jokatzeko konpromisoa hartzen duten pertsonak** behar ditu, eredu horren alderdi teknikoei nahiz alderdi soziopolitikoei dagokienez. Eredu harrapakarien ordeztu aukeratzat aurkezten den eredu honek ibilbide historiko luzea egin du, eta manei-estilo bat baino gehiago oinarri hartuz garatu da: nekazarien nekazaritza, nekazaritza ekologikoa edo permakultura. Guztiak, desberdintasunak desberdintasun, ingurumenarentzat zein baliabide naturalentzat jasangarriagoak diren teknika batzuk erabiltzen dituzte, eta bestelako harreman bat ezartzen dute lurrarekin.

Bukatzeko, gure aburuz, nekazari-oinarri handiko eredu hori hartzea alternatiba erreala da egungo krisi ekologiko eta sozialari aurre egiteko, eta badu lotura sistema hegemonikoa zalan-tzan jartzen duten beste prozesu alternatibo batzuekin. Proposatzen diren eredu hauek, gainera, neurri handiagoan egokitzen dira emakumeen manei-estiloetara; azken horiek, hain zuzen, hurbilagoko ekoizpen dibertsifikatu batzuetaz arduratu ohi dira, eta protagonista nagusiak izaten dira elikagaien prestaketa eta eraldaketetan. Garatu ditugun puntu guztietan, ezinbestekoa da genero-ikuspegia txertatzea, eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea sartzea, haien ikuskerak eta bizipenak sartzea, bai eta haiek dauzkaten berezko beharrianak ere, abiapuntua eta iriste-puntua benetako berdintasunezkoak izan daitezen.

Horretarako guztirako, eta oinarri gisa, prestakuntzako eta aholkularitzako espazioak abiarazi eta sustatu behar dira, antolakunde adituekin aliantzak ezarririk, orientazioa emateko kokatze berriko proiektuetan zein eredu agroekologikora birmoldatzeko proiektuetan, eta pentsatzen jarraitu behar da, modu kolektiboan, zer ekoizpen-antolaketa dira lurralde bakoitzean garatu beharrekoak, tokiko populazioaren beharrianen arabera, eta populazio horren berak legitimaturik.

Eredu horretan, kudeaketa kolektiboa edo tresnen, azpiegituren eta jakintzen kolektibizazioa estrategikoa da, enpresan eta indibidualismoan oinarrituriko ereduarekin hausten duelako, baina, orobat, tamaina txikiko eta artisau-erako ustiategiek ezin ordainduzko kostu ekonomiko batzuk sozializatzea dakarrelako, ingurumenaren eta energiaren aldetik jasangarriagoa izatea eragiten duelako, eta lurralde bati lotutako ekoizpen batzuk egituratzen dituelako.

4.3. Merkaturatzearen eta kontsumo-ereduaren eraldaketaren arloan

Goian adierazi dugunez, gizartearen eraldatzen duen indartzat ulertu behar da kontsumoa.

Gure eguneroko kontsumoa ekintza politikoa da; izan ere, non erosten duzun eta zer erosten duzun, ekoizpen-eredu jakin bat edo beste bat sostengatzen eta/edo sustatzen ari zara.

Hori dela-eta, norbanako gisa, familian eta/edo kolektiboki, Euskal Herriko luze-zabalean merkaturatzeko sortu diren sare eta zirkuituetan parte hartu behar dugu, eta gure lurraldera egokitzeko moduko beste esperientzia batzuk arakatu.

Denon artean bultzatu behar ditugun bestelako kontsumo-egitura batzuk nabarmenduko ditugu hemen.

- Kontsumo-taldeak, Nekasarea kasu.
- Ekoizle eta kontsumitzaileen kooperatiba mistoak.
- Ekonomatuak.
- Ekoizpen txikiak eta eredu hori dutenak (edo eredu agroekologikora moldatze-prozesuan daudenak) sostengatzen dituzten banatzaile alternatiboak.
- Autokontsumoa.

4.4. Erosketa publikoaren arloan

Larrabetzu udalerrian, eskola publikoko jantokian ezarritako autokudeaketa-eredua nabarmentzen dugu. Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzak ekimenari bizkar eman dion arren, uste dugu ikasbide positiboak atera behar direla, eskolako aita-amek “behetik” egin duten kudeaketak agerian uzten baitu nola pizten dituzten praktika eta erabaki kolektibo jakin batzuek bai merkataritza, bai tokiko eta sasoiko ekoizpenak, eta nola laguntzen duten, beraz, komunitatea sortzen. Badaude ildo bereko beste esperientzia batzuk Ipar Euskal Herrian, eskoletako jantokien kudeaketa libreki erabakitzeko aukerarekin, erakundeen laguntzarekin; eta hurbilago, Urduñan. Urduñan, herrian bertan kokaturiko sukalde nagusi batetik eta elkarte batekin koordinatuz, eskolarako eta udal zahar-egoitzarako menuak eskaintzen dira, osasungarriak, ekologikoak, toki-koak eta sasoikoak diren elikagaiak erabiliz. Nahiz eta kasu honetan tokiko erakundeek ere parte hartzen duten, nabarmendu behar da prozesu guztiaren mobilizazioa eta dinamizazioa ekoizle-elkarteek, baita kontsumitzaile-taldeek eta guraso-elkarteek ere, eraman dutela aurrera.

Behetik parte hartzea funtsezkoa da prozesu hauetan, eta elikadura-burujabetzak guztien beharra dauka, maila bateko edo besteko parte-hartzearekin edo ardurarekin, errealitate bat (ez urrunekoa, espero dugu) izan dadin.

| | | | |
|--|---------------------|---|--------------------|
| Lur eta ondasun komunak | Zeraingo proiektua | Lurzaindia Ipar EH | Zeberio proiektua |
| Elikagaien ekoizpena eta eraldaketa | Azkaineko proiektua | Aramaioko proiektua Itsasuko proiektua | Urduñako proiektua |
| Merkaturatzea | Aramaio | Idoki, Arrasate eta Tolosa | Ordizia |
| Kudeaketa publikoa | Larrabetzu | Urduña | Tolosa |

BIBLIOGRAFIA

BORRAS, Saturnino M. (2004). La Vía Campesina: un movimiento en movimiento. TNI, Amsterdam.

Hemen eskuragarri: <http://r1.ufrj.br/geac/portal/wp-content/uploads/2012/11/BORRAS-La-Via-Campesina-espanhol.pdf>

ROSSET, Peter eta MARTINEZ-TORRES, María Elena (2010): “La Vía Campesina: the birth and evolution of a transnational social movement”, *The Journal of Peasant Studies*, 37. lib., 1. zk., 149.-175. or. Hemen eskuragarri: <http://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/03066150903498804>

SENRA, LIDIA (2009): Las mujeres alimentan el mundo. Soberanía Alimentaria en defensa de la vida y el planeta.

DE GONZALO ARANOVA ETA URREBIZKAIA GIL (2012): Las mujeres baserritarras Análisis y perspectivas de futuro desde La soberanía alimentaria. Baserripress. SL

I. Congreso Internacional de Economía Social y Solidaria. Carta por una Soberanía Alimentaria desde nuestros municipios. Zaragoza, 2014.

CARO, PAMELA: Soberanía alimentaria: aproximaciones a un debate sobre alternativas de desarrollo y derechos de las mujeres. El Libro abierto de la Vía Campesina: celebrando 20 años de luchas y esperanza.

ETXALDE (2011): Elikadura Burujabetza munduan eta Euskal Herrian.

BASERRI BIZIA (2014), 54. zk.


BIZILUR ETA ETXALDE. Koordinazioa: Silvia Piris Lekuona (2015): Euskal Herrirako bestelako bizitza-eremuak lortzeko burujabetza ereiten. Elikadura-burujabetza abiapuntu, tokiko politika publikoak erakitzeke zenbait proposamen.

Hemen eskuragarri: <http://bizilur.eus/portfolio-items/burujabetza-ereiten-politika-publikoak/>



3

DESAZKUNDE ENERGETIKOA⁷²



⁷² Ardatz hau Ekologistak Martxan eta Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingenieritzak landua izan da, Goienerren parte hartzearekin.

1. TESTUINGURUA IKUSPUNTU GLOBALETIK

1.1. Zergatik da garrantzitsua eredu energetiko bat izendatzea

Gizadiak energia eredu mota ezberdinak erabiltzen ditugu, barnekoa (giza gorputzaren barruan sortua) eta kanpoko (gugandik kanpo ekoitzia), elikatzeko, elementuak eraldatzeko, mugitzeko, berotzeko edo hozteko.

Gizakia definitzen duen ezaugarrietako bat kanpoko energiaren jabe egiteko dugun gaitasuna da, energia hori nondik eskuratu aukeratzea onartuz, zein teknologiekkin, nork duen sarbidea eta zein modutan erabili barne.

Nork erabakitzen du zein energia kontsumitu, nola eta zertarako? Bidezkoa da energiarekiko erabakiak hartzeko, erabilerarako eta gozamenarako sarbidea? Energia eskuratzeko, edo ez lortzeko, sortutako desberdintasuna leku bakoitzeko sistema sozial, ekonomiko eta politikoarengandik baldintzatua dago. Horregatik uste dugu energia eta bere asmaketa soziala eta kulturala dela, ezin genezake ulertu erabili edo eskuratu den testuingurua aintzat hartu gabe, (asko dira petrolioaren erabilera baliabide gisatzat hartzen ez diren komunitateak, Ama Lurraren odolaren erabilera bezala baizik⁷³). Haatik ezinbestekoa iruditzen zaigu **energia** sistema sozial murrizta-tailerantz eraldaketarako zutabe gisa lantzea.

Hainbat alditan esan bezala, bizi eredu nekagarri batera eraman gaituen eredu politiko eta ekonomiko bidegabe eta eutsiezin bat esperimintatzen ari gara, bizitza, komunitateak eta Natura⁷⁴ zaintzea ahaztu duten erritmo laboral eta sozialekin.

Alabaina, ezin genezake ahaz gure erabakitzeko eta ekintzak egiteko ahalmena, ezta erantzukizuna eta erantzunkidetasuna ere. Subjektu politiko aktibo bezala, aldaketarako eta eraldaketarako agente moduan, eragiteko, aldatzeko, eta sortu eta garatzen dugun eredu energetikoaren inguruan politikoki eragiteko (eta beraz sozio-ekonomikoki) gure eskubidea balia dezakegu.

73 “En la espiral de la energía”, Ramón Fernández Durán eta Luis González Reyes, (2015) Editoriala: Libros en Acción / Baladre.

74 “Transiciones energéticas: Sostenibilidad y Democracia energética”. Leire Urkidi, Rosa et alt. (2015) UPV/EHU.

Sarrera hau Eredu Energetiko Berriaren Manifestuarekin⁷⁵ bukatzen dugu, kolektibo bezala gure apustuak zehaztasun nahikorekin jasotzen baititu:

“Guzti horregatik, energia pertsonen oinarrizko eskubide moduan aitortzen duen sistema sozial berri bat dugu jomuga, banaketa justua izan dadin, nola sozialki hala inguruarekiko, merkaturaren zerbitzura ez dagoen energia eskuratzeko sarbidea pertsona guztientzako libreza izango duena. Sortzen den produkzio ereduaren oinarrian erabilera soziala eta ingurumenarekikoa izango duena, lana antolatzekeko modu berri batekin, lan produktibo eta erreproduktiboaren zama pertsona guztien artean bidezkotasunez banatuko duena.

Gizarte eredu burujabe, bidezko eta justu baterantz.

1.2. Energia

Gizakia historikoki energia iturri ezberdinez baliatu da bere energia propioa osatzeko. Aukera hauek areagotu egin dira jabetzea, tekniken erabilera, eta erremintak gehitu ahala, unerik gorenaren industrializazioan lortu zuen prozesuarekin, hain zuzen. Dena dela, hobekuntza tekniko hauetarako sarbidea (eta beraz, energia kontsumoarena) ez da bidezkoa izan.

Energia lanerako, eraldaketarako edo mugimenduan jartzeko ahalmen gisa ulertzen dugu, zerbait edo norbait. Objektu eta substantziei lotutako propietate bat da eta naturan gertatzen diren eraldaketetan ageri da. Energia aldaketa fisikoetan (mugimendua, desitxuratzea, beroketa...) eta kimikoetan (erregaia, uraren deskonposaketa...) presente dago.

Energiaz hitz egiterako orduan askotan **baliabide eta erabilera energetikoei** egiten diegu erreferentzia. Baliabide energetikoak (edo lehen mailako energia) eraldatuak izan aurretik naturan eskura dauden horiei deitzen diegu: energia metabolikoa (gizakiarena, animaliena, landareena), erregai fosilak, eguzki energia, eolikoa, eta abar. Bestalde, erabilera energetikoen inguruan mintzo garenean (edo energia finala) energia kontsumitzen dugunean bezala erabiltzeaz ari gara, elektrizitatean edo prozesatutako erregaietan eraldatu egin ostean hotza edo beroa sortzeko (prozesu industrialak, berogailuak...), argia, garraioa, eta abar.

Era berean, energia iturriak berriztagarriak izan daitezke, edo ez. Berriztagarritzat jotzen diren energiak agorrezinak diren horiek dira, edo kontsumitu ahala birsortzen joan daitezkeenak, esaterako, eolikoa, eguzki energia, geotermikoa, itsasokoa, biomasa... Ez berriztagarriak, berriz, behin erabilia birsortzeko denbora bat behar dutenak dira (edo lortu ezin dutenak). Adibidez, ikatza, petrolioa, gas naturala, uranioa... Fosil jatorria duten baliabide energetikoak historiaurreko animali eta landareen arrasto fosilizatuetatik aurrera sortu ziren, eraldaketa prozesu handien ondoren eduki energetiko askodun substantzia bilakatu zirelarik. Energia iturri guzti horiek kontsumitu nahi dugun **energia mota** eskuratzeko eraldatu egiten dira: erregaiak, energia termikoa, mekanikoa, elektrizitatea...

Gizarteko eredu energetikoa kolektiboki eta indibidualki sustatu, ekoitzi eta kontsumitzen dugun energia motak baldintzatuko du. Hau da, energiak pertsonekin duen harremanak eta

⁷⁵ Euskal Herriko Eraldaketa energetikoaren inguruko Tailerretan egindako lanaren emaitza (2015eko irailak 26), Hitz&hitz fundazioak antolatuta, Parte Hartuz (EHU/UPV) eta Ekologistak Martxan-en laguntzaz.

jendartean duen paperak. Hortaz, energia ereduaren eraldaketak eredu sozialaren eraldaketa inplikatzeko duela gure gain hartzen dugu, beste transformazio batzuk batzen zaizkiolarik: pertsonen eta ingurumenaren zainketa-erkin edo osasunarekin, hezkuntzarekin, lanarekin zein etxebizitzarekin lotutakoak, kasu.

1.2.1. Zein eredu energetikora iritsi gara

Mendeetan zehar, gizakiek sozialki antolatzeke modu ezberdinak erabili dituzte, harreman sozialak, politikoak, kulturalak, ekonomikoak eta ingurune naturalekoak baldintzatzen dituztenak. Azken bi mendeetan (nagusiki) eskuratutako jabetza tekniko nagusienak, erregai fosilen energia eskuratu eta erabiltzeko aukera ekarri zituen (lehendabizi ikatza eta beranduago petrolio eta gasa), konplexutasun eta garapen tekniko handiagoa izaten lagunduz. Aukera energetiko honek eremu askotan aurrekaririk gabeko hazkundea jasatea ekarri zuen: demografikoa, laborantzararena, azpiegiturarena, mugikortasunarena, eta abar. Hala, oparotasunerako berme bezala hazkunde mugagabea defendatzen duten teoria ekonomikoak gailendu ziren, botere politiko eta ekonomikoaren aldetik sinesbide gisa hartuak.

Ikuspuntu ekonomiko batetik, hazkunde mugagabeak energia merkatua estimulatzeko geroz eta gehiago kontsumitu behar den produktu bezala ulertzen du. Bestalde, komertzializatzeko helburuarekin etenik gabe produktuak ekoiztea planteatze hutsak energiaren erabilera haztea suposatzen du ere bai (produkzioa, materia garraioa, produktuena...). Eredu honek gizartearen energiarekiko menpekoagoa bilakatzen du, gehiago bidaiatuz (edo azkarrago), esku-lana murriztuz (pertsonak ordezkatzeko dituzten makinak sartuz eta gehiago produzituz) eta behar berriak plazaratuz (kontsumoaren areagotzea). Kontsumoa eta produkzioa geroz eta gehiago estimulatu duen prozesua, eta horrekin batera kapitalaren sorrera, gutxi batzuen esku utziz aberastasun monetarioa.

Alabaina, berriztagarriak ez diren gure planetako natur baliabideak mugatutzat kontsideratzen baditugu hau iraunkortasun zaila duen eredu bat da (erregai fosilak diren bezala, edo fosil jatorria duten bestelako materialak). Gainera, ingurumen aldetik eta sozialki eragin kalkulazina duen eredu bat da, energia bolumen hori ekoizteko erregai mineralen kopuru handiak behar direlako (petrolio, gasa, ikatza, uranioa), ateratzerako orduan ondorio asko dituztenak, baita bere erabilera energetikoan zein azpiegitura handietan ere (findegia, urtegia, zentralak). Horretarako sistema zentralizatuak ere behar dira, eta enpresa transnazional handiek menperatuak.


Logika guzti honetan oinarritzea da sistema kapitalistak energia onurak eskuratzeko beste produktu bat gehiago bezala ulertu izana, horregatik erori da bere produkzioan (eta eskurapean) eta kontsumoan, ondorioak alboratuta. Adar honetako enpresak (petrolioarekin, elektrizitatearekin lan egiten dutenak) eta zuzenean harremandutako beste batzuk (automobilenak, eraikuntzakoak, eta abar) dira sistema ekonomikoaren onuradun nagusiak, eta bere zuzendaria aberatsenak.

Hortaz, sistema kapitalistak zein eredu energetiko bultzatu den baldintzatu du, eta zein izan den baztertua ere bai.

Egungo eredu energetikoa energia fosilen iturrien erabilera oinarritua dago, mundu mailako funtsezko energia kontsumoaren %90 baino gehiago jatorri honetakoa da (ikatz, petrolio, gas naturala, nuklearra) (2014). Energia fosila nola garraiorako hala elektrizitatea sortzeko erabiltzen da (ikatz zentral termikoak, olio edo gasa), eta etxe zein berorako (gas). Kontrapuntu

gisa, energia berriztagarriaren kontsumoa ez zen %2,5era iristen urte berdin horretan (ikusi 1 irudia duen grafikoa).

1 irudia.- 2014an munduan kontsumitutako oinarritzko energia.



Iturria 1.- Sorkuntza propioa, datuak: BP statistical review of world

Fosil jatorriko baliabide energetiko hauek historiaurreko landare eta animali fosilizatuen hondarretatik sortu ziren, eraldaketa prozesu handiak jasan zituztelarik eduki energetiko asko-dun substantzia bilakatu arte. Baliabide fosilen kontsumoa haren sorkuntza baino askoz azkarragoa izan da (milioika urte suposatzen baitu), arrazoi honegatik dute ateratze tasa maximoa, honen ondotik gainbeheran sartzen direlarik. Baliabide fosilen ateratze fasean itzulera gabeko puntu hau da **erauzketaren punta** bezala ezagutzen dena.

Kontrolatzen dituzten enpresa handien sekretismoagatik gaur egungo erreserbak zeintzuk diren jakiteko datu frogagarririk gabe, petrolio konbentzionalak goia 2006an jo zuela uste da. Bestalde, aztarnategi asko agortu izana bistakoa da. Gasa bezalako bestelako erregaiek punta 2020rako dute aurreikusia, ikatzak 2034rako, eta uranioak 2015 eta 2035 artean (Michael Dittmannen oraintsuko artikulu batez fidatzen bagara ziurrenik urkila honen beheko partea izanez)⁷⁶.

Eraldaketari dagokionez, energia eredu tradizionala baliabideak eraldatzeko zentral handietan oinarritua dago, findegietan, elektrizitatea sortzeko zentraletan, garraioetan; azpiegitura handien eraikuntza ekartzen dutelarik, inbertsio ekonomiko eta energetiko handia suposatuz, diseinu eta eraikuntza eksklusiboak barne. Gainera, azpiegitura handien eraikuntzak ingurumenari dagokionez eta sozialki kalte larriak probokatzen ditu, bere eraikuntzan, funtzionamenduan eta eraispenean (ematen baldin bada).

Energia sistema honek produkzio eta kontsumo puntuen artean distantzia handiak eragiten ditu, banaketarako azpiegitura handiak behar dituelarik, izan baliabideena (gas petrolio-hodiak bezala) edo energia finalarena (elektrizitate sarearen garraioa).


76 R. Fernández Durán eta L.González Reyes "La Espiral de la Energía: *Colapso del capitalismo global y civilizatorio*. (Ecologistas en Acción). Madril, 2014.



2. irudia - Petrolio azpiegituren sistema handiak.

1. iturria

www.monografias.com/trabajos81petroleo-derivadospetroleo-derivados2.shtml



3. irudia - Elektrizitate sorkuntza konzentratuta.

1. iturria - Red Eléctrica Española (REE)

Energia honen garraioak galera handia jasatea dakar kontsumitu behar den punturaino igaro beharreko distantziaren ondorioz, eramaten den elektrizitatearen %10era iritsi daitekeela kalkulitzen da⁷⁷.

Gainera, mantenua eta olio-bide zein gas hodian zerbitzua ikaragarri garestia eta konplexua da, proiektu hauek suposatzen duten tamainak herrialde askotako baliabideen kontrola enpresa gutxi batzuen eskuetan geratzea dakarrelarik. Elektrizitatearen kasuan argi garraioa tentsio altuko sareetan egiten da, galera handiak dituelarik.

Horregatik, banaketan oinarritutako eredu baterantz modelo energetikoaren aldaketaren bilaketak sorkuntza, produkzio eta kontsumo puntuekiko gerturatzea suposatzen du, zerbitzuari flexibilitate handiagoa ematen diona, mantenu eta baliabideetarako sarbidea sinplifikatzeaz gainera. Modu honetan, energiaren garraio galerak zein ingurumenean eta sozialki eragindako kalteak murriztu egiten dira, eta baliabideen kontrola demokratizatzen da.

Egungo energia ereduak aurrean duen ezinezkotasan fisikoaz gain, ugariak dira gure bizimoduari eta ingurumenari negatiboki eragiten dioten kalteak:

Ongizatean duen inpektua

Gure zorientasunari lotzen zaion bizitza maila (mendebaldeko jendarteetan) kontsumo energetikoaren hazkundearekin hobetzen dela ulertzen da. Bizi maila eta kontsumo energetikoa areagotzearen lotura hau, gure “bizi asebetetzea”⁷⁸ aurreko belaunaldiekin edo menpekotasun gutxiago duten Planetako beste toki batzuenarekin konparatzen badugu, ez dela horrela demostratzen da.

⁷⁷ www.consumer.es

⁷⁸ Funtsezko asebetetzea pertsona bakoitzak bere bizitzarekiko egiten duen balorazio orokor gisa definitzen da, lortu duena, bere lorpenak, eskuratzea espero zuenarekin konparatuz, bere espektatibekin (Diener et al., 1985; Pavot, Diener, Colvin eta Sandvik, 1991).

Biziera Ona (Sumak Kawsay) bezalako kontzeptuak, funtsezko asebetetzean oinarrituak, jatorrizko herrietako naturarekin armonian⁷⁹, edo *Barneko Zoriontasun Gordina*⁸⁰ terminoa hazkunde ekonomiko eta energetikoarekin kontrajartzen dira, extraktibismo eta akumulazioarekin, lurralde baten bizi maila kuantifikatzeko aberastutako herrialdeetan gehien erabiltzen den adierazle gisa baloratuz, BPG (Barne Produktu Gordina).

Hobekuntza teknologikoen eta energia merkearen erabilgarritasunak, gure enpleguetako zeregin gogorrenak erraztea eta lan jardunak murriztea lortzea ekarri beharko luke. Alabaina, lan jarduna ez da txikitu eta enplegua desberdintasunean oinarrituta banatu da, elitismoa eta bazterketa sustatuz. Gainera, egungo energia ereduak teknologian inbertsio indibidual eta kolektiboa beharrezkoa du, sarbidea eta kontsumoa bidezkoa ez izatea ekarriz. Honek nola herrialde pobreetan hala aberatsetan desberdintasunak errepikatzen ditu, sexu-generoen arteko diskriminazioa larriagotuz, batez ere, herrialde aberats eta pobreen artean.

Zainketa alorrean duen inpaktua

Erreproduktzio eremuan, energia beharrezkoa da. Tradizionalki emakumeek egindako zainketa lanak ikusezinak dira, pertsonen garapen integralerako ezinbestekoak badira ere. Pobreak diren herrialdeetan energia kontsumoaren %80 sukaltzeko eta etxeak bero mantentzeko erabiltzen da, biomasarekiko menpekotasun izugarria existituz⁸¹. Laneko bereizketa sexualagatik, zainketa lana, horien artean erregai biltzea barnebiltzen delarik, emakumeen gain uzten da. Menpekotasun honi lotuta, erregai urritasunagatik kaltetutako landa eremuko emakumeen proportzioa Afrikan %60koa, Asian %80koa eta Latinoamerika eta Karibeko lurraldeetan⁸² %40koa dela kalkulatzen da. Emakume hauek egunero etxerako⁸³ erregaia biltzen 1-4 ordu bitartean ematen dute, ondorioz, garapen pertsonal edo diru sarreraren sorkuntzan hezkuntza eta komunitate ekintzetan parte hartzeko aukera mugatua dute. Gainera, energia iturri garbi eta eskuragarrietarako sarbidea mugatua izateak, sukaltzean emakumeek egunero ke eta gas kaltegarriak arnastea suposatzen du, arnas gaixotasunen garapena eta hilkortasun altua izatearekin zuzeneko harremana duena.

Sarbide eta aitortzan duen inpaktua

Maila globalean emakumeen zereginak, berrikuntzak eta esperimentuak mendeetan zehar gutxi baloratuak izan dira. Ez da zientzia bezala haien ezagutzaren zati handi bat aitortu.

Geroz eta emakume gehiagok egiten dute lan energia sektorean, nola herrialde aberatsetan hala lurralde pobreetan, baina botere postuetara iristea oztopatzen dieten mugekin. Estatu Espainiarrean Berdintasun Legeak enpresa zehatz batzuek berdintasun plana izatera behartzen

79 Bere arraza anitzen gaintik komunitate indigena amerikarrei erreferentzia egiteko politikoki kontzeptu zuzena. "Jatorrizko" adjektiboak, gainera, lurralde amerikarrean okupaziorako lehentasuna nabarmentzen du, horietako komunitate askok pairatzen duten lurrak kentzearen aurrean.

80 (GNH: Gross National Happiness), Butáneko Erreinuaren 70.hamarkadatik garapen sozioekonomikoaren arrakasta neurtzen duen adierazlea, ongizatea bezalako balore subjektiboak kontsumoa moduko balore objektiboak baino garrantzitsuagoak direla uste duena; eta kultura, osasuna, hezkuntza, komunitatearen bizigarritasuna, ingurumenaren aniztasuna, denboraren erabilerak, bizi maila eta gobernu ona bezalako dimentsio ezberdinak neurtzen dituena.

81 Biomasa landare edo animalia jatorria duen materia hori da, hondakinak eta zabor organikoak, energetikoki aprobetxagarria izan daitekeena.

82 Nazio Batzuen Giza Garapenerako Programaren Informea (PNUD), 1995.

83 Munduko Bankua, Household Cookstoves, ENVironment, Health and Climate Change (Washington, D.C, 2011)


ditu, zeinaren bidez, Kontseilu administratiboaren %40 emakumez osaturik egon behar den. Alabaina, energia sektorean planari heldu dieten enpresen %12 baino gutxiagok egin du⁸⁴.

Bestetik, aipatu bezala, energiarekiko sarbidea oso desberdina da, ez bakarrik herrialde aberats eta txiroen artean⁸⁵; baizik eta lurralde bakoitzeko biztanleriaren artean (generoaren, klase sozialaren, mundua ulertzeko moduaren... arabera), adibidez, Espainiar estatuan pobrezia energetikoak⁸⁶ estatuko biztanleen %18,2ari eragiten dio jada. Pobrezia energetikoa edo energiarako sarbide ezak heriotza bezalako efektu tragikoak eragin litzake, berotzeko elektrizitatea eskuratu ezin denean edo bero olatuen kasuan hoztearekin gerta litekeen bezala. 2014ko neguan Estatu espainiarreko hainbat heriotzaren arrazoia izan zitekeen hau.⁸⁷

Negoziaketetan eta boterearen erabileran duen inpaktua

Orokorrean, eraginak desberdintasun edo bazterketatik harago doaz. Dimentsio handiko gatazka mundialen zati handi batek jatorria baliabide energetikoen kontrolean dute (Ikusi 5 irudia). Energiaren kontsumoa areagotzeko beharrak baliabideak edozein preziotan lortzen saiatzea dakarte, kasu askotan, nazioarteko marko legal eza aprobetxatuz, natura mugarik gabe esplotatuz, eta Giza Eskubideak errespetatzeari utziz baliabideak eskuratzen diren tokietan (ez bakarrik langileen baldintzengatik, desjabetzeengatik, tokiko kulturak ez errespetatzeagatik...).

4. Irudia- Natur gatazken mapa.



2. Iturria.- <http://ejatlas.org/>, 2015/09/24 kontsulta

Herri indigenena da hustuketa eta industria produkzioen jarduera hau eta beste batzuegandik bereziki kaltetua den sektore sozialetako bat. Eta horien artean, gizarte guztietan bezala, kal-

84 "Las mujeres en los consejos de administración de las empresas españolas", 2014ko otsaila, INFORMA D&B, S.A..

85 Europak bakarrik, Munduan kontsumitzen den energiaren laurdena inguru kontsumitzen du.

86 Etxe batek oinarrizko beharrak asetzeko behar duen energia minimoa lortzeko ezintasuna, osasunerako egokiak diren baldintza klimatologikoetan mantentzea etxebizitza, elikagaiak prestatzea, eta abar.

87 Público, 2014ko martxoak 27 - www.publico.es/actualidad/pobrezia-energetica-causa-000-muertes.html

tetuenak, emakumeak. Batetik, haien lurraldeetan enpresa handiek gutzizatutako baliabideak existitzen direlako, edo azpiegiturak ezar daitezkeelako (zentral hidroelektrikoak kasu). Bestetik, kalte eremuetatik urrun aurkitzen direlako, haien lurraldeetan ez baitira defendatzen dituzten instituzioak existitzen. Horrez gain, sistema honetan integratuak ez egoteak kasu hauetan erabili daitezkeen erremintak ez ezagutzea dakar, eta kasu gehienetan ez dira hornituak ere izaten. Eta bereziki, oraindik, herri hauekiko arrazakeriak agintzen duelako. Emaitza herri hauetako saraskia da, edo are gehiago, haien desagerpena, edo haien hizkuntza eta kultura galtzea.

Ingurumenean duen inpaktua

Baliabide naturalen esplotazio eredu mugagabe honek ere **ingurumenean kalte** larriak ditu. Baliabideen desagerpenak (Ikusi Baliabide energetikoen agortzea puntuko azalpena) geratzen diren baliabideek hustuketa prozesu konplexuagoak behar izatea ekartzen du, energia gehiago behar da (ekarriko duten energia baino gehiago balio badute errentagarria izango ez den momentua iritsiko da), eta hustuketan eta kontsumitzerako orduan agresiboagoak eta kutsakorragoak dira. Isuriak, baso-soiltzeak, aniztasunaren galera, lurren eta uren kutsadura erabiltzen diren hustuketen ondorio teknikoetako batzuk baino ez dira.

Maila industrial eta domestikoan **Kontsumo energetikoaren handitzeak**, erregai fosilen menpekotasun handi batekin (%70 baino handiagoa), kutsadura emisioa areagotu egiten du, eta beraz, aldaketa klimatikoan lagundu.

Ziklo konbinatuko zentralak garbi bezala aurkezten dira negutegi efektua duten gasen kantitate txikiagoa jaurtitzen dutelako zentral termiko konbentzionalek sortzen duten energia kantitate berdinean, heren bat gutxiago. Baina ziklo konbinatuko zentral batek sortzen dituen emisioak ez dira batere baztergarriak, 800 MWko zentral batek orduko 300 karbono dioxido tona jaurtitzen ditu (CO₂), 250 kilo NO₂ (nitrogeno oxido), metanoa, SO₂, ozono troposferikoa, eta abar. NO₂ (nitrogeno oxidoa) ozono troposferikoaren aitzindaria da, osasunean eta abeltzaintzaren produkzioan eragin handia duena. Metanoak, zukututako gas naturalaren osagai nagusiak (%90), bestalde, CO₂⁸⁸ak baino 100 aldiz negutegi efektu handiagoa dauka.

Garraio munduko kontsumo energetikoaren sektore handienetako bat da, egun garraiora bideratutako energia nagusiki hidrokarburoetatik etorri da (gasolina, gasoila, kerosenoa... guzti horiek petrolotik eratorriak dira). Garraio sektoreak erregai fosilekiko duen menpekotasunak mundu mailan negutegi efektuaren emisioen ia laurdenaren erantzule egiten du.

Pentsa genezake eraginkortasun energetikoak kutsaduraren murrizketara eraman gaitzakeela, eta beraz, ingurumenean eragitera, baina “errebote efektua” deiturikoak dio errealitatea ez dela horrelakoa. Perfekzio teknologikoak baliabide bat erabiltzerako orduan eraginkortasuna handitu ahala, errazagoa da kontsumoa handitzea berau murriztea baino. Zehazki, Jevonsen paradoxak eraginkortasun energetiko handiagoa duten teknologien sarrerek, azken finean, energiaren kontsumo totala areagotu dezaketela dio⁸⁹.

Ekonomia baten ingurumen kalteak beste baten gain uzten direnean, beste herri edo komu-

88 Hemen kalkuluak 20 aldiz handiagotzat dutenetik 70 edo 100 aldiz gehiagora jotzen dutenekin diferitzen da. Ikusi: noticiasdelaciencia.com/not/11597/metano-y-dioxido-de-carbono-evaluar-en-su-justa-medida-el-efecto-invernadero-ejercicio-por-cada-uno

89 https://es.wikipedia.org/wiki/Paradoja_de_Jevons, 2015eko urriaren 21ean egindako bisita.

nitate batengan, zor ekologiko bat dagoela esaten dugu⁹⁰. Berez, hau kanpo zorrei kontrajartzen zaion kontzeptu politiko bat da, 90. hamarkadan garatu zena herrialde askoren kontra egokitza-pen estrukturalak abiatu zirenean sortutako zorreratik, baina hartzekodunek herrialde horiek baliabideen hustuketaren bidez edo ingurumen kalte larriak sortuz (eta ondorio sozialak) abusatutako zor hori (kasu askotan faltsua edo puztua), ez da izan zigortu edo ordaindua. Zor hori neurgailu ezberdinak erabiliz kuantifikatu eta exijitu daiteke.

Ekintza energetiko askok (batez ere aberatsak diren herrialdeetan) zor ekologiko handia dakarte. Maila energetikoan bi dira zor ekologikoarekin lotutako tipologiak: batetik, ingurumen pasiboari lotutakoa (hustuketaren eta garraioaren eragina: jarioak, baso-soiltzeak, kutsadura akuiferoa, eta abar), eta bestetik, erregaien erretaketaren edo karbonoaren zorrei lotutakoa, hau batez ere industrializatutako herrialdeetan ematen da, baina kalteak jaurtitze horien erantzule ez diren herrialdeetan pairatzen dira.

1.3. Baliabide energetikoak

Naturan eskuragarri dagoen energia da baliabide energetikoa izendatzen duguna, gure bizitzetan erabili ahal izateko eraldatu aurretikoa.

Baliabide energetikoen agortzea

Agortze hau (Zein eredu energetikora iritsi gara puntuan azaldua) konpainiak garestiagoak diren hustuketa modu berriak bilatzera daramatzana da, lehen errentagarriak ez zirenak ateratzen hustuketarako erreserba errazagoak eta merkeagoak zeudelako, eta bereziki, ingurumenean eta jendartean askoz gehiago eragiten zutelako. Hustuketa modu berri hauen emaitza dira petrolio eta gas ez konbentzionala izendatzen direnak.

Hausketa hidraulikoa (Frackinga), gasa edo petrolio ateratzeko prozedura da, harkaitz substratuetan existitzen diren apurketetan dagoena (normalean 1mm baino txikiagoak). Honek hustuketa konbentzionala baino zulaketa kopuru askoz handiagoa lortzen du, gas edo petrolio kopuru berdina lortzeko. Metodo honek ingurumen arrisku handia du akuiferoak kutsatzeko arriskuagatik, ur kontsumo handiagatik, atmosfera kontaminatzeagatik, kutsadura akustikoa-gatik, gainazalera migratutako gas eta produktu kimikoengatik, azalera egindako isurketengatik, jarduera sismikoa areagotzeagatik...

Hustuketarako beste metodo ez konbentzional bat **Are Bituminoso edo petrolioarena** da, petrolioaren antzeko bitumen bat ateratzen baita bertatik, petrolio gordin sintetiko edo findua bihurtzen dena. Bere hustuketa zeru zabalera irekitako meatzetan egiten da, betuna agerian utziz eta honek ura kutsatzea erraztuz.

Are eta bitumenaren arteko bereizketa prozesuak ere ur kantitate asko eskatzen du, ikaragarriko ur kutsatu bolumenak sortuz, igerilekuetan uzten dena, baina etengabe isurtzen dena. Era berean, airea kaltetu egiten da karbono dioxido eta bestelakoen emisioagatik, are gune hauetako hustuketa eremuetan egiten diren zuhaitzen mozketengatik, gainera, basamortu paisaia bat utziz.

⁹⁰ Kontzeptu honi buruzko informazio gehiago: www.accionecologica.org/deuda-ecologica

Pisudun gordinak, bere forma naturalagatik petrolio putzuen bidez edo produkzio bitarteko arruntak erabilia hustu ezin diren gordinak dira. Horrela deitzen zaio erraz jariatzen ez den edozein petrolio mota gordini, horretarako haren hustuketa eta garraioan berotzea edo disolbatzea beharrezkoa delarik jalgi ahal izateko.

Petrolio ez konbentzional guzti hauetako kointzidentzia bat bere kalitate eskasa da, sufrea eta metala⁹¹. bezalako elementu kutsakor kantitate altua baitute haien baitan. Bitumen gordinak, adibidez, konbentzional gordinak baino 11 aldiz sufre gehiago du. Ingurumenean eta osasunean eragiten duen kaltea, hortaz, handiagoa da bere finketan eta ondorengo erabileran.

Era berean sarbide zaila duten edo ahulak diren guneetan, urrutiko oihanak, ur sakonak edo artikoko izotzak kasu, aztarnategiak esplotatzen dira. Guzti horiek lehen haien kalitateagatik baztertzen ziren, haien hustuketa garesti ateratzen zelako, eta biodibertsitate⁹² bereziko guneetan jarioek suposa dezaketen arriskuengatik. Modu berean, erregai horien garraioa inpaktu handiko istripuen ondorio da, petrolio-ontziei itsasgoran eragitea bezala.

1.4. Erabilera energetikoak

Erabilera energetikoaz hitz egiten dugunean (energia finala) egunerokoan kontsumitzen dugun energiaren ari gara, baliabide energetikoen edo jada landutako bestelako energia iturrien eraldaketen emaitzaz, adibidez, garraiorako gasolina eta gasolioa.

Egun, munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hiriburuetan bizi da, horregatik kontuan hartu behar dugu hiriko ekosistemak ikaragarriko energia kontsumoak ezaugarritzen dituela (elektrizitatea, erregaiak) eta ez dituzten bestelako baliabideak (ura, elikagaiak eta abar), guzti horiek distantzia gehiago edo gutxiagoko beste lekuetan esplotatu izana dutelarik jatorri. Horretarako garraioa behar da, aldi berean energia asko suposatzen duena. Era berean izugarriko hondakin bolumena sortzen da, kanporatuak direnak ere. Eredu hau ez da jasangarria eta ingurumenean eta jendartean eragin handia du (ikusitako bezala).

2012an munduan, energia finalaren kontsumoa industria, garraioa (bakoitza heren bat baino pixka bat gutxiago) eta hondakinen artean banatua zegoen (herena baino pixka bat gehiago); lehen, hirugarren eta erresidentziako sektoreak osatzen dutelarik⁹³.

Industriak munduko oinarriko energiaren herena kontsumitzen du, sortzen den energia elektrikoaren ia erdia. Energia hau kontsumitzen ditugun produktu eta azpiegitura guztiak sortzeko erabiltzen da, bereziki Ipar Globala deitzen dugun herrialdeetan. Ondorioz, energia kantitate hau murriztu ahal izateko beharrezkoa da kontsumo ereduaren aldatzea.

Iraultza industrialetik, munduko energia kontsumoa etengabe hazi da. 1890ean erregai fosilen kontsumoak industrian eta etxebizitzetan erabilitako biomasa gainditu zuen. 1900ean, kontsumo energetiko globalak 0,7TW suposatu zuen, gaur egun 15 TW inguruan dagoelarik.

⁹¹ www.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf/petroleos-no-convencionales.pdf

⁹² Isuri entzutetsuenetako batzuk Brasileko Petrobasekoak izan ziren, Ekuadorreko Texacokoak), edo Mexikoko golkoan itsasoan isuritako Dep Water horizon.


⁹³ 2014, Key World Energy Statistics, International Energy Agency (IEA)

Garraioa da, inpaktuen atalean aipatu den bezala, mundu mailako kontsumo energetikoaren sektore nagusietako bat. Egun, munduan 27,61 miloi ibilgailu existitzen dira, baina autoak ez dira garraioaren kontsumo tamainan eragina duten bakarrak. Egungo turismo eta aisialdiak, hegaldi merkeetan, itsas bidaietan, urruti dauden txokoetan bi eguneko egonaldietan... oinarrituak, distantzia askodun mugimenduak dakartzate, eta era berean energia asko, horrek suposatzen dituen ingurumen kalteekin.

Hirugarren sektoreak eta zerbitzuek (hezkuntza, osasunak, lanak, aisialdiak eta denbora libre-break...) energiaren beste herena kontsumitzen dute. Gune hauetan energia nola kontsumitu eta erabiltzen dugun erantzukizun kolektiboaren parte da, multzoan egiten denarena. Hotz, hemen ere egunerokoan ekintza txikiekin eragiteko ahalmena eta beharra dugu.

Estatu espainiarrean, etxebizitzetako kontsumo energetikoaren ia erdia berogailuari lotua dago⁹⁴, bizi garen eraikinen eraginkortasuna txikia dela pentsatzera garamatzana⁹⁵, eraikuntza egoki eta jasagarri batek kontsumo hau murriztea ekar lezakeelarik.

Hirien gainbeheraren zirkulu biziosoa



Iturria: Nazioarteko Garraio Publikoen Batasuna, 2001

Nekazaritzako erregaiak (biodiesela, bioetanola), erregai berrien emaitza dira, kalteak eta naturaren baliabide bukakorrak gelditu gabe hazkunde erraztuko dutenak. Hauek olio begetaltatik (soja, koltza, afrikar palmondoa) edo azukreetatik (aroa, erremolatxa) sortzen dira. Ingurumenean duen eragin zuzena laborantzarako zehazten diren lurrekin bat dator, eta baso-soiltzea, suteak, fumigazioak... eragiten ditu, nola kontsumoan (negutegi efektudun gasen emisioa) hala gizakiengan kalte larriak: desplazamenduak, lurren desjabetzeak, lanenak, eta abar. Hau guztiagatik ezin da erregai konbentzionalen alternatiba gisa planteatu, eta are gutxiago aldaketa klimatikoa leuntzeko: gaur egungo Europako araudiak %6 konbentzionalekin nahastu beharko litzakeela dio (2013 aurretik %10 zen eta murrizketa, bereziki, kalteengatik eman zen)⁹⁶. Beste

94 Espainiako erresidentzia sektoreko kontsumo energetikoaren analisia, 2011/07/16, IDAE.

95 Izan gure etxebizitzetan edo lantokietan.

96 www.biodieselspain.com/2013/09/12/la-eurocamara-apoya-rebajar-del-10-al-6-el-uso-de-biocombustibles-para-el-transporte/

erregaiak bezala, nekazaritzakoak finantzaketa eta gain-dimentsioaren espekulazio subjektu izan dira.

2. HEGO EUSKAL HERRIKO TESTUINGURUA⁹⁷

Euskal energia eredua, industria izaerak sustatua, zentralizatutako produkzio eredua da, energiaren, uraren, pertsonen eta merkantzien garraiorako desproporzionatutako azpiegitura eta sortze zentral handietan oinarritua.

Eredu hau ez da xahutzailea ikuspuntu energetikotik bakarrik, herrialde aberatsetakoarekin konparagarria da, beste herrialde batzuetatik eratorritako energia iturriengandik erabateko menpekotasuna baitu, gehienetan, fosil jatorrikoena.

Ekonomia sustatzaile gisa hazkundearen paradoxa hazkunde suntsitzailearen egoeraren isla da, eraikitzeo neurrigabekeriaren aldeko apustua egin delarik (nola azpiegiturretan hala etxebizitzetan), munduan Abiadura Handiko Treneko kilometro gehien dituen bigarren lekua bihurtuz (Txinaren ondoren), eta biztanleko autopista kilometro sare handiena izanez, Europan aireportu gehien dituen lurraldeaz gainera.

Krisian zehar, Hego Euskal Herrian, Estatu espainiarreko gainontzeko lekuetan azpiegitura askoren eraikuntza geratu baziren ere, proiektu gehienekin aurrera jarraitu da, esanguratsuenetako bat AHT izanez, edo Beasain-Bergara zein Super-Sur autobideak, edo Donostiako Bigarren Gerrikoa... Azpiegituretako batzuk, Pasaia Super Portua bezala, eten egin ziren, herri oposizioagatik eta erabilera eskasagatik: beste polo energetiko bat barne hartu behar zuen zenbat eta gehiago hobeto logikari jarraituz (eta onura gehiago).

2.1. Nondik dator Hego Euskal Herriko energia

Euskal Autonomia Erkidegoko menpekotasun energetikoa faltan dituen baliabideetan oinarritzeagatik osoa da (erregai fosilak), eta kanpotik ekartzen dira: %94,1 (2012)⁹⁸. 2013an 7.369 petrolio pet (petroliotik eratorritako tonak) sartu ziren. Urte horretan euskal garraioan (Euskal Herria) 1847 milioi pet kontsumitu ziren, eta zentral termikoetan 745,6 miloi kilowatio.

Produkzio elektrikorako gas naturala ziklo konbinatutako zentraletan eta erabilera domestikoa. Egun, Bizkaiko Badiako multzoa da euskal energia sistemako gasaren sarrera puntua, almazena, gasifikazioa eta produkzioa (ziklo konbinatuko zentral batean).

Petrolio inportazio gordina areagotuz joan zen 40.hamarkadatik aurrera, 1995-2010 artean %40 baino gehiago hazi zen eta goia 2004an jo zuen, 9,5 miloi tona gordinekin. Kontsumitutako petrolioaren jatorria lurralde nagusi hauek osatzen dute: Errusia (%40), Iran (%27,69), Mexiko (%7,29), Erresuma Batua (%6,71), Norvegia (%4,74), Ekuatore Ginea (%4,45), Irak (%4,35), An-

⁹⁷ Euskaraz, Hego Euskal Herriak, Espainiar estatuan txertatutako probintziei egiten die erreferentzia (Frantziakoak baztertuz), Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa direnak.

⁹⁸ <http://www.diariovasco.com/v/20121101/economia/dependencia-energetica-euskadi-alta-20121101.html>

gola (%3,63), Venezuela (%2,61) eta Nigeria⁹⁹ (%2,15). Alabaina, findutako petrolio ere inportatzen da (gasolina, gasoila, fuel-olioa, eta abar).

Deigarria da EAEn sartutako gas naturalaren inportazioaren hazkundera. 2003an apenas gasa kontsumituzetik, 2006an 3,5 miloi tona inportatzera igaro zen, eta 2008an 3 miloi tona. Honek Eusko Jaurlaritzak erregai honekiko duen apustu argia bistaratzen du, olio edo ikatzaren kaltetan, baina batez ere, berriztagarrien kaltetan. AHTren alde egindako apustuak, edo kotxe elektrikoak, elektrizitate kantitate handiak eskatuko lituzke, zentral elektriko horietako asko justifikatuko lituzketenak. AHTak tren konbentzionalak baino 6 aldiz energia gehiago kontsumitzen du, 100 kilometroko 5-6 petrolio litroekin alderagarria dena, ibilgailu pertsonal baten berdina eta hegazkinaren parekoa: 7,9 litro¹⁰⁰.

Esportazioekiko menpekotasun hau kontuan hartuz, eta hauen jatorria zein existitzen diren gatazka ekologikoak (eta gizakienak/sozialak), uste dugu euskal energia sistemak zor ekologiko handia¹⁰¹ ezartzen duela, Nigeria bezalako herrialdeek bezala, kontsumitzen den gas eta petrolio asko berau dutelarik jatorri, edo bereziki Nigerreko Delta (ogoni ijaw) bezalako komunitateak. Bi kasuetan herrialde honetako hustuketak natur hondamendia probokatu du etengabeko jarioengatik eta gasa aireeratzeagatik (petrolio hustuketetan soberan geratzen den gasaren erreketa)¹⁰².

Halaber, zor ekologiko handi bat existitzen da nekazaritzako erregaien erabilera eta produktioarekin, nagusiki Indonesiatik inportatutako olioekin hornituak¹⁰³.

Hego Euskal Herriko hidrokarbuero ez konbentzionalak

Eusko Jaurlaritzaren apustu irmoa hidrokarbueroa da, eta bere politika energetikoaren zati gisa hustuketa ez konbentzionaleko proiektu ugari bultzatzen ditu. Horregatik, SHESAk (Euskadiko Hidrokarbueroen Elkarteak), Euskal Energia Erakundearen menpeko zuzenak, itsas azterketak eta haustura hidraulikoak egiteko planak sustatzen ditu, lurraldean gasa eskuratu asmoz.

Itsas azterketen aldeko apustuaren adibide bat kostaldetik oso gertu dauden guneeetan zundaketak egiteko Gobernuak emandako baimenak dira, itsasgorako ur sakonetan arrisku handia suposatzen dutenak (Fulmar eta Pelicano-1 eta Mesana bezalako beste bost)¹⁰⁴.

99 Bilboko Super Portuaren datuen arabera, honek hainbat GNL (Gas natural likidatua) kargurekin kontaktzen du, Nigeriako NGLtik ekarria Bonnyetan, hamabostero. Horietako bakoitzak 148,300 metro kubiko (*) izanik, urtero 3.559.200 metro kubiko ko aurreikuspenak ditugu (*) Ontziaren arabera da – edukiera minimokoa izango litzateke hau, 149.600 metro kubikoa izan litekeelarik.

100 <http://www.ahtgelditu.org/zerdaaht/?Hizk=es> [Fuente: Wolfgang Zangl, "ICE: Die geister Bahn", 1993].

101 "DEUDA ECOLÓGICA: UN NUEVO CONCEPTO A DESARROLLAR". Iñaki Barcena, Rosa Lago, Iratxe Laurrieta, Martin Mantxo, Unai Villalba. Ekologistak Martxaneko Zor Ekologikoaren Batzordearen izenean.

"Herrialde baten zor ekologikoa lurralde honek beste herrialde batzuetan sortutako ingurumen kalteetan datza, edo beste herrialde batzuetako jurisdikzio guneeetan haien produkzio eta kontsumo ereduengatik, eta/edo herrialde horrek bere jurisdikzio nazionaletik kanpo historikoki sortutako kalte ekologikoengatik haien ekosistemen erabilera edo esplotazioagatik, edo denboran zehar ekosistemetak onura eta zerbitzuen jabe egiteagatik, beste herrialde edo pertsonen gaineko ekosistemetak bidezko eskubideak gastatuz" (Eric Paredis & otros, 2004:48-49).

102 Informazio gehiagorako R. Lago, eta I.Barcelona ikusi "Deuda ecologica y modelo energetico: los casos de Nigeria y Bolivia" (UPV-EHU- Ekologistak Martxan) http://pendientedemigracion.ucm.es/info/ec/ecocri/cas/Lago_Y_Barcelona.pdf

103 Informazio gehiagorako ikusi: E.Garmendia "Los impactos de la palma en Indonesia" "Justicia Ambiental Global: impactos socio ambientales de la economía vasca", Ekologistak Martxan, EHU). Bilbo, 2014.

104 www.ekologistakmartxan.org/2014/12/10/ekologistak-martxan-contra-las-prospecciones-de-hidrocarburos-en-el-cantabrico/

Beste apustu bat Haustura hidraulikoarena da (8.orrain azaldua). Herritarrek oposizioa islatu arren, SHESAk 2006an hidrokarburoak ikertzeko Enara eta Angosto-1 baimenak lortu zituen; eta 2008an Usapal, Mirua eta Usoa baimenak. Baimen hauek Enara Handia gisa bateratu ziren, 2012ko otsailean Angosto-1 baimena gehitu zitzaielarik.

Enara Handiaz gain, badira bestelako baimenak ere Bizkaian (Sala, Lurra, Géminis), Gipuzkoan (Sustraia Landare, Lore) eta Nafarroan (Pegaso, Qimera, eta Aquiles eta Ebroko zati bat), Araba ere ukituz Urraca eta Libra. Onartutako baimen guzti hauekin Hego Euskal Herriko lurraldeak kaltetuak daude: Arabako %88, Bizkaiko %73, Gipuzkoako %40 eta Nafarroako %13,3¹⁰⁵.

Beste apustu ez konbentzional eta ingurumenerako agresibo bat Petronorreko birfindegian egiten den koke produkzioa da (Repsol+BBK, orain Kutxabank), bere produkzioaren hondakinetatik eta gordin pisutsu zein ez konbentzionaletatik abiatuta. Dударik gabe, hau ez da baliabide fosil erraz eta merkeak murrizteko egoeraren aurrean erantzun bat besterik.

Prozedura honen bitartez eskuratutako kokeak (industrian erabiltzeko erregaia) kutsadura gehiago sortzen du hustuketan gordinak erabiltzean zein ondorengo konbustioan. Petronorren Koke solairuak orduko 250 tona produktu pisutsu prozesa litzake, eta Eusko Jaurlaritzarengandik ia 160.000 euroko ekarpenarekin lagundua izan zen, eraginkortasun energetikorako proiektu gisa¹⁰⁶.

2.2. Energia finalaren erabilera EAEn

2013an EAEn kontsumitutako energiaren erdia industrian erabili zen, eta ia beste hainbat garraioan, bien artean guztira %80 osatzen dutelarik. Bosgarren zati bat erresidentzia eta zerbitzuen sektoreak kontsumitua izan zen, eta %2 baino gutxiago lehen sektoreak erabilia¹⁰⁷.

Industria da energiaren kontsumitzaile erraldoia, garraioaren aurretik. Erresidentzia, etxebizitza, aisialdi eta kulturako energia kontsumo zuzena EAEko energia finalaren bostena baino ez bada ere, zeharka gainontzeko industriaren energia kontsumitzen ditugun zerbitzu eta onuretan kontsumitzen ari gara, izan EAetik etorriak edo beste toki batzuetatik lortuak. Hau da produktu baten motxila energetiko gisa izendatzen dena, produktua gure eskuetan egoteko baliabide naturalen, material gastuen eta garatutako prozesuan erabilitako energia guztiari erreferentzia egiten diona.

Merkantzien garraioa nagusiki errepidez egiten da (Espainiar estatuan %81, eta EAEn %95), eta jarraian, hurrenez hurren, itsasotik, trenetik edo airetik. EAE zeharkatzen duen merkantzien ibilgailu trafikoa arazo larri bat da. Trafiko hau hazkundera jomuga duten logiken emaitza da, estatutik eta Europar Batasunetik merkatu libreak sustatua. Perthusekin batera (Herrialde Katalanak), penintsulatik Europara dagoen sarbide bakarra da, horregatik Europara doan trafiko guztia hartzen du bere baitan, eta alderantziz. 2010ean 3 miloi kamioi eta 44 milioi merkantzia tonak zeharkatu zuten Euskal Herria Biriaturako pasabidean (Irun eta Hendaia artean) 2002an baino 17 miloi gehiagok, garraiatutako merkantzien hazkunde esponenziala erakusten duena.

105 Fracking ez, 2013ko azaroa, 8.zenbakia (www.frackingezaraba.org)

106 www.elcorreo.com/alava/20090214/economia/peronor-iniciara-obras-planta-20090214.html

107 Euskal Energia Erakundearen webgunetik eratorritako datuak

Azpiegiturak eraikitzeko porlanean erabilitako zementua ere energiaren kontsumitzaile nagusietako bat da. Zementua produzitzeko karearen egosketak ia 100 energia kwh behar ditu zementu tona bakoitzeko. Porlanezko tona bakoitzak CO₂ tona bat sortzen du. Mundu mailako CO₂ren produkzioaren %5 zementuaren fabrikazioari zor zaio.

Azpiegituren metro lineal bakoitzeko 20m³ zementu behar direla kalkulaten da, gainera, harrixkola, area eta altzairu zein aluminio bolumen handiekin nahasten da, euren hustuketan eta prozesamenduan energia ere beharrezko dutelarik. Euskal AHTaren aurreproiektuan 2 milioi agregakin m³ erabiltzea kalkulaten zen, zementuzko 4 milioi m³ gehitu behar zaizkionak. AHT eraikitzeko faseko CO₂ emisioak hain dira handiak ezen eta urtero 8 milioi bidaiari behar baitira 30 urtez emisio horiek gainditzeko.

3. MAILA POLITIKO-ESTRATEGIKOKO ALDARRIKAPEN ETA GOMENDIOAK

Ikusi dugun bezala, energiaren egungo egoera jasanezina da, horregatik paradigmen aldaketa planteatzen dugu.

“Nik garapen jasagarri edo jasankor bat eskuratu nahi badut, ez da aski energia iturriak aldatzearekin, urrunago jo behar dut, sistema sozioekonomikoa aldatu behar dut: harremantzeko sistema sozialetara, ohituretara eta pertsonen bizitza estiloetara” Julio Torres, Cubasolarreko ikertzailea (Kuba) (Ekologistak Martxan, “Transiciones energéticas: enciende el cambio!”).

“Aberatsa izatea zer den adierazten duen definizio berri bat behar dugu, zorionez, zoriontasunez eta osasunez betetako bizitza. Eta hau energia eta baliabideen eskariaren baitakoa izango da”. Martin Stengel, ingeniari elektrikoa (Alemania) (Ekologistak Martxan, “Transiciones energéticas: enciende el cambio!”)

Komunitate politikoari modu arrazional, mugatu eta koherente batean erregulatzea baliabide energetikoen esplotazioa planteatzen diogu, ekoizpen nuklearra geldituz eta erregai fosilen egungo dependentzia desagerpeneraino murriztuz. Era honetan kanpoko presioak saihestuz eta kontsumitzen dugun energiaren erabilera eta sorkuntzaren erantzukizun kolektibo eta indibiduala sustatuz.

Beharrezkoa eta urgentea dela uste dugu banaketan oinarritutako ekoizpenari mesede egingo dion energia politikak sortzea¹⁰⁸, autokontsumoa sustatuz eta ekoizpen energetikoa sare txikitari botere banaketa bultzatuz gauzatzea, horrela merkatu energetikoa demokratizatuz.

Politika publiko guztiak energiaren kontsumoa murriztera bideratu behar dira, ez bakarrik elektrizitatea eta erregaiak bezalako kontsumo energetiko zuzenak, baizik eta energia behar duten prozesu guztiak (elikagaiak, arropa, aisialdia, desplazamenduak, etxebizitza...). Horretarako beharrezkoa da tokiko kontsumoa, desplazamenduak murriztea, eraikuntza bioklimatikoa

¹⁰⁸ Banaketa eredu baterantz modelo energetikoaren bilaketak energiaren ekoizpen eta produkzio puntuen dispersio handiagoa eskatzen du, agente kontsumitzaileengana hurbilduz, zerbitzuari flexibilitate handiagoa emanez, mantenua eta baliabideen sarbidea sinplifikatzea ekarriko lukeelarik honek, garraiatzean energiaren galera txikituz eta ingurumenaren kalteak zein baliabideen kontrola demokratizatuz.

eta jasangarria, eta abar sustatzea, ikuspegi energetiko batetik alternatiba hauek urritzeko eta kontsumoa efizientea izateko neurri gisa kontuan hartzea. Gainera, energia oinarrizko onura moduan aitortu eta bermatu behar da, eta horretarako legeek pertsona guztiek bizitza duin batez gozatzeko nahikoa energia izatea bermatu behar dute, menpeko gaituen energia iturriak birpentsatuz eta burujabetza energetiko baterantz aurrera eginez, benetako autokontsumorantz.

3.1. Aldarrikapen urgenteak

- Legediaren bidez pertsona politikoek energia enpresetan postuak eskuratzea saihestea
- Frackingaren inguruko moratoria bat aplikatzea, eta orain arte onartutako azterketa baime-nak erretiratzea.
- Zentral nuklear guztiak gelditzea.
- Gastuen auditoria bat eskatzea enpresa banatzaileei, energia berriztagarriak egungo tarifaren defizitaren arrazoiak direla demostratzeko.
- Iturri fosiletan oinarritutako zentraletara birbideratzea diru-laguntzak (Bizkaiko Badia, SHESA...), energia berriztagarrien proiektuak eta eraginkortasun energetikoa sustatzen duten proiektuetara.
- Dekretu Erreal batean “balantze garbia” onartzea, hau elektrizitate ekoizle txikien instalazioak onartzea da, energia berriztagarrien bidez sare elektrikoa iraultzea, eta, trukean, saretik sortu duten energia kantitate berdina kontsumitzeko aukera izatea penalizazio eta bide-saririk gabe¹⁰⁹.

3.2. Epe ertain/luzerako aldarrikapenak

- ZOR EKOLOGIKOA. Enpresa transnasionalei gasa, petrolio eta uranioa arduragabeki esplotatzeagatik herrialde eta komunitate askotan eragindako kalteak aitortzea eta ordaintzea exijitu behar zaie.
- ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA eta energia AURREZTEA sustatu behar da sektore guztietan.
- POBREZIA ENERGETIKOA. Energia oinarrizko eskubide gisa aitortu behar da, pertsona guztiek bizitza duin bat izatea ahalbidetuko duen kantitate minimoa ezarri sarbide unibertsala lortzeko legeak sustatuz.
- ETXEBIZITZA
 - Hiri garapena ekosistema jasangarri bat bilatuz kontzebitu behar da, espazioekin batera (energia berriztagarrien bidez sortutako energia eskatzen den kopuru berdina izatea)
 - Eraginkortasun irizpideak izanez birgaitzea.
 - Kontagailu berriak erabiltzen irakastea pertsonen haien kontsumoa kontrola dezaten.
- INDUSTRIA:
 - Auditoria energetikoak egin behar dira gastu energetikoa murrizteko eraginkortasun adierazle minimo bat exijituz,
 - Ez baldin bada adierazle hau betetzen gehiegizko kontsumo eta kutsaduragatik zerga bat jarriko zaie
- ZERBITZUEN SEKTOREA:
 - Espazio publiko eta pribatuen erabilera ordu kopuru maximoan erabiltzea sustatzea, beste erabilera batzuetarako irekiz. Adibidez, ikastetxe bat, zeinetan bertako gelak eskola ordutegitik kanpo zabaltzen diren elkarte edo eskolaz kanpoko ekintzetarako,

109 <http://habitat.aq.upm.es/cs/p2/a008.html> 10/1/2016

- eraikin publikoetan, hauek modu eraginkor batean erabili behar dira, argi naturalik gabeko espazioak edo isolamendu txarragatik eraginkortasun gutxi dutenak murriztuz, edo gehiegizko klimatizazioa behar dutenak.

Erabilera elektrikoen kontsumo energetikoa

- Elektrizitate sektoreko legea aldatzea honetarako:
- Energia banatzaileak diren enpresa eta kooperatiba berriei sarrera erraztea,
- Energia berriztagarria ekoizten duten instalazio txikien tramitazioa erraztea eta bide-sariak ezabatzea, baita dituzten bestelako oztopo burokratikoak ere,
- Ekoizpen elektrikoan dabilen instalazioei sareetarako egokitzapena azkartzea.
- Banaketa modu bidez energia berriztagarrien instalazioak sustatzea, eta progresiboki erre-gai fosilen zentralak desegitea.

Beroa sortzeko produkzioan kontsumo energetikoaren erabilera

- ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA. Existitzen diren eraikinak berreskuratzeko promozioa areagotzea, ingurutzailen eraginkortasuna hobetzea, berogailuen promozio erreala sistema berriztagarri eta komunitariodunekin, eraikuntza berria: eraikin pasiboak soilik onartzea (energia kontsumo gabeak).
- ERAIKUNTZA JASANGARRIA:
 - Kontsumo energetikoa erabilitako materialen eskurapenean zehar kontuan hartzea,
 - Material biodegradagarriak erabiltzea.
- BERRIZTAGARRIAK.- Kontsumoa murrizteko trantsizioa, edo kontsumo berriztagarriko aldaketa, gasen kontrol estrategia politikak eta gas naturalaren kontsumoa trantsiziozko erregai gisa alboratuz.

Kontsumo energetikoa garraioan

- GARRAIO PUBLIKOAREN erabilera indartzea, bizikleta eta oinez ibiltzea kasu, kutsadurarik sortzen ez duten jarduerak lehenetsiz:
 - oinezkoentzako atsegingarriak diren bideak sortzea,
 - Bide bakarrekin bizikleta eta oinezkoekiko errespetua sustatzea, 30kilometro orduko abiadurara mugatuz. Ildo beretik, ziklo-bideen kilometroak eta sarbideak ahalik eta helmuga gehienetara areagotzea, horretarako beharrezkoa den logistikarekin (estalitako aparkalekuak, eta abar).
- IBILGAILUAK. Erabilera ez bultzatzea, ezta ibilgailu pribatuen salmenta ere, nekazaritzako erregaien edo kotxe elektrikoaren erabilera bezalako politika apaingarriekin.
- TRENA. Trenaren erabilera sustatzea, baina ez azpiegitura handiak bultzatuz (abiadura handiko trenerako beharrezkoak direnak, kasu).
- ITSAS ETA AIREKO GARRAIOA. Transatlantiko eta hegazkinetako ibilbideak ez sustatzea.
- MERKANTZIEN GARRAIOA. Esportazioak murrizteko bide berriak bilatzea, batez ere tokiko lan merkatuetan existitzen diren produktuekin, jasangarritasuna eta komertzio lokala biltuz, hozkailuen garraioa murriztuz eta kamioi indibidualen ordez tren garraioa indartuz.
- TURISMO ETA AISIALDI EREDUA. Distantzia handietan oinarritzen ez den opor eta aisialdi eredu sustatzea, baliabide eta konplexu turistikoak, transatlantikoak, eta abar. Eredu lokal jasangarri bat eta inguruarekiko errespetua bultzatzea.
 - Hirietako erdigunetan aisialdi lokal eta eskuragarria sustatzea
 - Oporretarako aukera lokal eta gertukoak sortzea egun sustatzen diren nazioarteko bi-daia planen ordez.

4. MAILA INDIBIDUAL/KOLEKTIBOKO ALTERNATIBAK

Hazkundera kontsumo-produkzio ereduaren eta egungo garapen teorien alternatiba gisa jaiotzen da, hazkunde honen kalitatea eta beharrezkoak diren baliabide naturalen agortzea aintzat hartu gabe mugagabea den hazkunde ekonomiko batean oinarritzen delarik.

Hazkunde hau energia kontsumo desproporzionatuarekin kontrajartzen da, egungo sistema ekonomikoaren produkzio maila mantentzeko beharrezkoa dena. Sistema produktibo kapitalistan energia ez da ezinbestekoa aipatutako produkzioa posible egiteko bakarrik, berezko produktu bat da (oinarrizko eskubide bat izan ordez), onura asko sortzen dituen, eta hortaz, espekulazioari eta merkatuko legeei lotua dagoena.

Hazkunderaren alde apustu egiteak haren inplementazioaren defentsa egitea inplikatzeko du, murriztu eta gure kontsumoa kontrolatuz gizakiaren eta naturaren arteko oreka harreman berri bat ezartzeko helburuarekin. Trantsizioa eguneroko keinu bakoitzean gure printzipioak aplikatzearen bidez egiten da: maila lokalago batean bizitzea bilatuz, efizientea, elkarlanean arituz, gure onurak autoproduzitu eta elkarbanatuz; borondate sinpletasuna bilatuz, erosteko ahalmena eta bizitza maila kontzeptuak birplanteatzen.

Ikuspegi energetiko batetik, urritzeak burujabetza energetikoa bilatzen du, zein energia produzitu eta eskatzen dugun erabakitze gaitasuna, ez zuzenean bakarrik, kontsumitzen ditugun onura produktiboen eskatzen dutenarena ere (elikadura, arropa, zerbitzuak, azpiegiturak, etxebizitza, eta abar).

Koherentzia hau bilatzen duten alternatiba ugari existitzen dira, nola maila indibidualean hala kolektiboan parte har dezakegarrik, gure eguneroko erabakien erantzule gisa. Hemen horietako batzuk proposatzen ditugu:

4.1 Maila indibidualean

Kontsumo energetikoa (Hiritarra/Landatarra)

- **Berogailua.**- Gure komunitate edo etxebizitzako ingurutzalearen eraginkortasuna behatzea, fatxadak isolamendua izaten saiatzea eta leihoak bikoitzak izatea. Termostatoa modu jarraitu batean babestu behar garen tenperatura batean jartzea, baina erosotasunari muzin egin gabe. Etxebizitzak aukera ematen badu, eguzki panel termikoak instalatzea ur beroaren erabilera aurrezteko.

Baserrri eremuan biomasa instalatu ahalko dugu, beti ere gure inguruan egurra lortzeko aukera baldin badugu.

- **Garraioa.**- Bizikleta erabiltzea eta oinez ibiltzea. Autoa eta bestelako ibilgailuen erabilera gutxitzea, eta erabiltzekotan modu eraginkor batean egitea, ibilgailuak partekatuz, eta abar.
- **Etxetresna elektrikoaren kontsumoa.**- Etxe mailan zati bat edo posible den gehiena berriztagarriekin kontsumitzea. Sarera egun existitzen diren kooperatiba elektriko askoren arteko bat baliatuta hel liteke. Konpainia hauetako batera gure faktura aldatuz, jatorri berriztagarria duen sorkuntza areagotzea eskatzen ari gara, eta egungo lobbie energetiko handiei boterea kentzen (konpainia elektriko handiak).

- Eguzki fotovoltaikoa sortzeko kita jartzeak ez du faktura elektrikoan soilik aurreztea ekarriko, produkzioa deszentralizatzen arituko gara horrela, eta kontsumitzen dugun energiaren zati baten jabetza izaten.
- Funtsezkoa da gure kontsumoak murriztea eta elektrizitatearekiko dugun menpekotasunarekiko kontziente izatea. Ahal den heinean gailu elektrikoak ezabatzea, erabiltzen ez dugunean dena itzalita mantentzea, beharrezkoak edo beharrezkoak ez diren kontsumoak murriztea...

Landa eremuan sare elektrikotik askatzeko aukera kontsideratu dezakegu. Egin aurretik, beharrezkoak diren kontsumo elektrikoaren inguruan hausnartu behar dugu eta erabiliko ditugun baliabideak optimizatu (eguzki energia, eolikoa, eta abar) erabilgarritasun egoeraren arabera (hozkailea neguan deskonektatzea eta goitegi bat erabiltzea, argi naturala aprobetxatzea...).

Gainontzeko erregaiak

Kontsumitzen dugun guztiak du ondorio energetikoa, izan prozesuan edo garraioan. Horregatik, ahalik eta tokikoena den kontsumoa bilatu behar dugu, eta trazabilitaterik ez dugun prozesudun produktuak saihestu (nondik datozen lehengaiak, non egon diren, biltegitatu, eta abar). Gainera, edozein gauza lortu baino lehenago berrerabili edo gure eskura dagoen beste edozer berreskuratu dezakegun planteatu dezakegu.

Gure jarduerak ere ondorio energetikoa dute, sortu egin behar den erregai fosilen bitartez mugitzen gara garraio batean, energia behar izan duen prozesu baten bidez burututako materiala behar dugu, eta abar. Eragin energetiko txikiagoa duten ekintzak aukeratzea gure esku dago.

4.2. Maila kolektiboan

Merkatu elektrikoan %100 berriztagarriak diren kooperatibak

Produkzio eta komertzializazio elektrikoaren kooperatiba hauek energia berriztagarria sortzea, deszentralizazioa eta burujabetza energetikoa defendatzen dute. Egungo politikak kritikatu egiten dituzte energia berriztagarri eta merkatu elektrikoaren erregularizazioaren aurrean. Kooperatiba hauek sorkuntza berriztagarrian inbertitzeko modu ezberdinak eskaintzen dizkigute eta gure faktura elektriko kudeatzeko komertzializatzaile elektriko gisa aukera bat ematen digute. Gainera, bere oinarri soziala parte hartzea da, horregatik aktiboki lagundu ahalko dugu, nahi badugu, eredu energetikoaren salaketan.

Euskal Herrian hauek ditugu:

- Goiener S.Coop.: www.goiener.com
- Som Energiaren talde lokalak, Energia Gara: www.somenergia.coop/es
- I-Ener: herritarrengan energiaren ahalduntzea bilatzen duen herritarren sozietate bat (Frantses estatuko figura legala) autoprodukziozko energia berriztagarrien proiektuak sustatuz www.i-ener.eus
- Barrizar S. Coop.: Zerbitzu energetikoen kooperatiba lokal bat da, zentralizatutako eredu energetikoaren trantsizioa bilatzen duena erregai fosilen menpe egotetik deszentralizatutako eredu batera, eta autonomoagora. Efizientzia energetikodun proiektuak eta energia berriztagarrienak sustatzen ditu. www.barrizar.com

Udal sareak

Espainiar estatuan enpresa energetiko handien Oligopolioari ihes egiten dioten udal sareak nahiz eta gutxiengoa izan, gure inguruan eredu batzuk existitzen dira:

- Oñatin, Oñargi udal enpresa bat da, Oñati udalerrian energia elektrikoa banatzeko helburuarekin sortu zena. Enpresa hau Merkataritzako Elkarrekin gisa sortua izan zen argia banatzen jarraitu ahal izateko, Elektrizitate Sektoreko 1997ko Liberazio Legeak behartuta.
- Tolosan, nola elektrizitatearen banaketa hala gasarena udalarena da. Tolargi da udalerriko energia elektrikoaren distribuzioa egiten duen enpresa, eta Tolosa Gas gasarena.

Udalerrri jasagarriak

- Astigarragako Inerdatu proiektu ireki eta parte hartzaile bat da, ehun soziala eta instituzionala mobilizatzea helburu duena, ekintza zehatzak sustatzeko eta kontzientziazioan eta sentsibilizazioan urrats erabakiorra izateko. Proiektuak udalerrri osoko energiaren kudeaketa gauzatzeko 4 fase ditu. www.inerdatu.com
- Asparrena egur eta ur andanagatik pribilegiatua den udalerrri bat da. Horregatik, udalak trantsizio energetikoaren prozesu bat abiatu du jasagarritasun energetikoa eta herriko energiarako autogestio ahalmena lortzeko helburuarekin. Energia hidraulikoa berreskuratu da, aholkularitza energetikoa gauzatu da eta barrutiko berogailua instalatu. Gainera, Europako bi ikerketa proiektutan hartzen du parte, EEPOSen (modu eraginkor batean biomasa, eguzkia, hidroelektrikoa... bezalako baliabide energetikoak txertatzeko simulatzaile birtual baten garapena) eta ORBEETen (eraikin publikoen energia kontsumoa murrizteko sistema adimentsuen bidez eta bertan lan egiten duten pertsonen jarrerak aldatzeko ekinez).

Proiektu integralak

Ekintza ekonomiko, sozial eta produktibo txikien alde apustu egiten duten komunitateak, tokiko baliabideak aprobetxatuz eta era berean, ingurumenarekin, oso begirunetsuak izanez.

- **Lakabe** eta **Arterra** bi komunitate autogestionatu dira, Global Ecovillage Network-ek (GEN) "ekoaldea" gisa kontsideratuak. Bi proiektuek jendartean bizitzeko modu berri bat bilatzen dute, harremantzeko beste molde bat bilatzearen bidez. Beste ekonomia modu batzuk bilatzen dituzte, indibiduala eta kolektiboa errespetatzen dituztenak, beste lidergo modu batzuk, eta inguruarekiko beste armonia modu batzuk. Bere helburua autoaskitasunera gerturatzea da, eta horren baitan, energiaren rola funtsezkoa da.

Mugimendu sozialak

- **Gure Energia, Plataforma Por un Nuevo Modelo Energético.** www.nuevomodeloenergetico.org y gureenergia.blogspot.com. Erakunde askok osatzen duten Plataforma bat da, Eredu Energetiko Berri Baten Alde (NME), teknologia zikin eta arriskutsuetan oinarrituta dagoen egungo egoera aldatzea defendatuko duena (erregai fosilak eta nuklearrak). NMEren zutabeak Aurrezteak, Berriztagarriak, Efizientzia eta Burujabetza energetikoa (deszentralizazioa...) dira.
- **Ekologistak Martxan** (www.ekologistakmartxan.org), Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) (www.isf.es), Deshazkundera (www.desazkundera.org), Eguzki, www.eguzki.org, Lurra, www.lurra.org, Euskal Herriko garapen jasan-ezina salatzeko helburuarekin jaio dena, EOS/BirdLife, (Espainiako Ornitologia Elkarrekin, naturaren kontserbazioaren eta bioaniztasunaren aitzindaria www.seo.org), besteak beste, beharpen energetikorantz eraldaketa sozialaren alde lan egiten duten elkarteak dira.

- **Bizi!**, jasangarritasunaren aldeko mugimendua, www.bizimugi.eu.
- **Sustrai Erakuntza fundazioa**, ingurumenaren kontrako atentatuen aurrean erantzuteko mugimendua, batez ere, Abiadura Handiko Trenaren aurka, www.sustraiarakuntza.org. AHT Gelditu! Elkarlana, www.ahtgelditu.org, M!M Mugitu AHT gelditzeko (<http://mugitu.blogspot.com.es>), Abiadura Handiko Trenaren kontrako koordinakundea.
- **Autopista Elektrikorik Ez/ No a la Línea de Alta Tensión**, www.olineadealtatension.blogspot.com.es
- **Coordinadora Anti-Coke**, Muskizeko Koke plantaren kalteen aurrean osasunaren eta ingurumenaren defentsarako koordinakundea www.coordinadoraanticoke.blogspot.com.es.
- **Fracking EZ**, Euskal Herrian Haustura Hidraulikoaren kontrako plataformak, www.frackingez.org, Nafarroan www.navarraantifracking.blogspot.com.es.
- **Lanak gelditu/ Yesa más no**, Yesako lakua handitzearen kontrako plataforma, www.yesamasno.blogspot.com.es
- **Ura Nueva Cultura del Agua**, Ibaien defentsarako Nafarroako plataforma, www.uranuevacultura.wordpress.com
- **Gipuzkoako errausketaren aurkako plataformen koordinadora**, hiri hondakinak kudeatzeko errausketa sistemaren kontrako koordinakundea, www.errausketarikez.org eta Zero Zabor www.gipuzkoazz.com, www.gasteizzerozabor.wordpress.com
- **Olaztin Errausketarik Ez**, Olaztin Cementos Pórtlanden errausketen kontra sortutako plataforma www.olaztinerrausketarikez.blogspot.com.es
- **Bizikleteroak**, bizikletaren erabilera sustatzeko sortutako elkarte, erabiltzaileen interes eta beharrak defendatzeko www.bizikleteroak.org. Biziz bizi, hiriko txirrindularien elkarte da, hirian zehar bizikletaren erabilera sustatzen duena www.bizizbizi.org, Libera tu bici, trasteleketan, garajeetan, eta abar, bizikletak geldi ez egoteko sortutako ekimena www.liberatubici.org eta Kalapie, hiriko txirrindularien elkarte www.kalapie.org.
- **Reciclanet**, Ordenagailuen berrerabilpenerako eta software libreen zabalpenerako elkarte hezitzaile ekologista eta solidarioa, www.reciclanet.org.
- **IberTrolas**: <http://ibertrola.blogspot.com.es>

Estatuan eta nazioarte mailan hau topa dezakegu:


- www.crisisenergetica.org
- Botere korporatiboa suntsitzeko eta enpresen inpunitateari amaiera jartzeko kanpaina: www.stopcorporateimpunity.org, Oilwatch: www.oilwatch.org, Fossil free: <http://gofossil-free.org>, grassroots climate movement: <http://350.org>
- **EJOLT (Environmental Justice Organisations, Liabilities and Trade)** www.ejolt.org
- **Earth First!**: <http://earthfirst.org.uk/actionreports>

Seguru zerrendatik kanpo mordo utzi ditugula, hauek Euskal Herrian aldaketa emateko ekimenen adibideetako batzuk baino ez dira. Segi zure egunerokoan eraldatzen, zure esku dago.



4

EKONOMIA BIRKOKATZEKO GAKOAK¹¹⁰



¹¹⁰ Ardatz hau REAS Euskadik landua izan da, ESK Sindikatua, Setem Hego Haizea eta Emaús Fundazio Sozialarekin parte hartzearekin.

SARRERA

Ekonomiaren deslokalizazioari erreferentzia egiten diogunean, sistema kapitalistak gaur egun barnebiltzen dituen prozesu askori lotuta egiten dugu. Lehenik eta behin, eta bere esanahi agerikoenari helduz, deslokalizazioak lurraldeko jarduera ekonomikoaren eta giza komunitatearen banaketari erreferentzia egiten dio. Hala, ekonomiaren finantzaketa aipatutako lurralde arrotzaren proba nabarmenena da. Fluxu ekonomikoen zati handienak ez du zerikusirik ekonomia erreal gisa izendatu denarekin, ezta espazio geografiko zehatzekin ere. Baina, gainera, onura eta zerbitzuei lotutako jarduera ekonomikoak ez du zertan lurralde batean kokatua egon. Onuren maximizazioa da jarduera ekonomiko kapitalistaren helburu nagusia, horregatik, bere kokapena bere garapenerako gastu txikienak baldintzatuko du, erabaki honek dituen ondorio eta kalte sozial zein ekologikoak alde batean utzita. Beraz, lehendabizi, ekonomia gizakien lurralde lokalean birkokatze beharraz mintzo gara.

Bigarrenik, ekonomia giza ekintzen eta antolakuntza sozialaren multzoan “birkokatze” beharra sendotu dezakegu, gainontzeko esfera politiko, sozial eta kulturalen aurrean honek duen paper nagusia ezabatuz. Ekonomia herritarrak hartu beharko genituzkeen erabaki politikoaren kontrolpean egoteko birkokatu. Ekonomia antolakuntza sozialaren sistemaren eraikuntzaren oinarria ez izateko birkokatu.

Eta, azkenik, ekonomiaren erdigunean erreprodukzio eta gure bizitzaren zaintza kokatzearen urgentziari erreferentzia egin diezaiokegu, elkarren mendekoak eta ekodependienteak baitira. Bizitzaren jasangarritasuna ekonomiaren erdigunean birkokatzea, kapitala mugituz.


1. TESTUINGURUA IKUSPEGI GLOBAL BATETIK

2007tik aurkitzen garen krisi sistemikoak eta herritarrengan honek dituen ondorio zuzenak (bereziki babes gutxien duten biztanleriaren sektoreetan), merkatu librea deiturikoaren funtzionamenduak ez duela ez pertsonen ezta herrien beharri erantzuten demostratu dute. Krisi honek bistan utzi du sistema ekonomiko kapitalista herritarren eta politiken kontrol guztitik kanpo dagoela. Ekonomia erreala, planetaren ingurumen jasangarritasuna eta gizakiaren ongizatearen aurrean, ekonomia espekulatuak lehenetsi duen sistema bat.

Estatu eta konpainia handiek krisi honi ekonomikoa deitu arren, errealitatea askoz zabalagoa eta ezezagunagoa den zerbaiti aurre egiten diogula da, krisi politikoari, ekologikoari, zaintzenari, klimatikoari, baloreei... Hau da, krisi sistemiko bati.

Bide beretik jarraituz gero, etorkizunean gorune eta krisi jarraituen ziklo historiko berriak igaroko ditugu, zeintzuetan ekonomiak periodikoki behea joko duen ondoren altxatu eta gailur berriak lortzeko. Gehiengo sozialen erantzun geroz eta zabalagoan, erradikalagoan eta masiboagoan oinarritutako baldintza subjektiboak existitzen ez diren bitartean, kapitalismoaren krisi periodikoak sistema ekonomiko eta sozial bezala desagerrarazten lagunduko dutenak, ameskerria da pentsatzea kapitalismoa barne kontraesenek probokatutako inplosioagatik eroriko dela. Honek ez du ezabatzen, kolapso ekologikoen agerpena oso aurreikusgarri bilakatu baizik, zeinak etorkizuneko krisiei gaur egun arte ezagutu dugun baino inpaktu handiagoko aldagaiak erantsiko dizkion, eta era berean, kapitalismoa ankerkeria ekozidan eta genozidan oinarritutako politikak eta gobernu erregimenak diseinatzera behartuko duen.

Horren proba da existitzen den ekonomia global eta deslokalizatu baten hazkunde posibilitatea, sinpleki, bateraezina izatea baliabide energetikoen amaigarritasunarekin eta ingurumenaren erreproduzio zikloekin. Aipatutako ildotik jarraitzeak bizitzaren existentzia propioa arriskuan jartzera eramango gintuzke erremediorik gabe. Izatez, aztarna ekologikoaren kontzeptuak, aukera horren entzutean jartzen du posibilitate hori, herrialde batzuk eta beste batzuk honekiko duten pisuaren desoreka bezala, ondorengo mapa¹¹¹ “deformatuan” konproba litekeen bezala, herrialde bakoitzaren benetako arrastoaren arabera.



Adibide bakar bat jartzeagatik, Espainiar Estatuko biztanle batek lurraldeko 6,4 hektarea behar ditu batz bestea bere kontsumoa asetu eta hondakinak xurgatzeko, aipatutako Estatuak onar lezakeenaren ia hirukoitza. Azken hamar urteetan arrasto hau %34 hazi da, hein handi batean kontsumo energetikoaren hazkundearen ondorioz¹¹².

Sistema produktibista baten hondakinen kudeaketa eta kontsumismoaren sustapena, ekonomia hau jasanezin egiten duten beste alderdietako bat da. Esaterako, Nazio Batuen datuen arabera, urtero mundu osoan 20-50 miloi tona hondakin elektronikoa produzitzen dira, eta kutsakorra den txatarra honen %80 inguru herrialde pobreetara esportatu egiten da¹¹³. Hortaz, deslo-

111 <http://www.worldmapper.org/display.php?selected=322>

112 <http://larimera.weebly.com/anaacutelisis-del-entorno.html>

113 <http://ethic.es/2011/12/residuos-2-0/>

kalizazioaren inguruan hitz egitean ezin dezakegu produkzioaz soilik jardun, baizik eta ekoizpen honen gaineratikoaz ere.

Azkenik, ingurumenaren alorrean ere, CO₂ emisioen iraunkortasuna, desberdintasunak markatua ere, aipatu behar da. Hala, planetako biztanleria aberatsenaren %7 (500 milioi pertsona) CO₂ emisio globalen %50ren erantzulea da, pobreagoak diren %50ak mundu mailako emisioen %7 bakarrik jaurtitzen duen bitartean.

Globalizatutako eta deslokalizatutako ekonomia honen beste ezaugarri bat desberdintasunen areagotzea da. Oxfam Internacional-en¹¹⁴ txosten batek, berriki, desberdintasun hauen inguruko hainbat datu esanguratsu bildu ditu, baita berauek krisiarekin nola areagotu diren ere:

- Azken urtean, munduko 85 pertsona aberatsenek minutuko miloi erdiko irabaziak lortu dituzte. %14ko igoera da.
- Krisiaren hasieratik munduan mila milioi dituzten pertsona kopuru bikoitza dago: 793tik 1645 pertsonara igaro da 2008 eta 2014 artean.
- Hamar pertsonatik zazpi aberats eta pobreen arteko diferentzia duela 30 urte baino handiagoa den herrialdeetan bizi dira.
- Afrikan, Saharaz hegoaldeko herrialdeetan, mila milioi dituzten 16 pertsona, muturreko pobrezia egoeran dauden 358 milioi lagunekin bizi dira.
- Espainiar Estatuan, 20 pertsona aberatsenek, pobreenak direnen %30ak adina dute (14 milioi pertsona), eta azken urtean haien ondasuna 15.450 milioi dolarretan handitu dute (orduko 1,7 milioi baino gehiago), 115.400 milioi dolarreko aberastasuna pilatuz. Era berean, aberatsenen %1ak biztanleriaren %70ak beste du (milioi erdi pertsona baino gutxiago, 21,5 milioi herritarren aurrean).
- 2013tik 2014ra, Hego Amerikan eta Kariben bakarrik, mila miloi dolar baino gehiago dituzten pertsonen kopurua %38 hazi zen. Latinoamerikako aberatsek paradisu fiskaletan bi bilioi dolar inguru pilatzen dituzte.

Aberastasanaren kontzentrazio hau, bereziki esanguratsua da multinazionalen alorrean, gaur egungo deslokalizatutako kapitalismoaren ikur nagusi dena. 82.000 enpresa multinazional inguru existitzen direla kalkulatzen da (800.000 filial inguru kontrolatzen dituztenak), mundu mailako esportazioen heren baten arduradun direnak eta 77 milioi langileri enplegua ematen diotenak. Nola kapitala hala horietako batzuetan lanean dauden behargin kopurua Barne Produktu Gordina eta herrialde askotako langile kopurua baino handiagoa da.

Deslokalizazioa globalizazio ekonomiko neoliberalaren ikur eta estrategia gisa, produkzio kostuen murrizketa eta ezabaketa bilatzeko logika batetik ulertu da, inplantatutako herrialdeetan lan eta ingurumen eskubide babes txikiagoarekin babestua. Hala, injustizien mapa globalaren botere asimetria eta desberdintasunen lagin gisa kontsidera liteke, enpresa transnazionalen eskubideak giza eta estatuen eskubideen gainean nagusitzen direlarik.

Era berean, globalizazio ekonomiko neoliberalaren beste estrategia bat merkatu librearen akordioak dira, ezabatzeko lurraldeen edo muga-zergen deskontuen arteko hitzarmen komertzial gisa aurkezten direnak, baina enpresa transnazionalen mesedetan araudiak, arauak, esku-

¹¹⁴ Oxfam Internacional (2014): IGUALES: "Acabemos con la desigualdad extrema. Es hora de cambiar las reglas" (<http://www.oxfamintermon.org/es/que-hacemos/proyectos/desigualdad/iguales>)

bide korporatiboak eta inbertsio bermeak moldatzetik baino askoz harago doazenak. TTIParen kasuan (Europako Batzordea eta Amerikako Estatu Batuetako gobernuaren artean orain negoziatzen ari den Komertzio eta Inbertsiorako Akordio Trasantlantikoa), muga-zerga gabeko barren enfokea eta inplikaturako herrialdeen arteko araudiaren konbergentzia deserregularizazioa sustatzeko erabiltzen ari da, monopolioak bakarrik bultzatzen dituen jabetza intelektualen eskubideen bisio bat, eta eskubideak eta estandarrak behetik berdintzeko bidea.

TLCak kapital transnazionalaren interesetarako erreminta estrategikoak dira, mapa globalaren desberdintasunak eta injustiziak sustatzen dituztenak. Finantzaketa eta enpresa handien boterea areagotzen duten tresnak dira, pertsona eta herrien askatasunen, eskubideen eta burujabetzaren kaltetan.

Ez da harrizkoa, haatik, alor politiko ekonomikoaren erabakien zati handi bat instituzio finantzarioek, erakunde multilateralek eta herrialde propioek hartzea; eta hauetan aipaturako multinazionalen presioek esku-hartzea egotea, politika fiskal eta komertzialetan onurak lortzea bilatzen baitute, ingurumen jasangarritasunari, pertsona kontsumitzaileen osasunaren zainketa edo langileen eskubideei lotutako kontuetan haien jarduerari lotutako oztopoak ezabatzea rekin batera.

Eta ez dio bizitzaren jasangarritasun propiorako zentzugabekeria izateari uzten multinazional hauek jarduten duten sektore garrantzitsuenetako batzuk farmaziakoak, osasunekoak edo elikadurakoak izateak.

Pertsona eta herrien arteko desberdintasunen zabalkundearen iruntzia, pobrezia eta bazterketa sozialaren hazkundera da. Hala, mundu mailako populazioaren %20ak aberastasunaren %90 duen bitartean, mila milioi pertsona baino gehiago egunero dolar bat baino gutxiagorekin bizi da; eta 2.800 milioi, hots, munduko biztanleriaren erdia, 2 baino gutxiagorekin. Espainiar Estatuaren kasuan, EAPNren datuen arabera (Pobrezia eta bazterketa sozialaren kontrako borrokaren Europako Sarea)¹¹⁵, 12,8 milioi pertsona baino gehiago, biztanleriaren %27,3 pobrezia edo bazterketa arrisku egoeran aurkitzen da. 2009tik 1.320.216 lagun ahultasun egoera honetan erori dira, %2,6ko gehikuntza suposatzen duena.

Enplegurako sarbidearen bidez herritarren ongizate saiakera promesa bermatzeko gai ere ez den sistema ekonomiko bat. Langabeziak, krisi bitartean, %25eko tasa igotzea ekarri du Espainiar estatuaren kasuan. Baina lan postu bat izatea, garai hauetan, ez da bizitza kalitatearen bermea ere ez. Milioi bat behargin pobre baino gehiago daudela kalkulatu da, hau da, nahiz eta enplegu bat izan, honek ez duela bizitza duin baterako diru sarrera bermatzen. Izan ere, enplegua, kapitalismoaren etapa honetan, bereziki prekaritateak ezaugarritzen du: enplegu partzialak, aldi baterako lan-postuek, soldata baxuek, oinarrizko onuren prezioak handitzearen aurrean langile klasearen erosahalmenaren galerak, eta abar.

Datu guzti hauek aldrebesak dira, gainera, emakumeek genero arrazoiengatik sufritzen duten desberdintasun bikoitzagatik. Desberdintasun bikoitza ez da bakarrik datu ekonomikoetan finkatzen, emakumeen bizitzako alde guztiei eragiten dien kultura sozialaren parte dira. Hauek dira biztanleria pobrearen artean txiroenak, bai maila globalean eta baita Estatu Espainiarrean ere. Soldatetan desberdintasunak, lan produktibo eta erreproduktiboetarako denbora erabilera

115 <http://www.eapn.es>

ezberdinak, bereizketa laborala, diru-sarreraren banaketa ezberdina, politika mailan eta sozialki ordezkari baxua, estereotipo sexistak, jazarpena eta biolentzia... Sistema honen ezaugarrietako batzuk dira, kapitalista eta globala izateaz gain, izaera patriarkala duena.

Baieztape hauek datu batzuekin lurreratzea komeni dela uste dugu, globalki eta lokalki diskriminazioa bistaratzen dutenak:

- Pobrezia egoeran dauden pertsonen %70 emakumea da, Nazio Batuen arabera.
- Munduan hiltzen den emakumeen %38 genero indarkeriaren ondorioz zentzen da¹¹⁶.
- Orokorrean, munduan, emakumeen diru-sarrera nazionala pertsonako 8.956 US\$ekoa da, gizonezkoena 18.227 US\$ den bitartean. Espainiar estatuan emakumeen diru-sarrerak gizonezkoenak baino %38 txikiagoak dira¹¹⁷.
- Espainiar estatuko emakumeen soldata totala 19.537,3 eurokoa da, eta gizonezkoena 25.682,1 eurokoa¹¹⁸.
- Mundu osoan, baldintza laboral prekariodun sektoreetako enplegua, arropa, etxeko lana eta menpeko pertsonen zainketa kasu, nagusiki emakumeek okupatua da.
- Estatistikaren Institutu Nazionalaren arabera, Estatu espainiarrean, emakumeek batz besterik lau ordu eta 29 minutu ematen dituzte etxebizitzan eta familian, eta gizonek 2 ordu eta 32 minutu.
- Zainketa lanei lotutako desberdintasunei dagokienean, Euskal Herrian, 2015ean seme-alaben zainketarako eszedentzia eskatu zuten pertsonen %96,07 emakumea izan zen; eta arrazoi horregatik jardun murrizketa eskatu zuten %91,69 ere bai, %8,31 gizonezkoa izan zelarik. Era berean, menpekotasuna edo gaixotasun larria duen senide baten kargu egiterako orduan eszedentzia eskatu zutenen %78,95 emakumeak izan ziren, jardun murrizketaren banaketari dagokienean %80,25 emakumeena izan zelarik¹¹⁹.

Azkenik, deslokalizazio ekonomikoaren prozesu ezberdinei zainketa kate globalen inguruak erantsi behar zaizkiola nabarmendu beharra dago. Kate hauek "dimentsio transnazionalak dira, bizitza egunerokoa eusteko helburuarekin sortuak, eta etxetan botere ardatzen arabera zainketa lanak transferitzen direnak, zeinaren artean generoa, arraza, klase soziala eta jatorria azpimarratu behar den"¹²⁰. Ekonomia birkokatzeak zainketa hauen birkokapena aldarrikatzea ere esan nahi du.

2. EUSKAL HERRIKO TESTUINGURUA

Euskal Herria ez da aurrez azaldutako egoera sozioekonomikotik aldentuta geratu. Egia den arren Ongizateari dagokionean adierazle positiboago batzuk mantentzea lortu duen lurraldea dela, gertuko beste herrialde batzuekin konparatuz, bere ekonomiaren dibertsifikazio sektorialagatik, erabaki politikoen eremu batzuetan erabakiguneetako autonomia mailagatik, ekonomia sozialean duen pisu garrantzitsuagatik (bereziki kooperatibismoan), babes sozialeko politika zehatz batzuen existentziagatik edo mugimendu sozial eta herritarren dinamismo zabal batzuegatik

116 WHO: Reportaje Violence of Women

117 PNUD: Giza Garapenaren txostena (<http://hdr.undp.org/es/content/informe-sobre-desarrollo-humano-2014>)

118 ESTATISTIKEN INSTITUTU NAZIONALA: "Encuesta Anual de Estructura Salarial 2012" (<http://www.ine.es>)

119 http://www.economiasolidaria.org/el_cuidado_de_la_familia_no_es_cosa_de_hombres

120 PÉREZ OROZCO, Amaia (2007): "Cadenas Globales de Cuidado". 2 zenbakidun Lan Dokumentua. INSTRAW (<http://www.casaasia.es/encuentromujeres/2011/files/cadena-global-cuidados.pdf>).

(alternatiba ekonomikoen alorrean ere bai), derrigorrezkoa da igarotzen ari garen krisi luzearen aurrean dugun etorkizuna hodeitsua izatea ekarri duten elementu horien balantze kritikoa egitea.

Lehenik eta behin, garatutako politika publikoen orientazioa mahaigaineratu behar dugu. Guztiz neoliberalak izan dira, austeritatearen aldeko apustua eginez, modu orokortuan murrizketa sozialei mesede egitearen kontura. Eusko Jaurlaritzak maniobra politiko, ekonomiko (euskal ekonomiaren egiturari dagokionez) eta finantzarioa egiteko aukera zuen beste mota bateko politika ekonomiko eta sozialak inplementatu ahal izateko, Europar Batasunak eta Estatu Espainiarrak markatutako bidearen hain jarraitzaile izango ez zirenak.

Beste hainbeste esan liteke patronalari buruz. Industriaren oinarriak eta Euskadin existitzen diren zerbitzu motek ez zuten Confebask Madrilen ezarri diren erreforma laboralak aplikatzera behartzen, egin duena bezain maila agresiboan. Patronalak langile eta sindikatuen mugimenduari porrota inposatzeko krisia aprobetxatu du, ez krisiak berak enpresak eta ekonomia aurrera ateratzeko exijitzen zuelako, baizik eta horrela baldintza bikainak sortzen zirelako krisiaren-osteko etorkizuna kapitalaren oso mesedeko den indarren arteko harreman marko baten baitan eman zedin, kasu honetan bezala.

Euskal langileen mugimendua, eta bereziki bertako sindikatua, ez da gainera erori zaizkien eraso neoliberalak gelditzeko erronkak eskatzen zuen neurrira iritsi. Egia da borrokarako borondate minimoa apenas erakutsi duten sindikatu horiek bereizi behar direla, eta ausarki akordioaren eta paktu sozialaren zirrikituak bilatu dituztela, ezinezkoa izan dena; GUNEn bildutakoek (ELA, LAB, ESK, STEILAS, CGT, CNT, EHNE, HIRU), mugimendu sozial ugariarekin batera, 2009tik hona gauzatu diren Greba Orokor askotan eta bestelako mobilizazio ekimenetan funtsezkoak izan diren aktibatzaile papera jokatu dute.

Euskadin ireki den panorama, 2013ko Atzeraldi Handia gainditua, apenas da erakargarria, eta oso nahasgarria da. Azken bi urteetan BPGren datu makroekonomikoa eta enplegua jada zehaztapen positiboetan mugitze hutsa, ez da oso esanguratsua krisiaren behin betiko irteera ekarriko duen etorkizuna birpentsatzeko orduan. Eta ez bakarrik mundu mailan, zehazki Europako koiuntura ekonomikoan, irmotasun gutxirekin eta atzeraldian berriro jauzteko hainbeste mehatxurekin agertzen direlako, baizik eta munduko kapitalismoa maneiatzen duten sektoreen aldetik azken urteetan krisitik ateratzeko hartu diren neurriek, aurrera joateko ihesaldi bat egiteko bakarrik balio izan dutelako. 2007-2008 urteetan hasitako krisi sistemiko handia askatu genuenean genituen kontraesan berdinetan murgilduta jarraitzen dugu. Baina ez hori bakarrik, krisiaren kolpeek gure gizarteak izugarritzko muturreraino zatikatu dituzte, urte hauetan galdu den askoren berreskurapen sinplea ia ameskeria bihurtu delarik.

Eta esandako guztiaz gain, ekonomia eta politika gidatzen dutenek, ez dute inondik inora haien orientazioa aldatzea pentsatzen. Gure lurraldea garapen, produkzio eta kontsumo dinamika berdinetan murgildua dago (beraz sozialki zein naturalki jasanezina), sistema menderatzen dituen gainontzeko lurraldeak bezala.

Horren adibide, ingurumenaren eremuan Euskal Autonomia Erkidegoan utzitako inpaktua-
ren arrasto ekologiko handia nabarmendu behar da, azken urteetan ez dena areagotzeari utzi,
hurrengo taulan konproba dezakegun bezala¹²¹.

121 <http://www.ihobe.eus>

1. Taulan Euskal Autonomia Erkidegoan utzitako arrasto ekologikoaren emaitzaren laburpena jasotzen da. 2001ean, Euskal Autonomia Erkidegoko arrasto ekologikoa biztanleko 4,66 hektarea globalera igo zen. Honek 1997 urtearekiko %4,12 areagotzea suposatzen du.

AZTARNA EKOLOGIKOA (gha/cap)

| GAINAZALAK | 2001 | 1997 |
|---|------|------|
|  Laborantza | 1,10 | 1,07 |
|  Bazkak | 0,26 | 0,25 |
|  Baso produktiboak | 0,50 | 0,48 |
|  Itsasoa | 0,58 | 0,56 |
|  Eraikitako azalera | 0,05 | 0,05 |
|  CO2 xurgaketa | 2,17 | 2,07 |
|  GUZTIRA GAINAZALAK | 4,66 | 4,48 |

Bilbo, inguruko beste batzuekin konparatuz gero, inpaktu ekologiko handia duen hirietako bat da. Zehazki, 100,88 aldiz beharko luke bere territoria bere aztarna ekologikoaren inpaktua orekatzeko, baina ez da bakarria, zeren Hego Euskal Herriatik atera gabe, Iruñeak 89,36 aldiz beharko luke bere lurraldea.

Era berean, nahiz eta inguru gertuan langabezia edo pobrezia adierazle zertxobait hobeekin kontatu, bazterketa sozialaren egoerak edo horretan jauzteko arriskuak euskal biztanleriaren zati garrantzitsu bat harrapatzen du.

2014ko Euskal Autonomia Erkidegoko Behar Sozialen Inkestaren arabera (BSI)¹²², 2012 eta 2014 artean pobrezia arrisku egoeren igoera bat eman da (etxeetako diru-sarreraren gutxiegitasuna oinarritzko beharrei erantzuteko). 2008an kaltetutako pertsonen proportzioa %5,7 zen, eta 2014an %8,2. Bestalde, ongizatearen gabezia arriskua (EAE bezalako gizartean espero den gutxieneko ongizate maila mantentzeko gastu beharrak), 2008tik hazi egin da ere bai, %16,4 izate-tik 2014an %21,9ra, hain zuzen.

BSIren arabera, EAEn 2008an 89.706 pertsona zeuden benetako pobrezia egoeran, biztanleriaren %4,3 (bizitza baldintzak kontsolidatzea epe ertain edo luze batean onartzeko gaitasun falta). Hala, 2014an 127.399 dira egoera honetan dauden lagunak, biztanleriaren %5,9. Pobrezia errealean dauden pertsonengan %42ko igoera eman da.

Gainera, diru-sarreraren banaketan desberdintasuna areagotu egin da. Gizarteko biztanleria aberatsenaren %50ak 2014an 2008an baino diru-sarrera handiagoak izan ditu, eta kaltetuen

¹²² http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/informe_estudio/-informe-de-sintesis-del-modulo-epds-pobreza-de-la-encuesta-de-necesidades-sociales-2014/r45-docuinfo/es/

%50 da diru-sarrerren beherakada sufritzen duena. Pobreenak diren biztanleen %10ren diru-sarrerren galera, %13,4koa izan da.

Pobrezia errearen inpaktua emakumea buru den etxebizitzetan handiagoa da (%10,3koa, pertsona nagusia gizonezkoa denean %4,6koa den bitartean). Biztanlerian, orokorrean, emakumeak dira pobrezia errearen kaltetutako pertsonen %54.

Hego Euskal Herriko multzoan, datu ofizialen arabera¹²³, populazioaren %49,7k hilabete amaierara iristeko arazoren bat duela kalkulatu da (1.407.136 pertsonak guztira).

Azpimarratzekoa da, halaber, krisi garaia, ongizatearen galerarekin eta pobrezia handitzearekin lotutako adierazle guztiak areagotzea ekarri duela, Eusk Jaurlaritzaren propioak egiten duen Pobrezia eta Desberdintasun Sozialaren Inkestan (PDSI) konproba daitekeen bezala¹²⁴.

| | 2004 | 2008 | 2012 | Var. % 2008/12 |
|--|--------------|-------------|--------------|-------------------|
| Mantenimenduko pobrezia adierazleak | | | | |
| - Oinarrizko gastuak murrizteko beharra | 190,3 (9,1) | 174,1 (8,1) | 362,9 (16,7) | 108,4 |
| Elikadura arazo larriak eta oso larriak | 108,9 (5,2) | 122,0 (5,7) | 168,1 (7,7) | 37,8 |
| - etxeetan gosez dauden pertsonak | 26,5 (1,3) | 21,2 (1,0) | 46,1 (2,1) | 116,8 |
| - Ordaingabeak (alokairuak, hipotekak, ziurtagiriak...) | 55,7 (2,7) | 63,4 (2,9) | 127,6 (5,9) | 101,2 |
| - Horniketa mozketak (ura, argia, telefonoa) | 23,9 (1,1) | 35,2 (1,6) | 52,4 (2,4) | 48,9 |
| - Bigarren eskuko prenden baliabideak | 121,8 (5,8) | 79,6 (3,7) | 153,9 (7,1) | 93,3 |
| - Azken neguan zehar etxean hotza | 113,6 (5,5) | 88,6 (4,1) | 180,2 (8,3) | 103,4 |
| Ongizate faltaren adierazleak | | | | |
| - Gastuen koberturan zailtasunak, ohiko aisialdia | 272,1 (13,1) | 245 (11,4) | 531,5 (24,5) | 116,8 |
| - Gastuen murrizketa aisialdi eta denbora librean | 236,0 (11,3) | 218 (10,2) | 467,9 (21,6) | 114,2 |
| - Arazo ekonomikoengatik opor eza | 411,3 (19,7) | 436 (20,3) | 457,8 (21,1) | 4,9 |
| Arazoei aurre egiteko moduak | | | | |
| - Hirugarren pertsonen laguntza eskaera | 148,0 (7,1) | 138,0 (6,4) | 279,0 (12,9) | 102,1 |
| - Instituzio publikoen laguntza eskaera | 84,1 (4,0) | 76,1 (3,5) | 181,6 (8,4) | 138,5 |
| - Aurrezteko baliabide esanguratsuak | 117,0 (5,4) | 100,5 (4,7) | 266,5 (12,3) | 164,9 |
| Mantenimendu pobrezia eta ongizate faltara egokitutako adierazle sintetikoak (EPDS) | | | | |
| - Mantenimendu pobrezia (EPDS adierazlea) | 116,5 (5,6) | 121,8 (5,7) | 157,7 (7,3) | 29,5 |
| - Ongizate falta (EPDS adierazlea) | ... | 352 (16,4) | 432,9 (19,9) | 23,0 |

Edozein kasutan, nabarmenezkoa da ekonomia sozialak, eta bereziki kooperatibismoak, euskal geografian historia eta errotze handia izabari duenak, kontrapisuzko papera jokatu izana krisia enplegua suntsitzeko eta langileria txikitzeko aprobeztatu duten enpresa politiken aurrean.

Ekonomia sozialaren tradizio honek, geroz eta irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidario gehiago sustatzeko eragingarria izan eta ekonomia beste modu batean egiteko intentzioarekin loratzen denak; zuzentasunarekin, lanarekin, ingurumenaren jasangarritasunarekin, kooperazioarekin, irabazi asmoen ausentziarekin eta inguruarekin konpromisoa du. Begirada eta ekonomia praktika alternatiboen multzo heterogeneo honek, parametro ezberdin batzuetatik harreman ekonomikoak birpentsatzeko saiakera bat suposatzen duenak, azken denboraldian gailentasun handia hartzen ari da.

123 ESTATISTIKEN INSTITUTU NAZIONALA: Bizi baldintzen inkesta, 2013 (<http://www.ine.es>)

124 EAEko biztanleriaren inguruko milaka pertsonen eta portzentaien datuak. 2008 eta 2012 urteen arteko alderaketa portzentaien arabera bariazio batekin egiten da, krisi ekonomiko berrienak izandako efektuak erakusteko helburuarekin.

3. PROPOSAMENAK

Aurrez laburki aztertutako testuinguruaren ondoren, egungo sistema ekonomiko kapitalista sakonki eraldatu behar dela ondoriozta dezakegu, bidegabea delako, bortitza, elkartasunik gabea, patriarkala, antidemokratikoa eta jasanezina.

Eta adierazi behar da aipatutako aldaketa desiragarria dela (desioek bultzada etiko eta ideologikoekin zerikusia dute, bizitzaren hobekuntza eskuratu nahi baitute); beharrezkoa dela (ingurumen jasangarritasuna, soziala... finean, bizitzarena, lehendabizikoz kolokan baitago); eta posible dela (subjektu eraldatzaile izanez, pertsonak, erakundeek eta komunitateek ahal gure ekintza kultural, sozial eta politikoen bidez posible dugu).

Bestetik, ekonomia kritikoak deiturikotik, ekarpen teoriko eta praktikoa ezberdinekin kontatzen dugu; nola korrante klasiko sozialista eta libertarioena, demokrazia ekonomiko eta ekonomia parte hartzailea bezalako ikuspegi moderno eta ekletikoena, ongi bizitzearen paradigma; hala berrienak diren ekonomia feminista, ekologikoa eta soziala... Momentuz, post-kapitalista gisa soilik izendatu dezakegun ekonomiara eraldaketa orientatzen lagun dezaketek ekarpenak.

Transformazio beharrezko hau ekonomiaren eta prozesu sozial, politiko eta kultural guztien bizitza erdigunean jartzetik igarotzen da (edo atal honen sarreran deskribatu dugun bezala birkokatzeetik). Bizitza erdigunean jartzeak bizitzak zaintzea (eta autozaintza) suposatzen du, bizitzeak pena merezi izateko, eta gure eskura dauden baliabide guztiak artikulatzeko, zoriontasun eskubidea betetzeko. Zainketak aitortu eta baloratu behar ditugu, afektuak eta emozioak, beraien kudeaketa modu erantzukide batean asumitu behar delarik.

Ondorioz, beharrezkoa da ikuspegi aldaketa bat, lehentasunena. Bizitza estilo aldaketa bat, izatea aldarrikatzea edukitzearen aurrean, etorkizuneko belaunaldiekin desazkunde arduratsua bultzatzea planetaren aukerekin bateragarria ez den hazkunde mugagabearen ordeztasunaren banaketa bidezkoa egitea metatu beharrean. Harremanen eta praktika politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen eraikuntzan oinarritutako apustua da, pertsona, natura eta animalien artean errespetagarriak, bidezkoak eta solidarioak izan daitezen.

Halako eredu batean, indibidualismoa desterratzea eta pertsona bakoitzak gainontzekoekin eta naturarekin duen garrantzia finkatzea halaber beharrezkoa da aniztasuna bermatzen duen erakuntza prozesu kolektibo batean. Bizitzaren mantenua bermatzen duena.

Praktika ekonomikoen alorrean, bizitza erdigunean jartzeak horizontaltasuna eta parte hartzearen aldeko apustua egitea, erantzukide eta partekatua den talde lana, gaitasunetara egoitutako funtzio banaketa ez sexista, bizitzaren gainontzeko esferekin bateragarriak diren lan orduak, emozio eta afektuen presentzia harreman laboraletan, finean, pertsonen kudeaketa ez patriarkala egitea dakar.

3.1. Maila politiko eta estrategikoko aldarrikapenak

Produzitzeko, komertzializatzeko eta kontsumitzeko modu berri baterantz trantsizio politiko gidatu beharko luketen ideia-indar batzuk adieraz ditzakegu:

- Pertsonen, ongi komunaren eta ingurumenaren jasangarritasunaren zerbitzurako baliabide bihurtuko den ekonomia berri bat aintzat hartzea.
- Existentziarako eskubidea ezartzeko beharrezkoa den bidea egitea paradigma sozial berri gisa, beharrezkoa den materialaren hornidura bermatuz baldintza gabe.
- Ekonomia desinteresatu baten aldeko apustua, ez irabazi asmoan eskusiboki oinarritua. Komertzio librean tratatzen direnak bezalako erremintak ez babestea, kapital transnazio-nalaren interesei mesede egitean zentratua, lan eskubideak, ingurumenaren babesa eta herrien burujabetza, besteak beste, urritzearen kontura.
- Erabaki eta praktika ekonomikoen alorrean parte hartzerako, autogestiorako eta burujabetzarako eskubide eta praktika, nola maila pertsonalean hala kolektiboan (erakundeak, komunitateak eta estatudun edo estatu gabeak diren herriak/nazioak)
- Efizientzia ekonomikoaren gako gisa kooperazioaren aitortza.
- Jarduera ekonomiko demokratikoaren aldeko apustua, eta beraz, inklusiboa: ez eksklusiboa, ezta bazterketa sortzailea ere.
- Ondasun komunen defentsa, baita bere kudeaketa eta erabileraren demokratizazioa ere, edozein produkzio, garapen edo irabazi pribaturen defentsaren gainetik.
- Jarduera ekonomikoen garapenean aniztasuna sustatzea (kulturala, etnikoa, linguistikoa, sexuala, funtzionala eta biodibertsitatea berarena).
- Guzti hori, bizitzaren jasangarritasunarekin lotutako prozesuen mantenu eta lehenespenetik.

Ekonomia berri baterako printzipio estrategiko hauetatik, uste dugu badirela identifikatu ditzakegun azentu politiko batzuk ekonomia pertsonen, ondare komunen eta bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura egongo den eremu batzuk sustatzeko. Gizarte bidezkoagoak, inklusiboagoak, sozialagoak eta ingurumen aldetik jasangarriagoak eraikitzeke norabidean bere garapen eredia birdefinituko duten eremuak.

a. Ondare komunen zerbitzura kudeaketa instituzional bat garatzea

Instituzioek, haien kudeaketa propioaren baitan eta dituzten erreminta propioekin, ondare komunen irizpideetan oinarritutako neurriak hartu behar dituzte:

- Planetaren gaitasunetara egokitutako kudeaketa publiko egokia
- Politika publikoen identifikazioan, kudeaketan eta ebaluazioan herritarrek eta erakunde sozialek parte hartu ahalko duten espazioak sustatzea.
- Kudeaketa ekonomikoaren auditoria publiko eta parte hartzaileak egitea eta kontrol eta gardentasun erremintak bermatzea.
- Aurrekontu publiko parte hartzaileen elaborazioa.
- Politikei buelta bat ematea eta teknika eta aurrekontuak indartzea, kohesio soziala bultzatzeko alorrak lehenetsiz: Oinarrizko Errenta Unibertsal eta baldintzarik gabea¹²⁵ edo Berdintasunezko Oinarrizko Errenta¹²⁶ eskuratzeko bidea egitea, zerbitzu eta politika sozialak,

¹²⁵ Oinarrizko Errenta Unibertsala eta baldintza gabea estatuak ordaintzen duen diru-sarrera da, herritarren eskubide gisa, eskubide osoa duen kide orori edo jendartean bizi denari, ordain saririk gabe lan egin nahi duenari barne, aberatsa edo pobrea den kontuan hartu gabe, beste era batean esanda, bere errenta iturriekiko independenteki, eta norekin bizi denari garrantzirik eman gabe. Hitz gutxitan: oinarrizko errenta bat biztanleria guztiarentzako diru publikoaren esleipen baldintza gabea da.

¹²⁶ Berdintasunezko Oinarrizko Errenta Balandreren proposamena da, Oinarrizko Errentaren printzipioetatik abiatuta jendarte antikapitalista eta ez heteropatriarkal baterako trantsiziorako erreminta bilakatzea nahi duena. Eskubide indibidual batez

berdintasun eta aniztasun politikak, etxebizitza, osasun publikoa, hezkuntza publikoa, eta abar.

- Instituzioek existentzia eskubidea bermatu behar dute eta berau baldintzarik gabe betetzea, beharrezkoak diren baliabide ekonomikoekin hornituz. Horretarako funtsezko erreminta dira Oinarrizko Errenta Unibertsala eta baldintzarik gabea zein Berdintasunezko Oinarrizko Errenta.
- Lan guztien banaketa politikoaren plan eraginkorra garatzea, enpleguen ordain sariei dedikatutako denbora murriztuz.
- Instituzioen aldetik sozialki arduratsuak diren erosketa publikoak egiteko neurriak garatzea, irizpide lokalak, sozialak, etikoak eta ingurumenarekikoak lehenetsiz zerbitzu zein erosketen kontratazio eta erosketetan.
- Erabilera baloreei mesede egitea aldaketaren aurrean, gutxiegi erabilitako landa lurretan eta hirietako espazioetan jarduera ekonomiko sozial eta komunitarioa garatzeko.
- Azalera handietarako espazioak mugatzea, baita kontsumoa sustatzen duen publizitaterakoa ere.
- Finantza etikoen kooperatiba sozialetan instituzio sozio gisa parte hartzea, eta ahal dela haien zerbitzuak erabiltzea banku konbentzionalena ordez.
- Energia berriztagarrien produkzio eta komertzializazioan dabilzan kooperatibetan instituzio sozio gisa parte hartzea, eta ahal dela haien zerbitzuak erabiltzea multinazionalena eta irabazi asmodun enpresa pribatuenaren ordez.
- Ikuspegi feminista eta bizitzaren jasangarritasunaren paradigma kudeaketa instituzionalaren eremuan zehar lerro bilakatzea.
- Pribatizazioak etetea eta pribatizatutako lan sektoreak berreskuratzea (garbiketa, eta abar). Enplegu publikoaren sorrera eta kalitatearen hobekuntza. Aldikako kontratazioetan iruzurra ezabatzea, enpresak aldikako enplegua mugagabe bilakatzera behartuz eta azpi-kontratazioak mugatuz.
- Osasun laborala babesteko lana indartzea, baita langileen bizitza ere.
- Baldintza laboraletan berdintasuna bermatzea, genero, adin, ezintasun edo nazionalitate arrazoen diskriminazio guztiak ezabatuz.
- Aberastasunaren banaketarako tresna garrantzitsuenetako bat fiskalitatea da. Gure helburua norabide hori bultzatzea izan behar da, egungo errenta eta ondarearen banaketa ereduari aurre egingo dion errotiko aldaketa bilatuz, geroz eta desberdintasun gehiago sortzen baititu.
- Ondorengo eskubideen aitortza lege bidez ezartzea: menpekotasun egoera guztien aurrean kobertura, kalitatezko zerbitzu publiko batean artatuak izateko. 0-3 urte bitartean eskatzen diren plaza kopuru guztiei bide ematea sare publikoan. Alokairu sozialeko etxebizitzarako sarbide efektiboa, eta etxebizitza hutsen penalizazio fiskala.
- Sektore publikoaren bultzada garapen ekonomiko eta sozialerako motore gisa. Horrek finantzaketa sistema publiko bat eskatzen du (banku publikoa), baita industria eta energian sektore publiko indartsua ere, eta gainontzeko politika sektorialak orientatzea.
- Politika ekonomiko eta sozialen diseinuan parte hartze soziala sustatzea, jendartearen iritzia kontuan hartuz gai garrantzitsuetan benetako kontsulta eta erreferendum erabakigarrien bidez (zeren erreforma, Abiadura Handiko Trena, Oinarrizko Errenta Unibertsala eta baldintza gabea...).

ariko ginake, unibertsala eta baldintza gabea, edozein pertsonak jasoko lukeena bere egoera administratibo, pertsonal zein sozialekiko independentziaz. Jasotako diruaren zati hazkor bat fondo batera bideratzea aurreikusten da ere, definitutako zerbitzu soziokomunitarioak eta kolektiboki zein demokratikoki kudeatuak finantzatzeko.

- Lan harreman eta babes sozialen marko propio bat sustatzea, enplegu, negoziazio kolektibo eta babes sozialaren alorrean legedia propio bat izateko; era honetan berau bere kasa bermatu ezin balitz beste neurri batzuen artean hauek onartzeko: lan jardunaren murrizketa, ordu extrak desagertzea, erretiroa aurreratzea, enplegu politika efizienteak garatzea, pentsioen sistema hobetzea eta soldatak duintzea.

b. Garapen alternatibo baterako ekonomia berri bat sustatzea

Beharrezkoa da lurralde bateko jardun ekonomikoaren eraldaketan eragiten saiatzea, jarduera hau birkokatuko duen ekintza zuzen edo zeharkakoen bidez, ekonomia berri bidezkoago eta solidarioago bateko irizpideak izango dituen orientabide.

- Sektore handi kutsakor eta antisozialen birmoldatzerako eta birkokapenerako prozesu kolektibo eta demokratiko bat estutzea, enplegu berdeak eskaintzen dituen aukeretan zentratuz (bankua, energia, arropa, elikadura, automobilgintza, industria militarra...).
- Ekonomia sozialaren eta solidarioaren ehuna indartzea, eremu produktiboa eraldatuz balore alternatibodun kudeaketa eredu batetik, eta helburu sozial moduan enplegua sortuz. Horretarako ondorengo zerbitzu bereizgarriak garatzea:
 - Ekonomia sozial eta solidarioko enpresentzako guneak: lokalen esleipena, coworking espazioak, enpresa industrialdeak... Edo espazio publikoak uztea merkatu sozialen azokak ospatzeko edo ekonomia sozial eta solidarioko beste jarduera batzuetarako.
 - Aholkularitza, formakuntza eta laguntza zerbitzua, inizatiba ekonomiko alternatiboetan enpresa berriak sortzeko eta ekonomia sozial eta solidarioaren formulapean beste batzuk birmoldatzeko.
 - Instituzioen parte hartzea abal eta laguntza finantzarioen fondoen sorkuntzan ekonomia sozialeko ekintzaileentzako, ekimen ekonomiko sozial eta solidarioetarako sustagarri fiskalen promozioa bezala.
 - Oso prekarizatutako sektoreak sendotzea ekonomia sozial eta solidarioetan enplegua bultzatzearen bitartez (zaintza eta menpekotasuna, hondakinen kudeaketa...).
 - Ekonomia sozial eta solidarioaren jarduera bultzatzea onura eta zerbitzu komunentzako kudeaketa komunitario eta kooperatiboaren promozio bidez.
- Tokiko ekonomiaren zirkuitua bultzatu eta sustatzea:
 - Ekonomia sozial eta solidarioko azoken promozioa.
 - Gertuko elikadura merkatuen berreskurapena eta promozioa.
 - Tokiko moneten sorkuntza eta sustapena.
 - Elkarlan kontsumoa, kooperatiboa, kolektiboa... berritzea babestea.
 - Txanpon gabeko elkartrukeen garapena sustatzea (denbora bankuak, truke merkatuak...).
 - Puntu garbietan truke zerbitzuak areagotzea.
- Ekonomia sozial eta solidarioarekin lotutako agente sozial zehatzen kanpainak gauzatzea herritarren sentsibilizazio eta kontzientziaziorako, haien alternatiben hedapena onartuko duena eta paradigma ekonomikoan aldaketa baten beharra sentikortuko duena:
 - Merkatu sozial eta kontsumo arduratsuaren promozio kanpainak.
 - Finantza etiko eta solidarioen inguruko promozio eta sentsibilizazioa.
 - Kontsumo kooperatiben promozio kanpainak (energia, elikadura, osasuna, zerbitzuak...).
 - Instituzioetako teknikari eta politikoak ekonomia solidarioaren inguruan formatu eta

sentsibilizatzea, eta politika publikoen sustapenerako gidak sortzea.

- Lurraldeko proiektu eta ekonomia solidarioaren ekintzaileen egitasmoak mapetan biltzea.
- Sektore zehatzetarako sentsibilizazio kanpaina espezifikokoak: hezkuntza alorrerako, auzoko mugimendurako, kontsumitzaileen elkarteetarako, emakume elkarteetarako, elkarteetan ehunerako...

Bestetik, kezka nagusietako bat lan zentroetan ekintza sindikal baten diseinua nola borroka daitekeen da, ideia berriak modelatzen joateko, garapen alternatiborako ekonomia berri bat sustatuko duena.

Negoziaketa kolektiboak, eta zehazki ordain-sariak, aberastasunaren banaketaren erreminta nagusietako bat izaten jarraitzen du. Baina lan zentroetan beste inizatiba batzuk har daitezke:

- Genero berdintasunaren aldeko borroka lehentasuntzat hartzea,
- Kaltetuenak diren kolektibo laboralak aurretik jartzea.
- Kalitatezko enplegua sortzeko borrokatzea, iraunkorra eta bizitzeko beharrak asetzerara orientatua.
- Helburua desiragarria ez denean (armak adibidez) langile talde propioak inplikatzeko produktioaren eraldaketan, egiteko moduagatik (energiaren gehiegizko erabilera), arriskuegatik (energia nuklearra), gainbeheran dauden oinarritzko materialak erabiltzeagatik (petrolio birfindegiak)
- Batzuetan, soldadak oinarritzko beharrei erantzutea onartzen duenean, berau Kontsumo Prezioaren Indizearen gaintik egotea ezin da izan gure aldarrikapen nagusia negoziazio kolektiboan, gure lan eskubideak hobetzea baizik, enplegua sortzea, eta abar.
- Soldaten ezberdintasunari heldu behar zaio, igoera linealari edo soldatei goitik zein behetik mugatzeari.
- Bizitza kalitatea zer denari buruz hausnartzea, kontsumotik askatzeko beharra, eta hau bezala, neurrigabeko kontsumotik, negoziaketa kolektiboaren eta borrokaren aurrean, orokorrean, ahul egiten baikaitu.

c. Gure lurraren zaintza sustatzea eta ingurumenaren jasangarritasuna

Ekonomia solidarioak bizitzaren jasangarritasuna jarduera ekonomikoaren erdigunean kokatuko duen paradigma aldaketa proposatzen du.

Horrek, beste aspektu batzuen artean, trantsizio ekimenen sustapena barnebiltzen du, eta ingurumenaren eta lurraren zainketa zein landa eremuaren jasangarritasunarena oinarritutako politika publikoen garapena:

- Ingurumen heziketa programak sustatzea.
- Kontsumoaren urritzea eta erabilera energetikoaren efizientzia sustatzea, baita burujabetza energetikoa ere.
 - Hondakinen kudeaketa politika egokitzea, besteak beste, neurri hauek izango dituenak:
 - Bilketa politiko exigigarriagoetara jotzea, hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena handituz.

- Ekonomia sozial eta solidarioen enpresak lehenestea hondakinen kudeaketa eremuan.
- Uraren kultura berriaren paradigma oinarri gisa asumitzea bere kudeaketa publikorako.
- Lurraldearen kustodia eta babesa sustatzea:
 - Panen erremintak eta planifikaziorako tresnak erabiltzea, lurraren erabileran eredu jasangarriago bat eta espekulaziorik eza oinarri izango duena.
 - Basoen kudeaketa egokia eta ekosistemak balioan jartzea.
 - Herriko ondare komunaren promozio eta zainketa: ortu komunitarioak, gerriko berdeak...
- Abeltzaintza jarduerak berreskuratzeko lur bankuak sortzea.
- Produktu ekologiko, gertuko eta bidezko merkaturatuen banaketa, komertzializazioa eta kontsumoa sustatuko dituzten politikak bultzatzea.

4. ALTERNATIBA INDIBIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK

Atal honetan maila indibidualean eta kolektiboan ekonomiaren birkokapenerako beharrezkoak diren pauso txiki horiek ematen lagunduko diguten alternatiben segida bat zerrendatu dugu.

a. 3B-ak: beheratzea, berrerabiltzea eta birziklatzea

3Bren inguruan hitz egiten dugunean, gure kontsumo ohiturak moldatzeaz ari gara, kritiko, arduratsu eta jasangarri bilakatuz. Horretarako, hondakinen murrizketa izan behar dugu jomuga, ingurumenaren jasangarritasuna lortzeko intentzioarekin. Gure ohitura aldaketa hauek gure bizitzako eremu eta espazio guztietan aldarrikatu eta praktikatu behar ditugu (etxean, lantokian, heziguneetan, instituzioetan, eta abar).

Lehendabiziko B-a, beheratzea, heldu beharreko lehendabizikoa da, eta eraginkorrena. Gure kontsumoa murrizten badugu (energia, ondare naturalak, produktuak, zerbitzuak) egun sufritzen dugun ingurumen arazoa murrizten ari gara ere bai. Praktikan, modu honetan aplikatu daitezke: gutxiago erostea eta jatorria konprobatzea bezalako irizpideekin egitea, produkzio lokalari lehentasuna emanez, bilgarri edo enbalaje gutxiko produktuak aukeratuz, plastikozko poltsak material berrerabilgarriarekin ordezkatzuz...

Berrerabiltzean, lortzen duguna ondasun baten bizitza luzatzea da, eta hortaz, beste berri batengatik ordezkatzeko beharra atzeratzea. Berrerabilpena baliabide naturaletan aplikatu behar genuke ere, esaterako, urarekin.

Azkenengo B-a, Birziklapenarena, hondakinak tratatzean oinarritzen da, produktu berriak lortzeko helburuarekin, potentzialki erabilgarriak diren materialak zaindu eta horrela ingurumeneko kalteak saihesteko, bere desagerpenarekin (gasak eta bestelako substantzia toxikoak). Maila indibidualean, gure esku dago sortzen ditugun hondakinak aukeratu eta bereiztea.

b. Eraldaketa sozialerako finantza etikoak

Finantzak irizpide sozial eta etikoak dituen banku publiko baten inguruan gorpuztea dugu erronka, herritarrak eta instituzioak hornituko dituen biztanleen eta erakunde sozialen esku-

tan, autogestioaren eta finantzaketa tresna alternatiboen¹²⁷ garapenaren aldeko apustua egiten den bitartean.

Estatu espainiarraren kasuan, duela hamarkada batzuetatik badira gertuko aurrezte bilketa landu duten ekimenak, normalean tokikoak, iniziatiba sozial eraldatzaileen, mailegu txikien bidez, edo oinarrizko beharrak dituzten bazterketa sozialaren arriskua duten pertsonak artatuz. Gaur egun, REASen euskarriean, bada finantzaketa alternatiboen sare bat, mota honetako hamar bat erakunde biltzen dituena.

Banku sektorearen aktibitatearen barruan, oraindik ere, pena merezi du Coop57¹²⁸ esperientzia aipatzeak, “zerbitzuen kooperatiba bat bere baliabide propioak enplegua sustatzen duten eta kooperatibismoa, elkartegintza eta jendartea orokorrean bultzatzen duten ekonomia sozialeko proiektuak mailegatzerara bideratzen duena, jasangarritasuna oinarri etiko eta solidarioen gainean indartzeko”.

Oikocredit¹²⁹, bestalde, finantza etikoen nazioarteko kooperatiba bat da, Euskadin eta Espainiar estatuan lan egiten duena, Iparraldeko herrialdeekin konprometitutako pertsona eta erakundearen aurrezkiak lurralde txiroetan eduki sozialeko enpresa proiektuak finantzatzera bideratzen dituena.

Eta, azkenik, Fiare Banku Etikoa dugu¹³⁰, finantzaketa etikoetan anbizio gehien duen iniziatiba. Fiareren proposamenak bankuko erreminta gisa lan egitea bilatzen du, herritarren aurrezkiak -kredituen bidez- balore sozial eraldatzaile altuko proiektuak babestera orientatuz. Eta eredu eraikitzaile eta garapen kooperatibo baten bidez egiten du, parte hartze, autogestio, tokikotasuna... baloreak sustatuz.

Nahiz eta zehazki finantzen alorrean ez kokatu, eremu honetan aseguruaren sektorea ere sartzan dugu, duen espekulatzailerik jarriera antzekoagatik. Zentzu horretan, eta espazio kooperatibo eta komunak sustatzetik harago, azken urteetatik hona eremu honetan alternatibak sortzeko aukera ere bultzatzen ari da. Hala, Finantza Etikoen Behatokitik EthSi zigilua jarri da martxan (Ethical and Solidarity-based Insurance)¹³¹, enpresen edo baimendutako aseguru produktuen balore eta jarrera etikoa bermatzen duen bereizgarria: sozialki inbertsio arduratsua, mutualismoa, gardentasuna, ekonomia sozial eta solidarioarekin lotura, ingurumenaren jasangarritasuna, eta abar. Zehazki plataforma bat sortu da, Ekonomia Solidarioaren mugimenduaren baitan jaioa, CAES izenekoa (“Cooperación para el Aseguramiento Ético y Solidario”)¹³², aseguru etiko hauek sustatu eta merkaturatzen dituena, bere produktuak Ekonomia Solidarioaren eremura eta elkartegintza sektorera, orokorrean, egokitzeaz gainera.

127 <http://www.economiasolidaria.org/finanzasalternativas>

128 <https://coop57.coop>

129 <http://www.oikocredit.es>

130 <http://www.fiarebancaetica.coop>

131 <http://ethsi.net>

132 <http://www.caes.coop>

Sail honetan crowdfunding edo finantzazio kolektiboa ere sartzen dugu. Horren adibide da Goteo plataforma¹³³, finantzaketa kolektiborako sare sozial bat (diru ekarpenak) eta kolaborazio bereiztua (zerbitzuak, azpiegiturak, mikrozereginak eta beste baliabide batzuk), zeinetatik ADN irekidun inizatiben garapen autonomia bultzatu behar den, aukera berriak sortuko dituen a etengabe jendartea hobetzeko eta onuren eta baliabide komunen aberastasunerako.

c. Merkatu soziala: komertzializazio alternatiboa eta kontsumo kritikoa

Merkatu soziala¹³⁴ “onura zein zerbitzuen produkzio, finantzaketa, banaketa eta kontsumo sare bat da, irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen duena, enpresek eta ekonomia sozial eta solidarioen erakundeek sortua kontsumitzaile indibidual eta kolektiboekin batera. Xedea sare honek partaide hauen beharren zati handi bat hornitzea lortzea da, era honetan ekonomia kapitalistatik deskonektatu ahal izateko, ahal den heinean”.

Merkatu sozialaren eraikuntzaren izaera tokikoa da, eta lurraldeei dagokienean, haien zabalpen, komertzializazio... propioekin antolatu eta garatzen da, estatu mailan kontsumo kritikoa eta arduratsuaren inguruko sentsibilizazio web atari batekin kontatzen bada, gainera, merkatu hauen maparako sarbidea ahalbidetzen da.

Produktore txikiek ekoizten dutenaren produkzioa eta banaketa berriro kontrolatzea lortuko duten merkatu bat, haien produktuen prezioa finkatu ahalko dutena, edo kontsumitzaileak diren pertsonekin batera adostuko dutena.

Herritarrek konpromiso sozialarekin kontsumitzeko aukera bat izango duten espazio bat, eta pertsona kontsumitzaileen ahaleginak pilatu egingo dituen eraldatzeko duen potentziala biderkatzeko.

d. Ekonomiaren txanpongabetzea

Beste alternatiba bat erakunde eta pertsonen arteko harremanen ezarpena da ez derrigorrez ikastaro legalaren txanpon erabilerak baldintzatua. Hala, txanpon sozial edo alternatiboetan oinarritutako merkaturatze zirkuituak abiatzeko ekimenak nabarmentzen ditugu.

Txanpon soziala harreman ekonomiko parekideagoak lortzeko erreminta bat da. Erakunde eta pertsona parte hartzaileen arteko jarduera ekonomiko errealean arabera sortu eta eraisten da. Tokiko moneta da, interesik sortzen ez duena eta pilatzeak zentzurik ez duena. Horrek espekulatzeko aukera baztertzen du, eta beronen errotazio handia ahalbidetu, barneko elkartrukerik mesede egiten dion aspektua. Hortaz, modu demokratiko, deszentralizatu eta komunitario batean sortzen den txanpona da, tokiko ekonomia sendotu eta indartzea onartzen duena gertutasunean eta elkarrekiko ezagutzan oinarrituta.

Euskal Herrian ondorengoak aurki ditzakegu, besteak beste:

133 <http://goteo.org>

134 http://www.economiasolidaria.org/mercado_social

- Bizkaian EKHI ¹³⁵.
- Iparraldean Eusko ¹³⁶
- Nafarroan Txanpon¹³⁷

Baina, txanpon osagarri hauetatik harago, badira txanponak baldintzatzen ez dituen elkartrukeak sustatzeko proposamen anitzak: denbora bankuak dira¹³⁸ eta truke ekimenak, edo kontsumo kolaboratzailearen proposamen anitzak²⁹, onuren eta zerbitzuen sarbidea lehenesten dutenak edukitzearen gainera, ekonomia partekatua izeneko formulen bidez. Motzean, konpartitza eta laguntza, jabetza pribatua edo balore kapitalisten merkatu librearen sustatu ordean.

e. Komertzializazio zirkuitu motzak

Komertzializazio zirkuitu motza jatorri duten produktuak kontsumitzeko modu ohikoentako bat kontsumo taldeak deiturikoak dira. Kontsumo talde bat egun indarrean dagoen kontsumoaren aurrean, kontsumo arduratsu eta alternatibo bat egiteko harremanetan jartzen den pertsona multzoa bezala defini dezakegu, pertsona ekoizle eta kontsumitzaileen artean bitartekaritza eza sustatzen duena eta lurraldeko landa garapena bultzatzen duena, elikadura burujabetzaren aldeko apustua eginez.

Hemendik ondoriozta liteke kontsumo taldeek duten osaera politiko sendoa. Aurrez esanda, koaz gain, gune asanbleario eta autogestionatuak sortzen dira, non pertsonak kontsumo ekin-tzak bere baitan duen arduraren kontzientzia hartzen duten, eraldaketa sozial eta politikorako erreminta bat dena.

f. Bidezko merkataritza eta elikadura burujabetza

Modu jasangarri batean eskuratutako tokiko eta garaiko produktuen kontsumoa lehenestea beharrezkoa bada, produkzio eta komertzializazio harreman justu eta zuzenetan, kafea edo kakaoa bezalako materia batzuk, besteak beste, gure egunerokoan oso errotuak daudenak, ezin dira hemen ekoiztu, bere produkzioak eskatzen dituen baldintza klimatikoengatik, produkzio eta merkaturatze zirkuitu motzetan ezin dira sartu. Kasu hauetan, alternatiba produkzio, esportazio eta banaketa sistema bat da, bidezko merkataritzako printzipioduna.

Bidezko merkataritzaren lehenengo definizio adostua 1999ko apirilean egin zen, honela sailkatuz "elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritutako sistema komertziala, nazioarteko merkataritzan zuzentasun handiagoa bilatzen duena. Grapen jasangarrian laguntzen du baldintza komertzial hobeak eskaintzen dituelako eta kaltetutako ekoizle eta langileen eskubideak bermatzen dituelako, bereziki Hegoaldean".

Euskal Herrian, egun, bidezko merkataritzako hamar denda baino gehiago existitzen dira¹³⁹.

¹³⁵ <http://www.ekhitxanpona.org>

¹³⁶ <http://www.euskalmoneta.org>

¹³⁷ http://www.economiasolidaria.org/noticias/nace_el_txanpon_la_nueva_moneda_social_en_navarra

¹³⁸ <http://www.bdtonline.org>

¹³⁹ <http://comerciojusto.org/tiendas>

g. Burujabetza energetikoa

Eremu honetan, aterki kooperatibo baten pean energia berriztagarrien proiektu kolektiboak finkatzen hasi dira, zeintzuetan norbanako edo kontsumitzailea den entitateari energia elektriko berdearen kontsumo egiteko aukera eskaintzeaz gain, eta multinazional bati merkaturatzearen zati bat ordaintzen uzteaz gain, kontsumo kooperatibak izaterakoan, ziurtatua dago proiektuan aktiboki parte hartu eta kolektiboki eraikitzeko aukera.

Euskal Herrian hiru dira, gaur egun, mota honetako proiektuak:

- Goiener Kooperatiba¹⁴⁰.
- EnergiaGara (SomEnergia)¹⁴¹.
- I-Ener (Iparralde)¹⁴².

Alternatiba guzti hauek produkzio, komertzializazio eta lurraldeko produktu eta zerbitzuen kontsumo kate ekonomikoetan parte hartu nahi duten edozein pertsona eta/edo kolektiboren eskura daude, horrela pertsonen eta ingurumenaren zerbitzura bideratutako beste ekonomia bat sortzen laguntzeko. Finean, bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura jarriko den ekonomia bat, birkokatua eta ahal den heinean sistema kapitalistatik berezia.


Praktika alternatibo hauek eraikitzeak, zabaltzeak eta biderkatzeak trantsizio bide batean jartzen gaitu, sistema -post-kapitalista- solidarioago, bidezkoago eta jasangarriago baterantz.



140 <http://www.goiener.com>

141 <https://www.somenergia.coop>

142 <http://i-ener.eus/>



Bizilur, Ehne Bizkaia, Ekologistak Martxan, Goiener, Mugarik Gabeko Injeniaritza, Emaús Gizarte Fundazioa, Setem Hego Haizea, Desazkundera (bereziki Desazkundera Feminismoen taldea), Etxeko Langileen Elkarte (ELE), ESK sindikatua, Zadorra Fundazioa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak, REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea), Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundera, Saretuz (Red de Consumo Responsable, Consciente y Transformador de Donostia), Zentzuz Kontsumitu (Vitoria-Gasteizko Kontsumo Kontziente eta Arduratsuko sarea), Alianza Política Sector de Mujeres (Guatemala) eta Xochilt Acatl emakume zentroa (Nikaragua) eta Mugarik Gabe